ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-06-17
ASTELEHENA
414. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

I.GALLEGO

"Legez kanpoko klausulak aplikatzen dituzten bankuen jokaera kriminala da"

Jose Maria Erauskin | Abokatua | 7

Atxorrotxeko ermitak itxura berria du auzolanari esker | 11

Zubikoa bete egin zen gimnasia erakustaldian | 25

Gauez eta egunez, jende asko batu dute Olakua auzoko jaiek Oñatin | 30

Iluntasunak erakarrita, 150 lagun takarraran

Gabez Takarraranek atleta mordoa batu zituen zapatuan Eskoriatzan. Josep Maria Pijuan eta Silvia Trigueros izan ziren ilunetan azkarrenak 22

Zapatuan 23:00etan hasi ziren atletak korrika –plazan– ikusleen txalo artean.

IMANOL SORIANO

Sanjuanetarako atzerako kontaketa iragarri du haurren danborradak

Arrasatearrek San Juan gosez daudela erakutsi zuten zapatuan, haurren danborrada ikusteko kaleak bete egin ziren-eta. Zaldi gainean banderadunak eta jenerala bidea irekitzen; atzetik, gaztetxoz osatutako konpainia mordoa. Aurrerapena izan da, gainean dira San Juanak. | 12

Inauguratu dute Aranzadi ikastolako eraikin berria

Proiektu berriaz 'erreferente' izaten jarraitu nahi dute | 4

Futbolean ere euskaraz egin daitekeela erakutsi dute 300 gaztetxok Mojategin | 14

Guardia Zibila kanporatzeko eskaerak erantzun zabala

Kale agerraldiak 400 gazte baino gehiago batu zituen Oñatin | 4

Manifestazioko une bat. | I.SORIANO

Metalgintzako langileek greba deialdia dute gaurko

Sindikatu guztiek deitu dute gaurko lanuztea | 5

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 30 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Renoveren planaren zain zegoen jendea

- Ekainaren 1ean hasi zen, 3.750.000 eurorekin
- Merkatariak hasi dira bezeroen interesa igartzen

Igor Loiti, etiketadun etxetresnak erakusten. | L.K.

Ion Leih

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Renove planaren berri izan eta segituan hasi da jendea komertzioetan galdetzen. Etxetresna elektriko berria –garbigailuak, plater-garbigailuak eta hozkailuak– eros daiteke, trukean zaharra utzita, eta horretarako 1.500.000 euroko aurrekontua ipini du Eusko Jaurlaritzak; etxeko leihoak ere alda daitezke, eta plan horrek ere milioi eta erdiko dotazioa dauka; kondentsazio-galdara ere eros daiteke, eta horretarako 400.000 euroko aurrekontua dago; eta instalazio elektriko berria egin, eta aldaketa diruz laguntzeko 350.000 euro dago. Hortaz, Renove planek 3.750.000 euroko dotazioa dute eta irailaren 30era arte edo dirua bukatu arte iraungo du.

Batez ere, etxetresna elektrikoen saltzaileak hasi dira mugimendu handiagoa igartzen, Almacenes Arrasate komertzioko Igor Loitik dioen bezala: "Jendea zain egon da, eta galdezka, ea noiz hasten zen Renove plana. Eta hasi denean, batzuk etorri dira arineketan". Bere iritziz, "bezeroendako oso ondo dago". Bezeroari samurtasun guztiak ematen zaizkio, prezioarekiko deskontua erosterako unean bertan egiten zaiolako.

Dena dela, kontuan hartu behar da honakoa: "Benetako helburua da energia kontsumo aldetik eraginkorragoa den etxetresna bat erosten laguntzea. Jende askok uste du Eusko Jaurlaritzak etxetresna berria erosteko laguntza ematen duela, baina ez da horrela". Horregatik, etxetresna berriak A++ edo A+++ eraginkortasun-marka izan behar du; A++ bada, 105 euro deskontatuko zaizkio bezeroari ordaindu beharreko preziotik, eta A+++ bada, 125 euro. Oraingoz, A+++ da Europak ematen duen kalifikazio altuena.

Epe luzean, gastu txikiagoa

Gaurko krisi egoeran, bezeroek prezioari egiten diete kasu, batez ere; baina energia eraginkortasuna, epe luzeagoan, euren poltsikoaren aldekoa dela ere erakusten die Igor Loitik. Horretarako, etxetresna bakoitzari etiketa ipintzen diote: ze kalifikazio energetiko duen eta urtean zenbat kilowatt kontsumitzen duen, beste datu batzuen artean. Hortik abiatuta, urteko gastua eta kalifikazio handiko etxetresna bat aukeratzeak dakarren diru-aurrerapena azaltzen die Igor Loitik bezeroei.

Hozkailua da etxean energia gehien kontsumitzen duen etxetresna. Urtero 350 kW behar dituen hozkailu batek eta 200 behar dituen beste batek 150 kW-ko aldea dute. Kilowatt bakoitzari 0,23 euroko kostua ipintzen badiogu eta hozkailuari 10 urteko bizi-iraupena, 345 euroko aurrerapena lortuko dugu bata bestearen gainetik aukeratuta. Horri momentuan bertan Renoverekin lortzen den 105 edo 125 euroko deskontua gehituta, bezeroak bere aukera egiten du. Eusko Jaurlaritzak kalkulatzen du 13.300 etxetresna elektriko berri salduko direla Renove plan honekin.

Lehen, % 30eko laguntza

Leihoak aldatzeko ipini du Urkulluren gobernuak beste dotazio handiena, eta 12.000 leiho aldatuko direla uste du. Kasu horretan ere, ezin da edozein leiho mota ipini, baizik eta energetikoki eraginkorragoak direnak. Baina leihoen Renove planarekin, etxetresnenarekin ez bezala, deskontua obra egin eta gero aplikatzen da, Ion Leihoetako Julia Reyk azaltzen duen moduan: "Bezeroak eskaera egin behar du eta leiho bakoitzaren gaineko dokumentazioa eta agiriak aurkeztu behar ditu Energiaren Euskal Erakundean, eta hark egiten dio diru-sarrera bere kontuan. Bezeroak obra osoa ordaintzen digu guri, hornitzaileoi". Hortaz, agudo ibili beharra dago, aurrekontua bukatu baino lehen eskatzeko dirulaguntza; bestela, laguntzarik gabe gera daiteke norbera.

Obra egin eta gero dirua itzultzeko sistema horrek eragina du hornitzaileengan ere: "Hemendik eta abuztura arte korrika eta presaka ibiliko gara, obra piloa egiten, lehenbailehen bukatzeko eta bezeroak dirua berreskuratu ahal izateko. Irailean, ikusi egin behar zer gertatzen den".

Julia Reyren iritziz, oraingo Renovea ez da beste batzuen moduko ona: "Aurrekontuaren % 22 laguntzen du, gehienez ere 1.000 euro ematen ditu; beste urte batzuetan, % 30 ordaintzen zuen, eta etxebizitza bakoitzeko 2.200 euroko muga zuen. Gainera, sistema ere desberdina zen lehen: bezeroak eskaera egiten zuen eta sei hilabete zituen obra hori egiteko". Edozelan ere, onartzen dute "aurrekontu gehiago eskatzen" dietela orain, bezero gehiago agertu direla, Renove planaren eraginez.

Obra konplexua

Bai etxetresnetan, bai leihoetan, merkatariek esaten dute Renove planak, batez ere, zalantzan dagoen jendea animatzeko balio duela; etxetresna bat zaharkituta edo

ESANAK

"Etxetresna eraginkorrak finantzatzea da benetako helburua"
IGOR LOITI
ALMACENES ARRASATEKO ARDURADUNA

"Leihoen kasuan, obra egin eta gero eskatu behar da dirulaguntza"
JULIA REY
ION LEIHOETAKO ORDEZKARIA

"Kondentsazio-galdarak izan behar dira, eta kasu bakoitza ikusi behar da"
JOSE MARI LASKURAIN
LASKURAIN ITURGINTZAKOA

DATUAK

105
EURO
A++ etiketadun etxetresna erosteak 105 euroko deskontua dauka.

% 22
FINANTZATZEN DA
Leihoen obra eginez gero, gehienez, inbertsioaren % 22 itzuliko da.

200
EURO
Galdara eraginkorra ipintzeagatik, 200 euroko dirulaguntza dago.

oetako arduraduna, diruz lagundutako leiho batzuen ondoan. | L.K.

laster aldatzeko beharrean dagoena, edo leihoen obra egiteko asmoarekin aspaldian dabilenari bultzadatxoa ematen dio dirulaguntza lortzeko aukerak.

Kontua desberdina da diruz lagundutako beste kapitulu baten: galdarak. Bergarako Jose Mari Laskurain iturginak dioenez, "200 euro ez da dirulaguntza handia galdara baterako", baina arazoa, batez ere, beste hau da: "Kondentsaziozko galdara ipintzeagatik ematen dute dirulaguntza, eta horiek hustubidea, desaguea behar dute, eta etxe askotan arazoa egoten da hori ipintzeko. Ponpa bat ere ipini behar zaio ura bidaltzeko. Horrek denak garestitu egiten du produktua. Gainera, kasu bakoitza ikusi behar da, etxe bakoitza". Galdaraz aldatzea 200 eurorekin laguntzen da, baina kondentsaziozko galdara bat 1.600 eurotik gora kostatzen da, normalean, eta horri behar diren obrak gehitu behar zaizkio. Bergarako iturgin horren iritziz, kondentsaziozko galdara horiek zoru erradiatzailearekin batera ematen dute emaitza onena; eta, gainera, etxebizitza ondo isolatuta baldin badago.

Jendeak ez dakizki baldintza horiek guztiak: "Jendeak Renove plana dagoela entzuten du eta etorri egiten da, baina baldintza asko daude", esaten du.

Segurtasun beharra

Laskurainek dioenez, etxebizitza gehienek "ohiko galdarak" dituzte. Eta badirudi aldatzeko aukera txikiak ikusten dituela: "Orain hamar edo bost urte, jendeak berri-berri botatzen zituen gauzak. Orain, beste muturrean gaude: jendeak konpondu egiten du dena, baita konpontzea merezi ez duten gauzak ere". Bere iritziz, benetan gauzak aldatzeko balioko duen gauza bat dago: "Lanpostuan segurtasuna. Gaurko egunean, ez dago, eta jendeak ez du inbertitzen".

Ion Leihoetan ere antzeko zerbait ikusten dute: "Konponketa asko egiten ditugu. Orain, prezioa erabakigarria da. Kalitatea eskatzen du jendeak, bai, baina prezioari asko begiratuta".

Lau Renove programa

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK 1,5 milioiko aurrekontua dago eta 13.300 etxetresna erosiko direla kalkulatzen da. Hozkailuak, izozkailuak, garbigailuak eta ontzi-garbigailuak eros daitezke. Euskadin, 740 bat establezimendutan egiten da Renove plana.

LEIHOAK Aurreko edizioetan arrakasta handienetariko Renoveen artean dago. Aurten, kostuaren % 22raino lagunduko da, gehienez 1.000 euro etxebizitza bakoitzeko. 2.200 etxebizitzako 12.000 leiho inguru ordezkatuko direla kalkulatzen da. Orain arteko Renove planekin, 5.800 etxebizitzak urte baten kontsumitzen duten energiaren adinakoa aurreztu da.

GALDARAK Kondentsazio-galdarak instalatzeko 400.000 euroko aurrekontua dago, eta ordezkatzen den galdara bakoitzeko 200 euroko dirulaguntza eska daiteke.

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK Etxebizitzetan edo etxebizitza-komunitateetan gutxienez 25 urte dituzten instalazio elektrikoak berritzeko, inbertsioaren erdiarekin lagunduko du Eusko Jaurlaritzak; gehienez ere, etxebizitza bakoitzeko 500 euro edo komunitate bakoitzeko 1.000 euro.

ARGIBIDEAK Eskaerak egiteko edo argibide gehiagorako: Energiaren Euskal Erakundea (*eve.es*).

Zelan erabiltzen den ere gakoa da

- Espainiako IDAE erakundeak etxetresnak eraginkortasunaren arabera bilatzeko web orria dauka: *www.idae.es/ProductosEficientes*.
- Etxeko ohiko etxetresnetatik, hozkailuak kontsumitzen du energia gehien: gastuaren % 20 berari dagokio.
- Eguzkiak zuzenean jotzen ez duen leku baten ipini behar da hozkailua, eta paretatik gutxienez 5 cm-ra, ondo aireztatzeko.
- Hozkailuaren tenperatura txikitzen den gradu bakoitzak % 5 energia gehiago gastatzen du. Hozkailuaren tenperatura egokiena 6ºC da, eta izozkailuarena, -18ºC.
- Bete hozkailua modu eraginkorrean: behealdea goialdea baino hotzagoa da. Ez sartu gauza beroak hozkailuan.
- Izozkailuan 5 mm-ko izotz-geruza sortzen denean hori kentzea gomendatzen dute.
- Eroski Consumerren arabera, hozkailuaren bi herenak betetzea komeni da, betetako hozkailu batek hobeto gordetzen duelako hotza. Baina ez da goraino bete behar ere.
- Hozkailuan, plater-garbigailuan, arropa-garbigailuan...oro har, etxetresna guztietan, garbi edukitzeak energia gutxiago kontsumitzea dakar. Hozkailuan, ateko gomak eta kondentsadorea, batez ere; garbigailuetan, filtroak...

Esparza, Elorza eta Garitanori aurreskua dantzatzen, Aranzadiko inaugurazio ekitaldian. | IMANOL SORIANO

Inauguratu dute Aranzadi ikastolako eraikin berria

- Adin desberdinetako umeak nahastuta egongo dira lehenengo solairuan
- Proiektu eta eraikin berriarekin "erreferente" izaten jarraitu nahi dute

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Egubakoitzean inauguratu zuten Bergarako Aranzadi ikastolako eraikin berria, eta horrekin batera, martxan jarri dute baita ere metodologia berria.

Biolin soinuaz hasi zen inaugurazio ekitaldia. Ondoren, Mireia Gallastegi Aranzadiko presidenteak esker hitzak izan zituen. Gero, Martin Garitanori, Jesus Elorzari eta Iñaki Esparzari aurreskua dantzatu zieten.

Garitano Ahaldun nagusiak hitza hartu zuen eta hauxe esan zuen: "Arrasateko Arizmendiko emaitzak onak omen dira adituek esaten dutenez, eta hori Bergaran ezartzea oso ona da. Bergara, Arrasate eta nik uste dut eskualde osoa jartzen duela aitzindari bezala eta hori oso pozgarria da". Omenaldia ere egin zieten Aranzadiko beheko solairuko estruktura egiten ibili diren gurasoei eta bisita gidatua izan zuten ondoren. Beheko solairu horren berezitasuna da paretarik ez dagoela eta "umeari espazioarekiko erlazioa bere kabuz garatzeko aukera" ematen diola esan zuen Mireia Gallastegi presidenteak. Gaineratu zuen adin desberdinetako umeak nahastu egin direla modu horretara eta hori oso aberasgarria dela txikiendako. "Proiektu berritzailea da, oso ondo funtzionatzen du eta konfiantza guztia daukagu" adierazi zigun.

Gaztetxo talde batek biolin doinuz zabaldu zuen ekitaldia. | I.S.

Beheko solairuan lanean ibili diren gurasoak omendu zituzten. | I.S.

Ekitaldia amaitzeko, bisita gidatua egin zuten instalazioetan. | I.S.

Manifestariak plastikozko *tricornioak* airera botatzen, ertzainen aurrean. | J.B.

Guardia Zibila kanporatzeko eskaerak, erantzun zabala

Fan Hemendik eguna ospatu eta manifestazioa egin zuten zapatuan Oñatin 400dik gora gaztek

J.B. | OÑATI

Erantzun zabala izan du aurten ere Guardia Zibila Oñatitik joan dadila eskatzeko egunak. Hirugarren urtez, "indar okupatzaileak kanpora" joateko ozen eskatu zuten egun guztian zehar eta, bereziki, herriko erdialdeko kale nagusian zeharkatu zituen manifestazio jendetsuan.

Eguerdian poteoarekin hasi, kontzertu batekin jarraitu eta bazkaria egin zuten. 400 lagunetik gora batu ziren.

Ospakizun giro horrekin joan ziren manifestaziora, asko plastikozko *tricornioa* buruan eta bibotea margotuta. Lasai joan zen manifestazioa Guardia Zibilen koartelera iritsi ziren arte. Ertzain talde bat zegoen orduan zain eta aurrez aurre jarri ziren manifestariak eta agenteak. Minutu batzuk geldi egon eta gero, plastikozko *tricornio*-ak airean bota zituzten manifestariek eta, ibilbidearekin amaitzeko, plazara abiatu ziren.

Manifestazioa eta gero jaiarekin jarraitu zuten parte-hartzaileek frontoian, musika kontzertu gehiagorekin.

Deialdi nazionala

Oñatiko Fan Hemendik egunaren hirugarren urtea bada ere, aurtengoa berezia izan da, aldarrikapenak Euskal Herria ia osoan zabaldu baitira. Hala, Oñatiz gain beste 16 herritan ere egin zuten manifestazioa ordu berean. Manifestazio osteko ekitaldia, frontoian, deitzaileek nabarmendu egun zuten deialdia izaten dabilen zabalkunde geroago eta handiagoa, hain zuzen, eta joandakoei parte-hartzea eskertu zieten.

Trauti elkartea aurkeztu zuten zapatuan Oñatin, traba arkitektonikoez ohartzeko

JON BEREZIBAR | OÑATI

Oñatiko Trauti elkartea aurkeztu zuten zapatu goizean. Mugikortasun zailtasunak dituzten oñatiarrak batu nahi ditu elkarteak, hirigintzako traba arkitektonikoez ohartarazteko. Hogeita hamar kidetik gora dira eta zapatuan, Foruen plazan, kide gehiago egin zituzten. Komunean daukaten arazo bati erantzuteko sortu zuten Trauti. Mikel Etxezarreta kideak azaltzen duenez, "lehen banabanan" euren kabuz joaten ziren eta ez ei zieten kasurik egiten. "Apurka-apurka batzen hasi eta elkartea osatzea" pentsatu zuten orain urtebete. Oñati erosoa dela diote eta pozik daudela egungo gobernuak eskaintzen dien arretarekin. Badaude, halere, hobetu beharrekoak eta horretan egingo dute lan.

Trauti elkartekoa kideak, zapatuan, plazan. | J.B.

Azken grebako elkarreratze bat. | GOIENA

Metalgintzako langileek greba deialdia dute gaurko

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deitutako lanuzte eguna da gaurkoa

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Nahiz eta sindikatu guztiek ez duten bat egin lanuzte egun kopuruan, gaurko egunean bat egingo dute guztiek. LAB, CCOO eta UGT sindikatuek bat egin dute eta hiru egunetako lanuzte deialdia luzatu dute, lehena gaurkorako, bigarrena eguaztenerako eta hirugarrena egubakoitzerako. ELA sindikatuak aldiz, astelehenetik egubakoitzera bitarteko lanuzte deialdia proposatu du.

Egutegian ez ezik, lanuztea ze arlotan egin erabakitzerakoan ere ez dira ados jarri. LAB, CCOO eta UGT sindikatuen aburuz, greba deialdia metalgintzako langile guztiei zuzendua dago, nahiz eta lan hitzarmena sinatuta izan zenbait enpresatan. ELAren proposamena bestelakoa da; astebeteko lanuztea hitzarmenik ez duten enpresetan soilik egiteko deialdia egin baitu. Hala ere, gaurko egunerako bat etorri dira eta Gipuzkoako metalean greba eguna da gaurkoa.

Mobilizazioen astea

Mobilizazioei dagokienez, sindikatu guztiek bat egin dute eta beraz, elkarrekin kaleratuko dira aldarrikapenak egitera. Hala ere, ELAk bakarkako mobilizazioak antolatu ditu. Modu honetan, ELAk manifestazioa egingo du gaur goizeko 11:00tatik aurrera Bergarako San Martin plazatik abiatuta. Halaber, sindikatu guztiek bat eginda ondorengo manifestazioak antolatu dituzte: gaur 12:00tatik aurrera Eibarren, Untzaga plazatik abiatuta Gipuzkoa mailako manifestazioa egingo dute herriko kaleetan zehar. Eguaztenean aldiz, Bergarako plazatik abiatuko da bailara mailako manifestazioa, 12:00etan. Egubakoitzerako aldarrikapena Donostian egingo da. Azken hau nazionala izango da eta Boulevard -etik abiatuko da 12:00etan.

Grebaren arrazoiak

Gaur egun Metalgintzako lan hitzarmenen negoziazioa blokeatuta dagoelako egin dute greba deialdia. Uztailaren 7an lan hitzarmenak bertan behera geratuko dira aurrez berriz negoziatu eta adosten ez badira. Sindikatuek salatu dutenez, "azken 30 urteotan irabazitako eskubideak galtzea ekarriko luke horrek". Adegik, aldiz, adierazi du langileek jakin beharko dutela konfliktu honetan denek galtzen dutela, "bai enpresek eta baita familiek ere".

Euskaltzaleen Topaguneak egoitza berria aurkeztu du

Abadiñoko egoitza utzi eta Landako elkartegian kokatu dute euskaltzale guztien egoitza berria

A.E | DURANGO

Euskaltzaleen Topaguneak Durangoko Landako elkartegian duen egoitza berriaren aurkezpen publikoa egin du. Hamar urte baino gehiago Abadiñon izan ondoren, egoitza nagusia Durangon izango da hemendik aurrera. Aurkezpen honekin aldaketa posible egin duten erakundeen ahalegina eskertu eta Durangaldeko zein Euskal Herriko erakunde eta eragileei egoitza erakusteko aukera izan dute. Bertan izan dira Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatu Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuorde Patxi Baztarrika, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxeburua, Kontseiluko Idazkari Nagusi Paul Bilbao, Durangoko alkate Aitziber Irigoraz eta Topaguneko presidente Mikel Irizar.

Topaguneko presidenteak, Mikel Irizarrek eskerrak eman nahi izan dizkie egoitza berri hau izateko lan egin duten guztiei, izan ere "sekulako erantzuna izan dugu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Durangoko Udalaren aldetik". Egoitza berria izatea oso garrantzitsua dela ere adierazi zuen "egoitza duin bat izateak autoestima ematen baitigu, indartu egiten gaitu eta beraz, lan hobea egiteko animatuta gaude". Durangon kokatu izanak ere badu bere garrantzia "Durangaldean badaude euskararekin lotutako erakunde asko, hortaz sinergiak aprobetxatuz eta elkarlanean emaitza onak" lortzen direla adierazi zuen Irizarrek. Halaber, gaineratu zuen, Euskararen normalizazioa ziklo berri batean sartzen ari dela eta garai berrian euskarak eta euskal hiztun komunitateak lankidetza espazioak behar dituela.

Bizkaiko Foru Aldundiko kultura diputatu Josune Ariztondok, bat egin du Irizarren hitzekin eta adierazi du "geure helburuetako bat euskara sustatzea da eta proiektu honek bat egiten du gure nahiekin", hori dela eta oso pozik azaldu da diputatu bizkaitarra.

Topaguneko egoitza berriaren aurkezpen ekitaldian. | A.E

GOIENA

Herriko Tabernen auziaren kontra

"Konponbideari erasorik ez! Utzi Euskal Herria bakean!" lelopean kontzentrazioa egin zuten eguenean Oñatiko plazan. 60 bat lagun bildu ziren bertan urriaren 17an abiatuko den epaiketaren aurka. Egun horretan Entzutegi Nazionalean "Ezker abertzailearen baitan egindako lan politikoagatik 40 militante" epaituko dituzte.

Markel Olanoren eta Bittor Orozen berbaldia, bihar Antzuolan

A.E. | ANTZUOLA

Bihar, martitzena, 19:30ean hasita, Antzuolako Olaran aretoan berbaldia egingo dute Markel Olanok (Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAJko bozeramailea) eta Bittor Orozek (Nekazaritza sailburuordea). Jorratuko dituzten gaien artean daude gaur egungo egoera ekonomikoa zein den, azpiegituren egoeraren analisia egingo dute (Esaterako, Deskarga mendateko errepide lanak, Abiadura Handiko Trena...) eta landa garapenaren gainean ere jardungo dute.

Debagoieneko Ospitaleak (argazkian) eta osasun zentroek osatzen dute Debagoieneko ESI. | L.K.

2011n baino bost langile gehiago izan ziren iaz ESIn

Bestalde, 41 milioiko gastuak eta 40,6 milioiko diru–sarrerak izan zituen

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bere lehenengo kontabilitate-urtean, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) 41 milioi pasatxoko gastuak izan zituen, eta 40,6 milioiko diru-sarrerak. Horrez gain, 3,7 milioiko inbertsioak egin zituen, batik bat arlo estrategikoan. Giza baliabideen kapituluan, aurreko urtea baino bost langile gehiago izan zituen iaz Debagoieneko ESIk. Horrela agertzen da ESIk kaleratu berri duen 2012ko Memorian. Ospitaleak eta herrietako osasun zentroek osatzen dute ESI.

Esplotazio-gastuak, zehazki, 41.089.893,74 eurokoak izan ziren iaz. Diru gehiena –32,8 milioi– pertsonal-gastuetarako izan zen; hiru milioi, osasun-materialerako; 1,7, kanpoko zerbitzuetarako; 1,6, askotariko kanpo-gastuetarako; eta milioi pasatxo, farmaziarako.

Esplotazio-sarrerak 40.647.803,59 eurokoak izan ziren, eta ia dena Osakidetzatik etorri zen, osasun -erakunde publikoak finantzatzeko dagoen Programa kontratutik. Dena dela, beste batzuei egindako zerbitzuengatik ere dirua ingresatu zuen ESIk: 309.704,88 euro, zehatz mehatz. Finantza-sarrerak 10.441,44 eurokoak izan ziren, eta beste sarrerak, 29.773,80.

104 fakultatibo iaz

Langileei dagokienez, 2012. urtea 522 langilerekin amaitu zuen bailarako osasun erakunde integratuak, 2011n baino bost gehiago. Aldaketak honako sailetan izan ziren: mediku fakultatibo bat gehiago (104), ospitale-arretan; langile bat gehiago (206) fakultatiboak ez ziren osasun-langileen artean, ospitale-arretan, eta beste bat (61) multzo berean baina lehen mailako arretan; bi langile gehiago (70) osasunarekin zerikusia ez duten langile-taldean, ospitale-arretan.

Gipuzkoan kolaborazioak

Iaz, hainbat kolaborazio egin zituen Debagoieneko ESIk: Gipuzkoako hiru ESIekin eta Lehen Mailako Arretarekin ikerkuntza unitatea; Biodonostiarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlana; EHUrekin eta MUrekin ere kolaboratu zuen; eta bailarako udalekin eta Foru Aldundiarekin programa soziosanitarioa egin zuen.

Gaztempresarekin, 440 lanpostu sortu nahi dituzte

Dirulaguntza hitzartu dute Gaztempresa Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak

L.K. | ARRASATE

Laurehun langabe baino gehiagori lana topatzeko edo euren lanpostua sortzeko aukera handiagoa eman nahi diete Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Gaztempresa fundazioak. Horretarako, autoenplegu-hitzarmena sinatu dute Juan Mari Aburto sailburuak eta Xabier Egibarrek, Gaztempresa fundazioko buruak.

Eusko Jaurlaritzak 215.000 euroko laguntza ekonomikoa emango du; hari esker, autoenpleguaren inguruko hainbat ekintza berritzaile egingo dira, eta negozio txikiak eta mikroenpresak sortu eta zabalik iraun ahal izango dute.

Aukeran, enpresa sortzea

Hiru modalitatetan garatuko dute hitzarmena. Modalitate nagusia, Gaztempresarendako, enpresa berria sortzeko laguntza izango da: kudeaketan esperientzia dutenendako edo negozio-aukera zehatz eta bideragarri bat dutenendako, baldin eta sorreran eta finantzaketan aholkularitza eta laguntza behar badituzte.

Beste bi modalitate eskaintzen hasia zen lehendik Gaztempresa –iaz , baina orain indartu egingo ditu poliki-poliki. Berrenpresa izeneko modalitatean, eskarmenturik ez duen eta jarduera ondo ezagutzen ez duen batek martxan dagoen negozio bat hartu ahal izango du, eta Gaztempresak eskualdatze-prozesuan lagunduko du; eta koenpresa izenekoa, jarduera batean esperientziarik, jakintzarik edo kudeatzeko gaitasunik ez duten eta baliabide gutxi dituzten pertsonentzat.

DATUAK

215.000
EURO
Eusko Jaurlaritzak 215.000 euroko laguntza emango du lana sortzeko.

3
MODALITATE
Enpresa berriak sortzea, Berrenpresa eta Koenpresa adarrak ditu programak.

60.000 lagunendako formazioa lagunduko du diruz aurten Eusko Jaurlaritzak, 54,1 milioirekin

Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituen prestakuntza jarduerak aurkeztu berri dituzte. Gasteizko gobernuak 54,1 milioi ipiniko ditu lanbide-heziketako ekintzetarako, eta horietatik % 60 (32,9 milioi) langabeendako aukerak finantzatzeko izango dira, batez ere gazteei zuzendutako orientazio- eta aholkularitza-programak. Guztira, 60.000 pertsona inguru izango dira laguntzon zuzeneko onuradunak. Prestakuntza okupazionalean, 24,9 milioi euroko partida bat langabeendako 556 ikastaro ordaintzeko izango da.

"Energia aurrezteko gure programetan Deba bailarako enpresa asko ibili dira"

Iñigo Muguruza | Gipuzkoako Bazkundeko Berrikuntza zuzendaria

Aurten, metalaren transformazio sektoreko 20 enpresak egingo dute aurrezte–programa hori

Iñigo Muguruza. | L.K.

L.K. | ARRASATE

Enpresek energia eta dirua aurrezteko programa hirugarren urtez eroango du aurrera Gipuzkoako Bazkundeak. Berrikuntza eta Marketing zuzendariak, Iñigo Muguruzak, esan zuenez, enpresek laster berreskuratzen dute eraginkorragoak izateko inbertitzen duten dirua.

Zela jartzen duzue martxan programa hori?

Gure helburua zen enpresa batzuen egoera aztertzea; enpresa mota bateko taldea osatu genuen eta ekintza batzuk proposatu genien energia eta dirua aurreratzeko. Urterik urte egiten dugu, baina sektorea aldatzen goaz. Bulegoan lan egiten duten enpresekin, jatetxeekin eta hotelekin hasi ginen, eta orain bi urte industrian sartu ginen eta mekanizazio enpresekin egin genuen. Benetako helburua da energia gutxiagorekin kopuru berbera ekoiztea.

Zeintzuk dira orain arteko emaitzak?

Mekanizazio enpresekin ikusi genuen % 12 txikitu zitekeela energia gastua, eta makineriagintzan, % 8,5 inguru. Eurek hautatu behar dituzte gure proposamenetatik bideragarrienak, eta horren arabera, mekanizazioko enpresetan, % 4,7 aurrezten da; eta makineriagintzan, % 0,5.

Inbertsio handia eskatzen dute neurri horiek?

Mekanizazio enpresetan, batez beste, 31.000 euroko inbertsioa zen, % 12 aurreztu nahi bazen. Haiek aukeratu zituzten ekintzek 7.000 euroko inbertsioa zuten, eta 14 hilabetean berreskuratzen zuten. Makineria-industrian, 21.000 euroko inbertsioa zen, baina aukeratu zituzten ekintzekin, 9.000 euro, eta zortzi hilabetean berreskuratzen zuten.

Ze enpresak parte hartuko dute aurten?

Metalaren transformazio taldea osatzen ari gara, eta saiatuko gara 20 enpresara iristen. Debagoienekoak badaude; izena emanda dauka batek. Joan diren bi urteetan, Elgetako hiru enpresa, Bergarako beste hiru eta Arrasateko bat egon ziren, eta Deba bailara hartzen badugu, % 40 hemengoak ziren. Nahiko parte -hartze handia dute, hortaz.

Ze neurri proposatzen dizkiezue?

Enpresak bakarka aztertu eta diagnostikoa egiten diegu. Hiru proposamen mota egiten diegu: lehenengoa, energia hobeto kontratatzeko, prezio merkeagoa izateko kontratuan; bigarrena, energia modu ahalik eta merkeenean erabiltzea: gauez, energia merkeagoa da; uztailean, abuztuan baino garestiagoa; eta asteburuetan, astean zehar baino merkeagoa. Eta hirugarrenak dira energia gutxiago kontsumitzeko. Hor daude praktika onak.

Jose Mari Erauskin | Kaleratzeak Stop plataformako abokatua

"Kriminala da legez kanpoko jo dituzten klausulak aplikatzen dituzten bankuen jokaera"

- Lurzoru-klausulak abusua direla esan du Auzitegi Gorenak, baina soilik banku batzuenak
- HMEI indizea ez ofiziala izateak ere abusu-egoera sortzen duela dio plataformak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hondarribian farmazialaria eta Zuzenbidea ikasitakoa da Jose Mari Erauskin. Kaleratzeak Stop plataformarekin lanean hasi zen, "etxe-husteen drama sozialak" hunkituta. HMEI (IRPH, espainolez) indizea sortzen dabilen arazoez hitz egin zuen Arrasaten.

Zertarako erabiltzen da gaur egun HMEI indizea?

Hipoteka-mailegu baten interesak kalkulatzeko erabiltzen den indizeetako bat da HMEI, eta iazko apirilaren 28ra arte erabil zitekeen. Egun horretan, Banku-zerbitzuen Bezeroen Babes eta Gardentasun Ordena sartu zen indarrean eta, besteak beste, etorkizunean erabil zitezkeen indizeak ematen zituen. HMEI ez zen agertzen eta, beraz, ez da gehiago erabiltzen; baina mailegu asko HMEIren arabera eginda daude. Horietarako, bi aukera dago: maileguak berak alternatiba bat izatea bere kontratuan, Kutxabanken kasuan bezala; Kutxabankek emandako mailegu askok HMEI-Kutxak indizea dute, eta horren ordez Euriborra gehi 1 erabiltzeko alternatiba dago. Beste erakunde batzuen maileguen kontratuan ez zen alternatibarik zehaztu; horietarako, Espainiako Gobernuak esan behar du indize berria zein izango den.

Baina oraindik ez du hori egin. Orduan, zer?

Esandako ordenak esaten zuen HMEI behin betiko desagertuko zela handik urte betera, hau da, 2013ko apirilaren 28an. Baina Gobernuak ez du balio berria argitaratu. Orduan, HMEI-Kutxak manipulatu egin daiteke, kutxek bezeroei hilabete jakin baten kobratzen dietenaren batez bestekoa delako. Kutxak gero eta garestiagoak diren neurrian, HMEI-Kutxak ere gero eta handiagoa da. Abenduan, HMEI-Kutxak 3,3koa zen, eta orain 4,1ekoa da; Euriborra, aldiz, 0,45era jaitsi da.

Zenbat jenderi egiten dio kalte egoera horrek?

Espainiako hipoteka-maileguen % 10 eta % 15 artean HMEI erreferentziarekin eginda daude. Arazoa hau da: Kutxabank-eko bezeroek hitzartuta daukate HMEI -Kutxak desagertzen denean Euribor gehi 1 indizea erabiltzea. Gaur bertan desagertuko balitz, 1,45eko interesa ordainduko lukete, hau da, hileko 300 eta 500 euro aurreratuko lituzkete. Baina Gobernuak ez duenez beste entitate batzuek erabili behar duten indizea argitaratzen, HMEI ez da desagertzen, eta bezeroei ez diete indizea ordezkatzen. Beraz, hiru gauza eskatzen ditugu: Gobernuari, HMEI-Kutxak indizea zeukaten eta alternatibarik hitzartuta ez daukaten maileguetarako interesa lehenbailehen argitara dezala; interes hori soziala izan dadila, Euriborra gehi 1, adibidez; eta Kutxabanki, HMEI-Kutxak ofiziala ez den 14 hilabete pasatu eta gero, Euriborra gehi 1 indizearekin ordezkatu dezala eta ez dadila aprobetxatu Gobernuak ez duelako bere lana egiten.

Noizko espero da Gobernuak indize hori argitaratzea?

Orain esan du urrirako egoera aztertu eta argitaratuko duela. Baina ez dago zer aztertu, gure iritziz; gauzak argi izan behar ditu, besterik ez: ze interes ipini gura diozu familia bati, handia edo txikia? Familiekin edo finantza-erakundeekin zaude? Bitartean, Gobernuak eta egoeraz aprobetxatzen dabiltzan entitateek jokaera kriminala dute.

Horren aurrean, udaletan mozioak aurkezten gabiltza, eta onartzen dabiltza. Mozio horretan, udalei hau eskatzen diegu: Ekonomia eta Ogasun Ministerioari gutuna bidal diezaioten, dekretu hori argitaratzeko eskatzen, eta dekretu hori soziala izan dadin eskatzen; eta, bestetik, Kutxabanki eskatzen indizeak behingoz ordezkatu ditzala, Euskadin familia asko dagoelako egoera horretan eta lur jota geratzen dabiltzalako.

Bestalde, PSErekin ere egon gara eta Eusko Legebiltzarrean ponentzia bat sor dezan lortu dugu, ekainean gai hori bertan eztabaidatzeko. Legebiltzarrak ere gai horretaz zerbait esan dezan nahi dugu.

Lurzoru-klausulak ere salatzen dituzue.

Europako Kontseiluaren 193 Direktibaren arabera, lurzoru-klausulak abusiboak eta legez kanpokoak dira eta kendu egin behar dira. Gainera, kontsumitzaileen kontratuetan klausula abusiboak sar ez daitezen zaintzera behartzen ditu direktiba horrek estatu kideak. Baina Espainiako estatuak ez duenez ezer egiten, herritarrok banan-banan borrokatu behar dugu klausulak ken diezazkiguten, horrek dakarren diru, denbora, energia eta osasun gastuarekin; eta, 10 urte eta gero, irabaztea lortzen dugunean, dirua ez digute bueltatzen. Maiatzaren 9an Auzitegi Gorenak egin zuen epaiak abusibotzat eta legez kanpokotzat jo zituen BBVA, Caixa Galicia eta Cajamarren lurzoru-klausulak, baina itzuli behar izango zuketen diru-kopurua itzuli beharko balute, banku horiek behea joko zutela eta, beraz, ezin izango zela dirua itzuli, hori esan zuen.

Jose Mari Erauskin, Arrasaten. | IMANOL GALLEGO

"Kontsumitzaileok ez dugu zertan epaitegira jotzen ibili behar"

"Ez dituzte bankuak dirua itzultzera behartu, behea joko zutela esanez"

"HMEI erreferentzia ordezkatzeko eskatzen diogu Kutxabanki"

Eguaztenean, sententzia hori berretsi zuen Auzitegi Gorenak, eta lurzoru-klausula guztiak kentzea erabaki zuen BBVAk. Orain, zer?

Bakarrik zuzenean aipatutako erakundeak behartzen ditu epaiak. Auzitegi Gorenak eurei ezer esan ez diela esaten dute beste erakunde batzuek, eta egia da, baina kriminala izan behar da baliorik gabe aitortu dituzten beste klausula batzuen berdinak diren klausula batzuk aplikatzen jarraitzeko.

BBVAren erabakiak beste banku batzuei gauza bera egitera eragin diezaiekela uste dute aditu batzuek.

Bai, baliteke, baina banku horien borondatearen araberakoa da. Eta guk ez dugu euren borondatearen arabera egon behar, ez eta epaitegietara jotzen ibili behar ere, kontsumitzaileak babesteko neurriak ipintzera behartzen duelako Europak Espainia. Espainiako estatuak ez du Europako zuzenbidea bete.

Orain, ea nola lortzen dugun klausula abusiboak kentzera behartu ditzaten beste erakundeak ere. Botere publikoekin lan egingo dugu, kontsumitzaile espainiarroi klausula horiek jar ez diezazkiguten parlamentuak ze asmo duen jakiteko.

Ze beste gehiegikeria dira ohikoak bankuen aldetik?

Abusu mota asko dago. Adibidez, norberak duen posizio irregular bakoitzeko bankuak 30 euro kobratzea abusua da, eta ilegala. Abusua da ere hipoteka baterako bizitza- edo etxebizitza-asegurua eska diezazuten, trukean interesa ez badizute txikitzen. Eskubideei uko egiten die jendeak, jakin barik, ezeren truke ez. Gure legea Europara moldatzeko lege bat argitaratu da orain. Bada, lege hori Konstituzioaren aurkakoa dela argudiatu gura dugu, arrazoi hauengatik: aurrerantzeko kaleratze-espedienteetarako bakarrik balio du eta 20 urtean etxetik bota duten jendea bere horretan utziko du; eta martxan zeuden espedienteak berriz hartu behar dira, lege berriarekin, eta Gobernuak bakarrik hilabete ematen digu zabalik dauden kasu guztietarako klausula abusiboen gaineko errekurtsoa aurkezteko. Auzitegi Konstituzionalera eroan gura dugu legea, indefentsioa sortzen duelako. Bestalde, jendeak benetako zorrarengatik erantzun dezan gura dugu; ken ditzatela klausula abusiboak, legez kanpoko komisioak... eta geratzen denaz erantzun dezala, baina bakarrik horretaz.

Izan ere, kontraesana dago: bankuak ez dira ostu diguten dirua itzultzeko gai, baina Espainiak ez du banku-erreskaterik behar, bankuak solbenteak direlako. Orduan, solbenteak dira edo ez?

Berdinak dira banku guztiak?

Bai, batzuk beste batzuk baino okerragoak. Espainian okerren portatzen dabilena Kutxabank da. Beste batzuekin lortu izan ditugu gauzak, baina Kutxabankekin, ezertxo ere ez.

Kaleratzeen kontrako plataformak egurra ere jasotzen du.

Bai, baina, gu barik, gauzak okerrago egongo lirateke. Jendearen inpotentzia bideratzen dugu. Ez dakit zer gertatuko litzatekeen guregatik izango ez balitz.

ZABALIK

AGURNE JULDAIN
http://goiena.net/iritzia/

Ongi etorri, uda!

Orain dela egun batzuk idatzia egitea tokatzen zitzaidala esaterakoan urduri jarri nintzen berriz. Nire buruari galdetzen nion behin eta berriz: zein gai landuko dut? Zer idatziko dut? Ezin erabaki, baina etengabe buruan gai bat bueltaka: 2013ko udaberria. Egunak, asteak... hilabeteak daramatzat horren inguruko haserreak entzuten. Ni ere haserre nago. Baina eguraldi kontuetan... ezer gutxi dugu egiteko! Gogorra izaten dabil urtea, 2013a gure bizitzetan gelditukо da udaberririk gabeko urtea bezala. Udaberria gauez pasa dela esan dezakegu!

Niretzat urtaro politena da, negu hotz eta ilunetik udaberri loretsu eta argitsura pasatzeak indarberritzen nau eta gorputza pozten dit. Baina aurten, ze tristura! Astean zehar euria, asteburuan euria, goizez hotza, gauez handiagoa... Laster udan sartuko gara eta batzuek diote ez dela uda oso ona izango, baina... udaberria bezain tristea izango da? Ez dut uste!

"Gogorra 2013a: udaberririk gabeko urtea bezala gelditukо da"

Nik badaukat beste gaitxo bat pozik egoteko. Ez bakarrik udaberriari agur esatea eta udari ongietorria ematea. Orain urte bat martxan jarritako proiektua aurrera doa eta bizi ditugun egunak ikusirik... pozik egoteko arrazoiak baditut! Urte bat da urtetan buruan izandako ideia bat azkenean martxan jarri nuela. Proiektu gogorra izango zela banekien, agian ez izaten ari den bezain gogorra, baina pozik nago! Horregatik, egun gutxi barru, orain urte bat martxan jarritako proiektu pertsonalaren urteurrena izanik ospatu egingo dut. Betidanik gustatu zaidalako edozein aitzakia izatea ospakizunetarako, eta oraingoan aitzakia handia da. Eta nire poza guztiokin konpartitu nahi dut eta horregatik festa txiki bat prestatzen nabil. Nire proiektua zuek gabe ezinezkoa izango zelako eta denoi eskerrak ematea beharrezkoa dudalako urte gogor honen amaieran gaudelako, udaberriaren amaieran bezala.

Beraz: agur, udaberria; ongietorri, uda; eta zorionak, Sumendi!

USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

Emakume kirolariak

Telebistan futbol partidua ikusten geundela alabak galdetu zigun ea mutilek bakarrik jokatzen zuten futbolean, ez zuelako sekula telebistaz nesken partidurik ikusi. Orain gutxi izan da Emakumeen Bira, eta munduko txirrindulari onenak baziren ere, komunikabide gutxi batzuetan izan du behar zuen oihartzuna. Alabaren *zergatik* galderari beste galdera batekin erantzun nion: "Eta zergatik ez diote uzten iparraldeko Ainhoa lagunari eskupilotan lehiatzen?". 11 urteko gure lagunak eskupilotan jokatzea du gustuko eta horrela egiten du; baina lehiaketetan parte hartu gura badu, Frantziako Federazioak palan jokatzera behartzen du. Arrazoia? Neska dela. Zergatik?

KALE INKESTA

Krisian, herri txikiak handiekin batzea nola ikusten duzu?

ANA LARRAÑAGA
LEINTZ GATZAGA

"Ez zait ideia ona iruditzen. Herri txiki eta handi bakoitzak bere xarma berezia dauka eta honek berezitasun hori apurtuko luke".

MARCELO GALLO
LEINTZ GATZAGA

"Nik uste dut herri txiki bat independente izanda ekonomia errazago manten daitekeela, Beraz, ez dut beharrezkoa ikusten bateraketa".

MONTSE VALERIO
LEINTZ GATZAGA

"Ez da ona. Herri bakoitzak pentsatzeko era desberdina dauka, eta bateratzeak herrien arteko gatazka sor dezake".

JAIONE MAKAZAGA
LEINTZ GATZAGA

"Nik ez dut ongi ikusten. Leintz Gatzaga krisian dago, beste hainbat herri bezala. Gainera, Gatzaga ez da Eskoriatza edo Gasteiz".

HANDIK ETA HEMENDIK

Direnak dira

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

ETBko zuzendariak esan zuen egin dioten azken elkarrizketan: "Ekintzak direnak dira, eta orain artekoan ezin da esan giza baliabideetan murrikeztarik egin denik ETBren barruan".

Eta, egiari zor, gezurrik ez zuen esan hor. Gaur da eguna, aurreko horiek esan eta hiru astera, oraindik ETBren barruko inor kalera bota ez dutena.

Besterik da ETBrentzat lan egiten dutenen artean; M4F multimedia komunikazio enpresak enplegua erregulatzeko espediente bat aurkeztu du. Guztira, 31 langileri eragingo die espedienteak: horietatik 27, kalera. Kasualitatez, *eitb.com* web atarirako lanean ari diren kazetari eta informatikariak. Atariaren etorkizuna kolokan dago, hartara. "Finantza oreka" deitu dio EITBk. Nik deituko nioke, ez dakit, Pilar, edo Patxi, edo Erika; eta beren zirkunstantziak, noski. Jakin behar da, gainera, M4F Juan Diego Casalsek sortu zuela –diru publikoa ustez bidegabe erabiltzeagatik dago egun inputatuta–. Begi bistako lehen ondorioa: *eitb.com*-eko frantsesezko orria hetsiko da hilabete honetan.

Ezer ez, txikikeria bat konparatzen badugu Kataluniako TV3n egingo dutenarekin: Corporacio Catalana de Mitjans Audiovisuals delakoak –EITBren baliokideak, alegia–, langileekin zituen negoziaketak bertan behera utzi, eta enplegua erregulatzeko espediente bat onartu zuen asteazkenean bertan. Berriz: 312 langile kalera, TV3koak eta Catalunya Radiokoak. Antza, zuzendaritzakoak ere hunkituko ditu espedienteak.

Bada bestelako desberdintasunik, ordea: etxe bateko eta besteko albistegiak. TV3ko albistegietan TV3ko espedientea tituluetan ere eman zuten; ETBkoetan, berriz, ezer ez. 28. minutuan, hogei segundora ere iritsi ez zen berritxo batean bentilatu zuten kontua. Ez dakit zer zeukaten Bilboko Alkateen Nazioarteko Foroarekin. Eta hor ere neurtzen da telebista publiko baten kalitate demokratikoa –onartzen badidazue terminologia ofizialista eta apur batean pedantea–.

Baina ez gaitezen askorik kexa, ez gu, ez katalanak. Grezian errotiko finantza oreka ariketa aplikatu berri dute eta: itxi egin dute telebista publikoa. Eta telebista publikorik ez duen Europako Batasuneko herrialde bakarra bilakatu da hala. Eta berri hori bai eman zuten ETBko albistegietan, noski, besterik ez genuen behar. Egia handia baita: ekintzak direnak dira, eta listo.

Autoebaluazioa

Estitxu Eizagirre
argia.com/blogak/estitxu-eizagirre/

Oherakoan zirika hasi zaio gurasoa, "irakaslearekin bilera dugu, berak esango digu lan asko egin ote duzun eta zenbat ikasi duzun". Ilunpean bost urteko zintzurretik ateratako barre karkaila hedatu da gelan:

-Nola jakingo du andereñoak nik zer dakidan eta zer ez? Hori nik bakarrik dakit! Jakin nahi baduzue galdetu niri!

Egunero ikasten bada zerbait, egun horretako lezioa horrela laburtu zitekeen: Werten bi errebalidek baino gehiago balio duela etengabeko autoebaluazioak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila esklusiboak

Eraman ezazu beti txartela aldean!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO EKAINEAN

KONTSOLA

Wii kontsola dugu zozketatzeko!

EROSKI

Parte hartzeko

Wii
BaserriSarea
Arrikrutz
Argia
Bertikal
Liburu sorta

SMS: KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: *kluba@goiena.com*
WhatsApp bidez: KLUBA [**SARIAREN IZENA**] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

Debagoiena BASERRI SAREA

ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko kobak

BAZEN BEHIN... BIZITZA

Bazen behin... bizitza jokoa irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.

argia

BERTIKAL.COM

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.

bértiKal

LIBURU SORTA

Ipuinez osatutako umeentzako bost liburu sorta bikain.

argia PAMIELA argitaletxea

DESKONTUAK: ***www.goienakluba.com***

NINIKA LORADENDA · ALZU · Esko Sport · JAIXAK disfrutatzeko oparixak · LILURA EDERTZE INSTITUTUA · lastai
Estación de Servicio ARRASATE AVIA · BEGIONDO · Etxe-Andi Hotela · Jatetxea · gahir fisioterapia osteopatia · GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak · Guzizeder · naren
MULTIÓPTICAS lehena zerbitzu optikoetan · ARRIKRUTZ oñatiko kobak · IMPRESPAL INPRIMATEGIA · kuttuna ESTETIKA ZENTROA · Izotz Jauregia TXURI-URDIN
Biotika · caravanas oñate · DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM · PEUGEOT OÑATI GARAJEA · eureka! zientzia museoa · argia

Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Iñigo Ramirez de Okariz | EAJko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria zinegotzia Antzuolan (1995-1999 eta 2003-2007)

- Udaletxeak, politikarien etxeak baino gehiago, herrien alde egiteko tokiak direla uste du
- Unibertsitatean eta Udalean talde-lanak dituen abantailak aplikatzen saiatzen da
- Herriko ondarea ongi ezagutzen du eta 'Antzuolako ohitura zaharrak' liburuaren egilea da

"Ez politikari, ez teknokrata... gure udaletan herritarrek egon beharko luketela uste dut"

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA

Jende askorentzat Iñigo Ramirez de Okariz Huheziko Fakultateko irakaslea den arren, bere herritar senari kasu eginez bi legealditan Antzuolako Udaleko zinegotzi izan zen. Kultura, hezkuntza eta euskara gustuko ditu, eta bere herriko ondarea batzen duen liburu baten idazlea ere bada.

Zure ogibidea beti izan da irakaskuntza; zerk bultzatu zintuen hura utzi eta zinegotzi lanak hartzera?

Beti gertutik bizi izan ditut herriko gaiak, eta, sarri, herriaren alde egiteko grina izan dut. Une hartan aproposa iruditu zitzaidan eta irakaskuntzatik Udalera salto egitea erabaki nuen.

Esperientzia ona izan zen?

Bai, esperientzia aberasgarria izan zen, baina bere alde txarrak ere izan zituen. Garai hartan, Udalean sartzeak etiketa bat jartzen zizun. Urte gogorrak izan ziren, eta, herriaren alde lan egiteko gogoz egon arren, giroa gaiztotuta zegoela nabaritzen zen. Kontuan izan behar da udal baten barruan aldagai ezberdinak daudela. Horietako bat politiko-ideologikoa da. Udalean sartzean, alderdi baten menpe edo kide bezala sartzen zinen; hortik aurrera, jendeak herritar baino gehiago, partidu jakin horren militante moduan ikusten ninduen.

Orain giroa aldatu egin dela uste duzu?

Ez nago Udalean, baina baietz esango nuke. Ezker abertzalea hauteskundeetatik kanpo geratu zen eta hark egoera asko korapilatu zuen.

Gaiak zeresan handia eman zuen herrian eta kanpoan, baina inoiz galdetu zizuten neurri horren kontra edo aldekoa zinen?

Egia esan, ez. Proiektua gutxienekoa zen. Alderdi batek Udalean egoteko aukerarik izan ez zuenez, guri kontra egiteko argudio gisa erabiltzen zuten. Gure lanaren irakurketa oso kritiko eta ideologizatua egiten zuten, herriaren ongizatea albo batera utzita.

Ramirez de Okariz, Antzuolako plazaren albo batean. | IMANOL GALLEGO

> "Beti, gertutik bizi eta jarraitu izan ditut herriko gai eta kontuak"

> "Gure lanaren irakurketa ideologizatua egiten zen"

Udalean, politikariek baino gehiago, teknokratek egon beharko luketela uste duzu?

Herritarrek egon beharko lukete. Hori argi daukat. Beste sistemarik asmatzen ez dugun bitartean, politikarien menpe gaude, baina udal batean kolore politikoak alde batera utzi eta herriaren aldeko proiektuak garatzeko lanari ekin beharko genioke. Ziurrenez, ezberdintasunak baino, elkartzen gaituzten ezaugarri gehiago izango digutu.

Zinegotzi izateak erabaki asko hartzeko aukera ematen du?

Nire esperientzia azalduko dizut. Arloa ezagutu arren, teknikariekin batera hartzen genituen erabaki genienak. Finean, eurak dira Udalaren funtzionamendua ondoen ezagutzen dutenak. Egia da herrikoa naizenez herriaren beharrak ezagutzen nituela, baina teknikariek oso ongi orientatzen ninduten.

> "Torresoroa proiektu garrantzitsu eta beharrezkoa izan zen"

> "Udalean, noizean behin mingainari haginka egiten ikasi nuen"

Proiektu garrantzitsuren bat gogoratzen duzu?

Dudarik gabe, Torresoroa. Proiektu garrantzitsu eta beharrezkoa izan zen. Herrian zehar sakabanatuta zeuden zerbitzuak bateratu genituen, eta egun, antzuolarrentzat eraikin aberasgarria dela uste dut.

Non dago sekretua? Proiektu asko egin dira, baina, gero, kostuak kolokan lagatzen ditu. Hemen ez da hori gertatu.

Edozein proiektu hausnarketa baten ondoren egin behar da, eta Torresoroa eraikin garaikide eta anitza den arren, Antzuolaren neurrira egin genuen. Espainiako eta Espainiatik kanpo zeuden mota honetako eraikin eta proiektu asko aztertu ostean egindako proiektua izan zen.

Inoiz egindako lanagatik zorionik jaso duzu?

Udal bat ez da zorionak jasotzeko tokirik aproposena. Garai hartan, gainera, lehen esan bezala, ez zegoen giro onik. Egun antzuolar orok gustura erabiltzen dugun eraikina dela ikusita konformatzen naiz.

Irakasle zarenez, zein da Udaletik atera zenuen ikasgaia?

Ez dakit, ba... Egia esan, kontra esango nuke. Unibertsitatean talde-lanaren aldekoa naiz eta sistema hori Udalera eroaten saiatu nintzen.

Pazientzia, besterik ez bada?

Akaso, hori... noizean behin mingainari haginka egiten ikasi nuen.

GOIENA, POLTSIKOAN
DESKARGA EZAZU APLIKAZIOA!
ANDROID | iOS | Gainerakoak:
m.goiena.net
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

Eguraldiak eragina izan du auzolanean; egun eguzkitsuetan 15 lagun batu izan dira Atxorrotzen. | IÑAKI SAGREDO

Barnealdea margotzen. | ENERITZ ZUBIA

Kanpoko hormei harriak ateratzen. | IÑAKI SAGREDO

ESKORIATZA

Atxorrotzeko ermitak itxura berria du auzolanari esker

- Barnealdea margotu eta orain kanpoko hormei harria ateratzen dabiltza
- Dagoeneko sei asteburu daramatzate lanean; goiz osoa ematen dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Azken asteotan lanean buru-belarri dabiltza Atxorrotzen. Inguruneak txukuntzeko beharra duela eta, hortaz, auzolana sustatze eta, bide batez, dirua aurrezte aldera lan hori auzolanean erabaki dute. Azken sei asteburuetan taldetxoak ez du hutsik egin, eta goiz osoa eman dute eskoriatzarrendako hain maitatua den ingurua berritzen.

Juan Luis Zubizarreta da han lanean dabilenen eskoriatzarretako bat. Azaldu digu azken urteotan, Atxorrotzen egindako indusketa lanak "nahiko aurreratuta" daudela, eta Iñaki Sagredori, indusketa horietan dabilen historialariari, behin baino gehiagotan entzun diola ermita "egoera eskasean" dagoela, eta konpondu beharko litzatekeela. Esan eta egin.

Teilatuarekin asteon

Berritze lanak bi zatitan daude banatuta: alde batetik, ermitako barnealdea eta kanpoko hormak txukuntzen dabiltza; eta bestetik, ermitaren teilatua konpontzeko asmoa dago. Esandako eraikina dagoen kokapenagatik, sabaia auzolanean berritzea "oso arriskutsua" da, eta hortaz, enpresa batek egingo du hori. Asteon bertan hasiko dira obra horiekin. Baina, gainerako beste dena auzolanean egiten dabiltza. Lehenengo ermitako barnealdea garbitu eta margotu zuten; eta orain kanpoko hormei harria ateratzen dabiltza. Azken horren bueltan, Zubizarretak adierazi digu hormak luzitzeko lanak egitea ez dela batere samurra, eta profesionalek egin beharko dutela. Sabaia konponduko duen enpresa bera arduratuko da horretaz. Hormekin amaitzean Uxarretik datorren bidea ere auzolanean garbitzeko asmoa dute, eta sabaia konpontzeko enpresak ateratzen duen zaborra jasotzen ere lagunduko dute.

Eguraldia, traba

Zubizarretak jakinarazi digu "gehiena" eginda badago ere, oraindik lana dutela aurretik. Hori dela-eta, pasa berri den asteburuan, zapatu eta domekako goizak pasa dituzte Atxorrotzen. Eskoriatzarrak gustura ematen du denbora han, egindako lana dagoeneko agerian dagoelako eta ikusi duelako jendea auzolanean lan egiteko gogoa duela, "eguraldiak larregi lagundu ez badu ere". Azken horren harira, gogorarazi du domeka eguzkitsu batean 15 lagun elkartu zirela Atxorrotzen.

Dena bukatuta dagoenean, egindakoa erakusteko asmoa dute, eta horren bueltan, ekimenen bat antolatzekotan dabiltza. Ideia dagoeneko oso aurreratuta dute; asteon bertan izango dugu ekimen horren berri.

Marinen asteon moztuko dituzte elizako eta kanposantuko belarrak

Eskoriatzan ohituta daude auzolanean ibiltzera, horrelaxe mantentzen dituzte-eta txukun elizateak. Askotariko lanak egiten dituzte horietan. Maringo auzo-alkate Alberto Letonak, esaterako, azaldu digu "normalean urtean behin" auzolan orokor bezala ezagutzen dena egiten dutela han. Bide bazterrak garbitzearekin batera, errepideetako belarrak mozten dituzte, eta, behar den tokietan, pozoia botatzen dute. Horrez gain, auzo-lokalerako egurra gertatzeaz ere arduratzen dira horretan, inguruan jausi diren zuhaitzak aprobetxatuta. Azken hori "bi urtetik behin" egiten dute. Letonak aipatu du auzo-alkateak elizateko baserri guztietara deitzen duela eta bakoitzetik pertsona banak parte hartzen duela auzolanean. Denak elkartuz gero, 22 lagun batzen dira. Zapatuan egiten saiatzen dira, eta lan egin ostean, batera bazkaltzen dute.

Bestalde, data zehatzak jarrita dituzte, urtean hiru bider, elizako eta kanposantuko bueltako belarrak moztu eta txukun uzteko: hain justu, udaberrian, Madalenetan eta Domu Santuan. Horretarako, zerrenda dute eginda, txandakatzen joaten dira; bakoitzean hiru baserrik parte hartzen dute. Horren harira, Letonak iragarri digu gaur eta bihar artean dutela auzolan hori egiteko asmoa. Horrez gain, bigarren zerrenda ere badute, elizateko ur biltegia zaintzeko. Mantentze-lanak egiten dituzte horretan. Zeregin horretaz bi baserri arduratzen dira, bi urterako.

Maringo auzo-alkate Alberto Letona, eliza ondoan. | M.B.

Haurren danborrada Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO.

Danbor eta barril joleak danborrada amaieran. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Barril-jole taldea danborrada Maala kalean zegoenean. | IMANOL SORIANO

ELENE BARCENILLA
ARRASATE

"Banderadun bezala irten naiz eta esperientzia berria izan da. Aurretik ere banekien zaldian ibiltzen. Asko gustatzen zait danborrada".

LOREA IBARRA
ARRASATE

"Ez da lehenengo aldia zuzendari moduan irteten naizela. Oso pozik ibili naiz. Gainera, barril-joleek ez didate lan handirik eman, ondo portatu dira denak".

MANEX MUÑEZ
ARRASATE

"Lagunekin irten naiz danborradan eta gu atzetik joan gara sukaldari jantzita eta egurrezko koilararekin. Beste batzuek eskuetan oilaskoa eraman dute".

JONE GOROSABEL
ARRASATE

"Eskoziar moduan irten naiz eta danborra jo dut. Oso ondo pasatu dut, kantu ezberdinak jo ditugu, *Hamaika Gazte*, *Santiago*... Txapela airera bota dugu amaieran".

ARRASATE

Sanjuanetarako atzerako kontaketa hasi dela iragarri zuten danborrek

Zapatuan 200 neska-mutilek harro desfilatu zuten Arrasateko herriko kaleetatik, Herriko Plazaraino

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Zapatu arratsaldea eta Arrasateko kaleetan jende ugari haurren danborrada ikusteko asmoz.

Zaldi gainean banderadunak eta jenerala bidea irekitzen eta atzetik gainerako konpainiak: danbor-jole berdeak eta urdinak, kantinerak, sukaldariak, barril-joleak, eskoziarrak, praka bakerodunak eta mikeleteak. Eta desfilea ixten, Mondraren omenezko karroza. Parte hartzaileak, animatuta batzuetan, lotsatuta bestetan, urduri zenbaitetan, bikain egin zuten Nafarroa etorbidetik Herriko Plazarainoko ibilbidea.

Plazara sartuta, banderadunak udaletxeko balkoira igo eta orduan hasi zen azken saioa. Kantu bat bestearen atzetik jo ondoren, azkena Arrasate Musikaleko Bandaren eskutik entzun zen, San Juan kantua, hain zuzen. Eta musika entzun bitartean, udaletxeko balkoian Arrasateko bandera eta ikurrina igo dituzte udal ordezkariek.

Amaieran, parte hartzaile guztiek euren txapelak kendu eta airera bota zituzten.

ARRASATE

Euskal dantzak gaztetxoen eskutik

Domeka eguzkitsu eta beroa izan zen atzokoa, baina horrek ez zuen eragotzi Arrasaten Haur Dantzarien Egun ederra ospatzea. Euskal Herriko bazter ugaritatik bertaratutako 400 neska-mutilek euskal dantzen erakustaldi ederra egin zuten eta herriko gune ezberdinak dantzen erakustoki bilakatu zituzten. Goizean kaleak girotu zituzten eta arratsaldean, ostera, Herriko Plazan denek batera zenbait doinuren erritmora dantzatu zuten.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

JOSETXO ARANTZABAL

Ikusleek behin eta berriz hartu zuten parte ikuskizunean Asier Kidam magoari laguntzen. | JOSETXO ARANZABAL

ARETXABALETA

Magiari esker, bero latzetik ihes egiteko aukera

Asier Kidam gasteiztarrak *Txintxin magikoa* ikuskizuna eskaini zuen atzo Arkupe aretoan

Soka oinarri zuen trukuarekin hasi zuen saioa magoak. | JOSETXO ARANZABAL

TXOMIN MADINA | ARETXABALETA

Asier Kidamek ez zuen nolahaiko erronka izan atzo: eguzkiarekin lehiatu eta Arkupe aretoan eskaini zuen *Txintxin magikoa* ikuskizunera publikoa erakartzea. Azkenean, jendetzak ez, baina ikusle dezentek gozatu zuten magoaren trikimailuez.

Publikoaren laguntza

Tarteka bakarrik baina gehienetan publikoaren laguntzarekin askotariko trukuak egin zituen Kidamek agertokian: moztu eta berriz elkartzen diren sokak, benetakoak bihurtzen diren billete faltsuak, ezerezetik irteten diren loreak... Ohikoak diren arren, harrigarriak izaten jarraitzen duten trukuak. Eskertzekoa izan zen gainera, magoak trukuak orijinaltasunez aurkezteko egindako ahalegina.

ONATI

Ume, guraso eta irakasleendako jaia egubakoitzean Elkar Hezi ikastetxean

TXOMIN MADINA | OÑATI

Urtero legez, 0-6 urte bitarte umeendako eta euren gurasoendako festa egin zuten egubakoitz arratsaldean Elkar Hezin.

"Festa honekin nolabait ere ongietorria egiten zaie haurtzaindegian hasten direnei, eta Haur Hezkuntza amaitzen dutenei agur esateko ere aprobetxatzen dugu", azaldu zuen 0-6 urte bitarteko irakasle koordinatzailea den Anaje Ferreirok.

Denendako ekintzak

"Helduok, gurasoek eta irakasleok elkar ezagutzeko aukera ematen du festa honek, eskola kontestutik kanpora", gaineratu zigun Ferreirok. Hala, gurasoek eta irakasleek txitxiburduntzian erretako saiheskia eta tortilak eta tarta; trikitilariak; gozo-eltzea; tailerrak; pailazoak... Denetik izan zen egubakoitzeko festan, denak ere ikastetxearen zelaian.

Potx eta Motx pailazoek parte hartu zuten festan. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

SERGIO AZKARATE

DJ Amaiarekin, geratu gabe

Arrasateko neskatila-mutikoek atsedenerako tarte gutxi izan dute asteburuan: zapatuan umeen danborrada izan bazuten, domekan dantzan ibili ziren goizetik iluntzera Haur Dantzarien Eguna zela-eta. Baina betiko euskal dantzetan bakarrik ez, erritmo berriagoetan ere ederto moldatzen direla erakutsi zuten: DJ Amaiak emanaldia egin zuen atzo iluntzean Herriko Plazan, eta argazkian ikus daitekeen moduan, Arrasateko gaztetxoek gogoz ibili ziren dantzan.

DEBAGOIENA

Beroa bai, baina igerileku gosea, ez horrenbeste

Egunotan zabaldu dituzte Debagoieneko kanpoko igerileku gehienak, baina ez da jendetzarik ibili

Agorrosin, atzo arratsaldeko lehen orduan. | JOSETXO ARANZABAL

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Debagoieneko herrietako kanpoko igerileku gehienak zabalik daude. Bergarako Agorrosinekoa egubakoitzean ireki zuten; Eskoriatzako berriz, zapatuan. Dena den, ez da aparteko jendetza ibili berauetan.

Zapatuan, esaterako, eguraldia ez zen aproposena izan: goiza eguzkitsua izan zen arren, arratsaldean freskatu egin zuen eta lainoek zerua estali zuten. Domekan bestalde, debagoiendarrek nahiago izan zuten egun eguzkitsua mendian, hondartzan edo urtegian pasatzea, antza denez. Arratsaldeko lehen orduan, esaterako, Agorrosinen ez zen arazorik egon belardian lekua bilatzeko, eta txirrista handitik botatzeko ere ez zen ilararik itxaron behar izan.

Arrasateko Musakola da kanpoko igerilekua duen ibarreko hirugarren kiroldegia; hau baina, hilaren 25ean irekiko dute.

Belardiak

Aretxabaletako Ibarra kiroldegiko kanpoko belardia ere zabalik dago zapatuaz geroztik. Oñatikoa 22an zabalduko dute.

Mutilak, zelaira irten aurretik. | IMANOL SORIANO

Ondo pasatu zuten parte hartzaileek. | IMANOL SORIANO

Partiduko une bat. | I.S.

Zozketa ondorengo une bat. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Zapatuan hainbat partidu motz jokatu zituzten Mojategin Kirola Euskarazen baitan. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Futbolean ere euskaraz egin daitekeela erakutsi zuten 300 neska-mutilek

Eguraldia lagun zutela Kirola Euskaraz ekimenaren ikasturte amaierako ekitaldi jendetsua egin zuten zapatu goizean zehar, Mojategin

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Zapatuan Mojategin egin zuten Kirola Euskaraz programaren ikasturteko honetako azken saioa; aurrenekoa Bergaran egin zuten 2012ko azaroan eta abenduan Aretxabaletan.

Hori horrela, Mojategi elkargune izan zen ibarreko 300 neska-mutilentzat eta futbolaren bidez goiz pasa ederra egin zuten. Partidu motzak jokatu zituzten 2002, 2003 eta 2004an jaiotako gaztetxoek; Partiduok jokatzeko Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergaratik bertaratu ziren.

IGOR ARENAZA
EKIMENAREN ANTOLATZAILEA

"Umeak oso pozik ibili dira eta garrantzitsua da kirolaren bidez beste baloreak sustatzea. Mondraren urtemuga ere ospatu dugu opariekin".

INAZIO AZKARRAGAURIZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Oso garrantzitsuak dira horrelako ekimenak. Kirolari denbora asko eskaintzen diogu gure aisialdian eta funtsezkoa da euskara bultzatzea hortik ere".

IKER SEIJO
PARTE HARTZAILEA

"Aretxabaletatik etorri naiz Mojategira, futbolean jokatu, ongi pasatu eta euskaraz egitera. Oso ondo ibili naiz eta asko jolastu dut".

AIMAR ERRASTI
PARTE HARTZAILEA

"Asko gustatzen zait futbolean aritzea eta oso ondo pasatu dut. Lagun berriak egin ditut gainera. Futbolean ere euskaraz egin dezakegu gainera".

Opari eta guzti

Inazio Azkarragaurizar alkateak zein Igor Arenaza ekimenaren sustatzaileak hartu zuten hitza, 11:00etan egindako etenaldian. Biek ala biek euskara eta kirola uztartzearen garrantzia azpimarratu zuten eta ondoren zozketa egin zuten aritutako gazte guztien artean.

Adin bakoitzeko lau sari banatu zituzten, 12 guztira, eta horiek guztiek uztailaren 5ean Mondra -Reala ikusteko bina sarrera eskuratu dituzte, eta hiruk gainera, Realaren baloia eraman zuten etxera.

OÑATI

Olakuako zakurrik politenak

Oñatiko Olakua auzoko jaien barruan zakur erakustaldia eta lehiaketa herrikoia egin zuten zapatu goizean: artzai zakurrena batetik eta, bestetik, orokorra, adinaren araberakoa. Abereen obedientzia eta itxura neurtu zituen epaile batek eta hirugarren sari bat ere banatu zuten: jaietako zakurrik jatorrenari emandakoa. Horretarako ikusleek –asko izan ziren, kuriositate hutsez gerturatutakoak, gainera– botoa emateko aukera izan zuten.

J.B.

J.B.

J.B.

Gorka Muñoz –bigarrena eskuinetik– irudiaren egilea Udaleko, Bagarako eta azokako ordezkariekin. | GUREN ZUMALDE

Azoka Plazak badu marka-irudia, "ulerterraza eta baikorra"

Gorka Muñoz leioarrak egin du eta kartel, poltsa zein seinaletan erabiliko dute

JOKIN BEREZIARTUA /G.Z. | ARRASATE

Gorka Muñoz leioarrak irabazi du Azoka Plazako marka-irudia izateko Bagarak martxan jarri zuen lehiaketa. Irudi berria azokako karteletan, poltsa berrerabilgarrietan eta herriko kaleetan jarriko diren seinale ezberdinetan ikusi ahalko da aurrerantzean.

Egubakoitz goizeko ekitaldian Josebe Landaluze zinegotziak eta Bagarako arduradunek 1000 euroko saria eman zioten irabazleari. Gorka Muñoz da, Arrasaten diseinu ingeniaritza ikasten dabilen 21 urteko leioarra. Haren irudiak azokak dituen hiru balioak nabarmentzen ditu: lankidetza, konpromisoa eta ekologia. Horregatik irudian eskutik helduta dauden bi lagun ikusi daitezke, eta euren azpian ortu bat dago.

Irudia honela deskribatu du egileak berak: "Erabilera asko izan ditzakeen marka da, erraz identifika daitekeena. Mezua erraz ulertzen da eta irudia ez da batere ohikoa. Geometriak mezu baikorra helarazi gura du, azokara ongietorria izango zarenaren mezua. Era berean, horren geometria erraza izateak edozein euskarritara egokitzea ahalbidetzen du".

477 boto jaso ditu

Lehiaketarako deialdia martxo erdialdean egin zen eta maiatzaren 3ra arte luzatu zen lanak aurkezteko epea. 29 lan aurkeztu ziren guztira: zortziren egileak arrasatearrak ziren, 15 Euskal Herrikoak eta sei Estatu mailakoak. 29 lan horietatik epaimahaiak bi aukeratu zituen finalerako. Maiatz osoan irudi finalistak azokan bertan eta BAZen ikusgai egon dira, eta herritarrek bien artean gehien gustatzen zaiena aukeratu ahal izan dute. Guztira 932 boto jaso dira, horietatik 477 jaso ditu Muñozen irudiak. Beste aukerak 414 boto eraman ditu eta 41 bozka zuri ere jaso dira.

Sexualitatearen gaineko tailerra etzi Ekinen egoitzan

Ekin emakumeak elkarteak hitzaldi interesgarria antolatu du etzirako: Bitxigorria boutique erotikoko arduradun den Nerea Sanchok, Sexualitate ereduen, osagarrien eta formula erotikoen inguruko tailerra eskainiko du. Ekinen egoitzan izango da, 18:00etan. Aurrez izena eman behar da derrigorrez eta hiru euro ordaindu beharko da.

Isabel Moyak hitzaldia eskainiko du eguenean Kulturaten, 18:30ean

Isabel Moya Kubako *Mujeres* aldizkariaren zuzendariak eta Habanako José Martí Nazioarteko Kazetari Institutuko Genero eta Komunikazio katedrako lehendakariak hitzaldia eskainiko du eguenean Kulturateko Loramendi gelan (18:30); *Emakumeak Kuban: borrokak, garaipenak eta erronkak* du izenburu.

"Giro ederra" izan da Iturbideko Nagusiaren Asteko ekintzetan

J.B. | ARRASATE

Egubakoitzean amaitu zen, bingo bereziarekin, Iturbide egoitzako Nagusiaren Astea. Astelehenetik egubakoitzera bitartean, denetariko ekintzak izan dituzte: zuzeneko musika, antzerkia, korua, danborrada entsegua...

Ekintza guztietan "parte-hartze altua eta giro ederra" izan dituzte, egoitzako arduradunek adierazi digutenez. Egun handiena eguaztenekoa izan zen: "Aurreko urteetan egoitzako egun berezian kanpora joaten ginen, baina hainbat elbarritu ditugu eta autobusera igotzen eta jaisten denbora asko egiten genuen. Ez genuen egunа aprobetxatzen. Aurten herrian bertan geratzea erabaki dugu eta, eguraldi onaren laguntzaz, oso gustura ibili ginen". Meza entzun, Kajoi tabernako terrazan tragoa eta mokadutxoa hartu, Kulturateko zezenketen gaineko erakusketa ikusi, Etxaluzen bazkaldu eta bi ordu inguruko dantzaldiaz gozatu; egun borobila izan zuten.

Ohiko bingoa, baina opariekin

Egubakoitzean bolo txapelketarekin eta bingo bereziarekin amaitu zuten egitaraua: "Egubakoitzero egiten dugu bingoa, egoiliarrei asko gustatzen zaie. Gaurkoa [egubakoitzekoa], gainera, opari bereziez osatutakoa da".

Bingo berezia izan zen azken ekintza, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

GOIATZ ARANA

SERGIO AZKARATE

Eskoletan ere, danbor hotsak Sanjuanak iragartzeko

Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe gunean –goiko argazkian– eta Arizmendi ikastolako Olarte gunean –beheko argazkian– danborradak egin zituzten egubakoitz goizean. Haurrak gustura aritu ziren danborrak astintzen, irakasle, guraso eta aiton-amonen begiradapean. Ikasturtea amaitzera doala eta Sanjuanak gainean ditugula iragartzeko ekitaldia izan zen eta, eguraldia lagun, giro ederra izan zen bi saioetan. Gehien gozatu zutenak, urtero moduan, irakasleak eta umeen senitartekoak.

Bideoak eta argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Maria eta Jose Mª senar-emazteak Gorlako kantinaren aurrekaldean. | O.E.

Gorlako kantina utziko dute Marik eta Jose Marik

Datorren domekan, ekainak 23, egun osoko agur festa egingo diete

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Maria Milletek eta Jose Mari Gabilondok hil honen azken egunean utziko dute Gorlako kantina. 13 urtez izan dute haren ardura, eta uztea erabaki dute. "Ilobekin egon gura dugu, eurekin jolas egin, disfrutatu, eta kantinako lana uztea erabaki dugu", dio Maria Milletek. "Guk utzi arren, hala ere, kantinak zabalik jarraituko du, ez da etenik egongo. Neska gazte batek hartuko du erreleboa", jarraitu du.

Lagun asko

Maiatzetik urrira bitartean izan dute zabalik Gorlako kantina, 13 urtez, Mari eta Jose Mari senar -emazteek. "Egunero zabaldu dugu; lo ere kantinan egiten genuen. Gogoan dut hasieran pixka bat kosta egin zitzaigula kantina martxan jartzea. Baina jendea etortzen hasi zen, eta ahoz-ahokoak gero eta jende gehiago ekarri du urtetik urtera. Bezeroak izan ditugu, bai, baina batez ere lagunak egin ditugu hemen. Bergara, Urretxu, Azpeitia, Azkoitia, Gasteiz, Donostia, Antzuola... herri askotako lagunak egin ditugu. Lanez gainezka ikusi nautenean, adibidez, mahaitik zutitu eta ontziak garbitzen lagundu izan didate.", adierazi du Milletek. "Domekako agur festa lagun guzti horiei eskerrak emateko eguna ere izango da. Batez ere nire senarrari eta Jose Mª eta Iñaki semeei. Eurek lagundu didatelako egon naiz 13 urtez hemen", jarraitu du. Gorlako kantina zabalik egongo da aurtengo udan ere. Uztailaren 1ean neska gazte batek hartuko du.

Egun osoko festa domekan

Mariri eta Jose Mariri eskerrak emateko eta agurtzeko, egun osoko festa antolatu dute Gorlan domekarako. La Pulgak dantza eta musika eskainiko du zuzenean, El Tenderete taldeak txotxongilo ikuskizuna ekarriko du. Musika talde gehiago ere izango dira. Eguerdian, bertso bazkaria egingo dute Azkarate, Iriondo, Otamendi eta Sasieta bertsolariekin, 14:00etan. Gauean, berriz, San Juan sua.

Errioxara doaz zapatuan Bergarako Erreal-zaleak

Datorren ekainaren 22an, zapatua, Bergarako Erreal zaleek denboraldi 2012-2013 amaierako irteera egingo dute Errioxara. Izena emateko epea ekainaren 18an,martitzena, bukatuko da eta bazkideek Electricidad Matxiategiko dendan eman behar dute izena. Irteeraren kostua izango da 15 euro, gastu guztiak barne. Joan gura duenak, izena ematerako orduan ordaindu behar du irteerak duen kostu hori. Errioxara joateko, goizeko 09.30etan irtengo da autobusa herriko geltoki nagusitik. Lagunarteko kamiseta eramatea ez ahazteko mezua ere zabaldu dute.

Banku etikoei buruz jardungo dute gaur, Equok deituta

Gai ezberdinak jorratuko dituzten berbaldia antolatu du Equo alderdi ekologistak gaurko, astelehenean. Lau gai nagusi hauen inguruan jardungo dute, besteak beste: osasun integrala, osasuna gaixotasun eza baino gehiago da; Fiare bezelako banku etikoen jarduerak; *oparitu zuhaitz bat* izeneko egitasmoa eta kooperatiba energetikoen iarduerak, Goiener eta som energia, batzuk aipatzearren.

Hitzaldia gaur, astelehena, da 19:30ean kultura etxean, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Berbaldi irekia izango da eta herritarrek euren iritzia emateaz gain, ekarpenak ere egin ahal izango dituzte.

Elikagaiak manipulatzeko txartela eskuragai

Elikagaien manipultatze karneta ateratzeko ikastaroa emango dute gaur, astelehena, eta bihar arratsaldean Miguel Altuna institutuan. Zazpi orduko ikastaroa izango da, 16:00etatik 19:30era, eta gazteleraz emango dute.

Ostalaritzan lana egiten dutenendako, edo egin gura gutenendako, aproposa da elikagaiak manipultzen ikasteko txartela lortzeko ikastaro hori. Jatetxe zein tabernetan lana egiten dutenendako, adibidez. Interesa duenak Bizikasin eman behar du izena. Bideak dira: 943 76 93 94 telefonoa edo *info@bizikasi.com* helbidea

Arratsaldetan itxita jarraituko du KZ guneak

Udalak argitu du Eusko Jaurlaritzaren menpeko zerbitzua dela hark agindu dituela murrizketak

O.E. | BERGARA

Bergarako Udalak jakinarazi nahi du KZ gunea arratsaldez ixtea Jaurlaritzak erabaki duela, eta ez Udalak.

Kexak

Udalak hainbat kexa jaso ditu KZ guneko zerbitzuaren murrizketaren aurka, eta udalak zerbitzu horren inguruan gertatutako azaldu nahi izan du. Hauxe da Bergarako Udalak atera duen oharra: "Bergarako KZ gunea arratsaldez ixteak ekarri dituen kexei erantzunez, Bergarako Udalak ondorengoa argitu nahi du: KZ Guneak bere zerbitzuetan murrizketak egin ditu eta erakunde hau Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoenez, murrizketak Eusko Jaurlaritzak agindu ditu, ez Udalak. Bergararen kasuan, dinamizazioa erdira jaitsi dute. Ikastaroak mantendu dira baina nabegazioa ez". KZ gunea Irizar jauregian dago, Barrenkalen, eta goizeko ordutegian egongo da zabalik aurrerantzean.

Kirol taldeekin batuko da udala eguaztenean

Datorren denboraldiko kirol instalazio eskaerei buruz jardungo dute, besteak beste

O.E. | BEGARA

Herriko kirol elkarte ezberdinekin bilera egingo dute udal ordezkariek hurrengo eguaztenean, hilak 26.

'Kirola kalera' eguna

Udaleko kirol saileko ordezkariak bilduko dira herriko kirol taldeetako ordezkariekin. Udaletxeko Gobernu batzordeko gelan egingo dute bilera. Mahai gainean hizpide izango dituzten gaien artean daude: 2013. urteko hitzarmenak; 2013-14 denboraldirako instalazio eskaerak eta irailaren 29rako egin asmo duten, "Kirola kalera" eguna. Horrez gain, baina, bakoitzak bere ekarpenak adierazi ahal izango ditu.

Herriko kirol egoeraz berba egiteko ere aprobetxatzen dute alde biek datorren astean egingo duten moduko batzarrak ere.

LAZPIUR

Saria irabazi du Lazpiurrek

"Oso pozik gaude, eta sasoi honetan, bereziki, asko eskertzen dira halako errekonozimenduak". Horrela baloratu du Lazpiur enpresako ingeniari Gorka Buruagak egubakoitzean eskuratutako sariaren balioa. Mozketak egiten duen laser bidezko makina batengatik eman diote saria Makina Erreminta eta Fabrikazio Tekonologien Biltzarrean.

Hiruko Saskibaloi Txapelketa jokatuko da datorren asteburuan, seigarren aldiz

- Ekainaren 22an eta 23an jokatuko dituzte partiduak, zapatuan eta domekan, San Martin plazan
- Saskibaloi partiduez gain, solasaldi bat eta pelikula baten emanaldia antolatu dituzte

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Ohitura onei eutsi egin behar zaiela-eta, aurten ere Bergara kirol elkarteak Hiruko Saskibaloi txapelketa antolatu du datorren astebururako, ekainaren 22rako eta 23rako. Dagoeneko izena eman daiteke ondorengo lekuetan: Agorrosinen, Labegaraietan, BKEk Bidekurutzeta 3an duen bulegoan eta herriko ikastetxeetan. Halaber, posta elektroniko bidez ere eman daiteke izena. Epea ekainaren 19an amaitzen da, eguaztenean.

Urtetik urtera ezagunagoa da Bergarako Hiruko Saskibaloi Txapelketa. Antolaketa onagatik, banatzen dituen sariengatik eta sortzen den giroagatik. Txapelketa bi egunetan jokatuko da, zapatuan eta domekan, San Martin plazan, eta adin guztietako zaleek parte har dezakete. Gutxienez hiru eta gehienez lau lagunez osatutako taldeak izan behar dute, bost mailatan banatu: haurrak, benjaminak, kimuak, juniorrak eta seniorrak.

Partiduak zapatuan goizeko hamarretan hasiko dira eta 14:00ak arte gazteenek jokatuko dute. Arratsaldean, 16:00etan, juniorrak, seniorrak eta eliteko seniorrak lehiatuko dira. Eta domekan, goizeko hamarretan hasita, benjamin eta kimu mailetakoak arituko dira San Martin plazan. Partidu guztiak jokatzeko sei saskibaloi kantxa jarriko dituzte antolatzaileek.

Guztiek izango dute saria

Krisialdi garaian egonda ere, sari potoloei eusteko ahalegina egin du Bergara kirol elkarteak; izan ere, 50 eta 500 euro arteko sariak izango dira. Hala, senior mailako Elite Euskal Herria taldeko (Euskal Herriko den edonork parte har dezake) talde irabazleak 500 euro eta trofeoa irabaziko ditu; bigarrenari trofeoa emango diote. Herriko seniorren taldeko irabazleek ere sari berberak jasoko dituzte. Junior mailako txapeldunek 200 euro eta trofeoa jasoko dituzte eta bigarren sailkatzen direnek, trofeoa. Kadete mailako neska -mutilek 100 euro eta trofeoa eskuratzeko lehiatu beharko dute eta kimu eta haur mailetakoek, 50 euro lortzeko.

Antolatzaileak aurkezpenean. | A.E

Zozketa berezia ere egingo dute: irabazleak lau lagunentzako afaria irabaziko du. Aurten, talde jatorrenari ere emango diote saria: 100 euro eta trofeo bat. Gainera, herri afaria antolatu dute, eta nahi duen guztia joan ahal izango da. Txartelak Bule eta Depor tabernetan daude salgai, 10 eurotan gazteentzat eta 15 eurotan helduentzat. Kamisetak ere izango dira salgai, 10 euroren truke; iaz arrakasta ikaragarria izan zuten kamiseta salmentak, eta aurten 600 jarriko dituztela salgai adierazi zuen Marian Mellado presidenteak.

Izen-ematea eta ordainketa

Inskripzio-kuotak Bergara kirol elkartearen webgunean *(www.bergarake.com)* azaltzen den kontu zenbakian ordaindu beharko dira, bertan taldearen izena eta taldeko kapitainaren izena zehaztuta. Inskripzio-kuotaren agiria izen-emate orriarekin batera aurkeztu beharko da. Era berean, txapelketak irauten duen bitartean, taldeek bidalitako informazioa kontrolatzeko eskubidea izango dute antolatzaileek, eta, informazioren bat faltsua bada, taldea txapelketatik kanpo uzteko eskubidea izango dute. Horretaz gain, antolatzaileek "txapelketan parte har dezaketen taldeen kopurua mugatzeko" eskubidea izango dutela iragarri du.

Ekintzaz betetako egitaraua

Saskibaloiarekin lotuta hainbat ekintza antolatu dituzte Bergara kirol elkarteko arduradunek. Hala, eguaztenean, hilak 19, solasaldia izango da Miguel Altunan, arratsaldeko zazpietan. Bertan, Ruben Sanchez ACBko epailea eta Gipuzkoako Saskibaloi Federazioko koordinatzailea, Asier de la Iglesia Natra Oñatiko jokalaria, Iñaki Uriarte entrenatzailea eta David Gil Laboral Kutxa Baskonia taldeko entrenatzaile-laguntzailea izango dira saskibaloiaz hitz egiten. Eguaztenean, aldiz, arratsaldeko zazpietan, Zabalotegin film batez gozatzeko aukera izango du nahi duen orok.

Asteburuan, beraz, partidu bikainez eta afari herrikoiaz gozatzeko aukea paregabea izango dute debagoiendar guztiek Bergarako San Martin plazan.

Jabier Soto artista lazkaotarraren margoak Aroztegin

Uztailaren 7ra arte egongo da zabalik, eta egunero ikusi ahal izango da, astelehenetan izan ezik

O.E. | BRGARA

Jabier Soto artista lazkaotarraren margolanak daude ikusgai Aroztegi aretoan. Ura ikusten da margoetan, eta norbanakoa, emakume zein gizon, urarekin gozatzen, itsasoan zein igerilekuan. Udan sartu bezperan gustura ikusteko moduko margoak, akuarelak.

Lazkaon jai zen Jabier Soto, 1958an. Bakarka zein taldean egindako erakusketetan hartu du parte, baita Euskal Herritik kanpoko aretoetan ere. Biarritzen, Irunen, Madrilen edo Belgikan egiten dituzten arte feriatan ere izan da.

Joan den egubakoitzean zabaldu zuten erakusketa Aroztegi aretoan, eta uztailaren 7ra arte egongo da zabalik, egunero, astelehenak izan ezik.

Sotoren pinturetako bat. | JABIER SOTO

Ariznoa elkarteko gazteen A mailako gimnastak. | ARIZNOA

Ariznoa elkartea pozik dago egin duen denboraldiarekin

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bergarako Ariznoa gimnasia erritmikoko elkarteak bukatu du 2012-2013 denboraldia, eta pozik daude egindako lanarekin eta denboraldian lortu dituzten sariengatik.

Bukatu berri duten denboraldian lortu dituzten emaitzen artean, Euskadiko txapelduna izan da Arianna Burgos, amateur mailan, kadete B banakako lehian. Gazte taldea, berriz, Gipuzkoako lehenengoa eta Euskadiko bigarrena izan da. Eskolarteko A mailari dagokionez, alebin taldea Gipuzkoako hirugarren eta Euskadiko laugarren postuak lortu dituzte. Infantil taldea, aldiz, Gipuzkoako hirugarrena eta Euskadiko bigarrena izatea lortu du. Egin duten lan handiaren sariak izan dira lorpen horiek.

Erakustaldia egubakoitzean

Lortutakoa ospatzeko eta herritarrei taldearen lana ezagutzera emateko, ekainaren 21ean, kurtso bukaerako erakustaldia egingo dute Labegaraietan, 19:00etan. Antzuolan ere egingo dute; hilaren 19an izango da, eguaztenean, hango udal pilotalekuan, 16:30ean. "Erakustaldi horietan, gure gimnastek urtean zehar txapelketetara eramandako lanak egingo dituzte, eta hortaz gain baita beraiek prestatutako dantza modernoago batzuk ere" azpimarratu dute Ariznoako kideek.

Orga jasotzaileak eta zubi-garabiak nola erabili erakutsiko dute

Orga jasotzaileak erabiltzen ikasteko formazio ikastaroa emango dute Miguel Altuna Institutuan. Gaur, astelehena, hasiko da ikastaroa. Formazio teorikoa zortzi ordukoa izango da eta praktikoa, 16 ordukoa. Bestalde, zubi-garabien erabilera ikasteko ikastaroa ere antolatu du Miguel Altuna institutuak. Hor ere ordu teorikoak eta praktikoak izango dituzte ikasleek. Matrikula epea zabalik dago. Hauxe da izena emateko telefonoa: 943 76 70 49.

Paisaia ezberdinak ikusten diren margoak ikusgai Nahikarin

Kaleko zein landa inguruko paisaiak jasotzen dituzten margoak daude ikusgai Nahikari tabernan. Arrasateko Juan Mari Lopez de Bergara da pintura horien egilea. Arrasateko Margo taldeko kidea da Lopez de Bergara eta taldeko erakusketa askotan parte hartu du, eta bakarrik egiten duen lehen erakusketa da hau. Paisaia ezberdinak ikusten diren 13 margo, oleozkoak, ekarri ditu Nahikarira. Hilaren 30era arte egongo da ikusteko aukera.

Suhiltzaileak Portu kalen sutan zegoen edukiontzia itzaltzeko lanetan. | GOIENA

Edukiontzien erreketen ustezko egilea inputatu dute

50 urteko gizonezko oñatiarra da eta gertaeren lekuan atzeman zuten

A. TXINTXURRETA/M.BIKUÑA | OÑATI

Hilaren 13an, arratsaldean beste hiru edukiontzi erre zituzten Oñatin. Oraingoan, baina, Udal Gobernuak jakitera eman duenez, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak pertsona bat atzeman zuten gertakarietako bat izandako lekuan, sute horien arduradun izan litekeelakoan. Erreketen ustezko egilea 50 urte inguruko gizonezko oñatiarra da, udaltzainburuak GOIENAri kontau dionez. Ustezko egilea inputatu eta diligentziak hasi dituzte.

Udal Gobernu Taldetik Udaltzaingoa eta herri kolaborazioa zoriondu dituzte, hiru hilabete pasatxoan pisten atzetik egon izanak eman duelako azkenik bere fruitua.

Lehenengoa Aita Madinakoa

Aurreko asteko egueneko 16:30ak inguruan jaso zuten Oñatiko udaltzainek abisua; herritar batek Aita Madina kalean plastikoaren edukiontzi horia sutan zegoela ikusi zuen eta udaltzainei pasa zien abisua. Udaltzainak segituan joan ziren gertakariaren lekura su-itzalgailu batekin. Segituan agertu ziren suhiltzaileak eta gutxira mendean hartu zuten sua. Idoia Lazpita Oñatiko udaltzainburuaren esanetan, une hartan piztu zitzaien susmoa, edukiontzien erreketen inguruan beti pertsona bera ikusten zutela oharturik.

Ordubete geroago, 17:30ean, Portu kalen dagoen Batzokiaren ondoko plastikoaren edukiontzia hasi zen sutan. Abisua jaso eta segituan bertaratu ziren udaltzain eta suhiltzaileak eta nahiko erraz menderatu zuten sua. Ordubete lehenago Aita Madinako erreketan susmagarritzat jotako pertsona bera ikusi zuten Portu kalen udaltzainek, eta lekuko batek emandako informazioak euren hipotesia berretsi egin zuen.

Udaltzainburuak esan dio GOIENAri azken erreketetan beti erre izan direla lehenengo Aita Madina kaleko edukiontziren bat, gero Portu kalekoren bat eta azkenik Etxaluzekoa. Bada, hurrengo erreketa Etxaluzen gertatuko zela aurreikusita, lekukoa eta Ertzaintza Etxaluzera gerturatu ziren. Eta aurreikuspenak bete egin ziren: susmagarriak Etxaluzeko edukiontzi bati eman zion sua. Orduan, inputatu zuten ustezko egilea.

Lekukoak adierazpenak egin beharko ditu egunotan Bergarako Ertzain-etxean. Epaiketa hiru hilabete barru hasiko da. Epaileak erabakiko du orduan nahikoa froga dauden inputazioa aurrera eramateko edo ez.

13 bat urte hasieratik

Aurreko asteko hiru edukiontziekin 13 bat dira urte hasieratik Oñatin erre dituztenak. Gehienak, Aita Madina, Portu kale eta Etxaluzekoak. Bada, Lizaur kalean erre zen edukiontzi urdin batek kalteak eragin zituen ondoan aparkatuta zegoen auto baten.

Askotariko ekitaldiak Pake Lekun gaurtik

Musika, irteera, bingo jokoa, txokolate-jana eta bazkaria egingo dituzte

M.B. | OÑATI

Pake Leku elkarteko erretiratuak ez dira geldi egoten. Aurten egindako 13 ikastaroetan 190 erretiratuk parte hartu dute. Bada, urteko asterik garrantzitsuena, gaur hasiko dute. Domekara bitartean, askotariko ekintzak egingo dituzte Pake Lekun bertan.

Ekitaldi nagusia, domekako bazkaria izango da. Herriko erretiratuek kiroldegian bazkalduko dute udal arduradunen konpainian, eta han omenduko dituzte Francisca Altube (94 urte) eta Fermin Altube (91 urte). Hurrenez hurren, zapia eta txapela jasoko dituzte opari.

Ospakizunak hasteko musika

Ospakizunen astea hasteko, kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute gaur. Loli Ordokiren gidaritzapean zuzenekoa egingo dute Aloña abesbatzak eta musika eskolako ikasleek. Agustindarren elizan izango da, 18:30ean. Bihar, martitzena, osasuna lantzeko eguna izango da. Jose Ramon Galartza traumatologo oñatiarrak artritisaren gainean egingo du berba erretiratuen elkarteko aretoan, 17:30ean.

Eguaztenean San Martinera irteera egingo dute. 10:30ean Pake Lekun elkartu eta han egingo dituzte hamarretakoa eta dantzaldia. Eguenean –ikasturte osoan bezala– bingo jokoa egingo dute opari bereziekin, eta egubakoitzean, azkenik, txokolate-jana egingo dute 17:30ean.

Realaren lagunarteak lelo lehiaketa deitu du

Txantxiku Txuri-urdinak taldearendako irudi proposamenak Izarraitz tabernan utzi behar dira

M.B. | OÑATI

Txantxiku Txuri-urdinak taldea irudi bila dabil. Lagunartearen ikurra izango den leloa aukeratzeko lehiaketa irekia deitu dute. Interesatuek ekainaren 30era arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko. Horretarako bi bide dituzte: Izarraitz tabernan utzi edo *txantxikutxuriurdinak@gmail.com* helbidera bidali.

Marrazkiak egiterako orduan bi baldintza hartu behar dira kontuan: gehienez lau kolore erabili behar direla –zuria eta urdina derrigorrean–, eta txantxikua agertu behar dela.

Bazkide kanpaina

Bestalde, Iñigo Martinez oinarri izango duen lagunarteko bazkide kanpainak aurrera segitzen du. Interesatuek bazkide orria bete eta Izarraitz tabernan entregatu beharko dute uztailaren 7a baino lehen.

Realaren lagunartea irailean aurkeztuko dute.

Emakumeendako autodefentsa ikastaroa

Andraitzek antolatu eta Maitena Monroyk gidatuko du, ekainaren 22an eta 23an

M.B. | OÑATI

Oñatiko Andraitz elkarte feministak emakumeendako autodefentsa ikastaroa antolatu du ekainaren 22rako (10:00-14:00 eta 15:30-19:30) eta 23rako (10:00 -14:00). Zubikoa kiroldegian egingo dute. Maitena Monroy aktibista feministak egingo ditu irakasle lanak.

Deialdia bailarako emakume guztiei zabaldu die Andraitzek, baina oñatiarrek lehentasuna izango dute. Interesatuek *andraitzjabetza@gmail.com* helbidean eman dezakete izena, Euskadiko Kutxan 10 euro sartu ondoren.

Hitzaldia

Andraitzek bestalde, prostituzioaren gaineko berbaldia antolatu du hilaren 19rako, 18:30ean kultura etxean. Askabide elkarteko kide batek egingo du berba prostituzioari buruz.

TXALOAK ETA TXISTUAK

OÑATIKO UDALA

Tuneleko argiteria apurtuta

San Lorentzo eta Errekalde batzen dituen tunelean hainbat hobekuntza lan egin dituzte azkenaldian; besteak beste, argiteria berritu zuten. Bada, Corpus jaietako aste bukaeran, San Lorentzo aldera ematen duen sarreran bi argi-puntu apurtuta agertu ziren. Tunelean 29 argi-puntu ipini dituzte: 14 LED motakoak eta 15 fluoreszenteak.

Katalin Antxia lanean. | KATALIN ANTXIA

ARETXABALETA

Katalin Antxia | Patroigintza ikastaroko irakaslea

"Marraztu ondoren paperekoa hiru dimetsiora pasatzen irakatsiko dut"

Patroigintzako ikastaro trinkoa emango du aretxabaletarrak Arkupen uztaileko lehen astean

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Uztailaren 1etik 5era *Jauntziak paperean* izeneko ikastaroa emango du Katalin Antxia aretxabaletarrak; goizean edo arratsaldean egiteko aukera egongo da. Izen-ematea zabalik dago, *jauntziakpaperean@gmail.com* helbidera idatzita.

Abilezia berezirik eduki behar da?

Patroigintza ikastaroan izena emateko ez da marrazten jakin behar; espresatzen, buruan duzuna zehatz adierazten bakarrik jakin behar da.

Zer irakatsiko duzu patroigintza ikastaroan?

Moda diseinuaren barruan oso fase ezberdinak daude eta nik aurrenekoa lantzeko asmoa daukat; hau da, arropa egin aurretik orrian marraztu behar den patroia sortzen irakatsiko dut. Formula ezberdinak erabiliz gorputzeko neurriak paperera eramaten ikasteko aukera egongo da.

Josten hasi aurretiko prozesua, beraz.

> **"Ikastaroan izena emateko ez da derrigor marrazten jakin behar"**

Bai. Noski, josiko dugu, baina, betiere, paperean. Hau da, marraztu ondoren, hiru dimentsiora pasatuko dugu egindakoa, papera josi eta forma emanda. Lehenengo proba beti egin behar da paperarekin eta hurrengo urratsa oihalera pasatzea izango litzateke, baina hori ez da ikastaro honetan landuko.

Nork eman dezake izena?

Interesa duten guztiek! Hamasei urte baino gehiagokoei dago zuzenduta, eta, nahiz eta emakumezkoen patroigintza landuko dugun, gizonezkoek ere eman dezakete izena, noski! Uste dut aukera polita dela. Nik beti gura izan dut horrelako zerbait ikasi, baina Aretxabaletan ez da egon aukerarik eta hiriburuetara joan behar izan dugu, Bilbora edo Donostiara, esate baterako.

Zuk zeuk ere hori egin zenuen eta egun moda diseinua ikasten ari zara.

Donostian ari naiz, bai. Niretzako patroigintza deskubritzea izugarria izan da, eta pasio bilakatu da. Espero dut urte askoan horrela izatea.

Ikastarora itzuliz, irudimena lantzeko aukerarik egongo da?

Moda diseinua eta patroigintza sormenarekin lotutako zerbait da, baina horra iristeko oinarrizkoa egiten jakin behar da; bestela, ezin izango da ezer sortu. Arropari bolumenak nola aldatzen zaizkion jakin behar da, forma jakin bat edo beste bat emateko, esaterako. Horretarako oinarri bat eduki behar da, eta hortik abiatuta sormena lantzen hasten da.

Gainera, norberak egindako arropak balio erantsia izaten du...

Kontsumitzen dugun hori guk egiterik ote daukagun jakin gura izaten dugu, eta arropa bat egiten dakigunean, horrek daukan balioaz jabetzen gara. Ordu piloa sartzen ditugu eta maitasunez egiten dugu lan. Konnotazioz betetako zerbait da, eta ni, behintzat, bete egiten nau. Gauzak baloratzen ikasten da.

Astebeteko ikastaroaz nahikoa?

Asmoa da jendea ikastaro trinkotik udako kamiseta baten edo gonaren baten patroiekin irtetea.

ESKORIATZA

Eskoriatzako erretiratuen urteroko jaia eguenean

Olazarrek antolatuta Gernika plazan elkartuko dira herriko erretiratuak merienda egiteko, 17:30ean

Iazko meriendaren une bat. | GOIENA

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Eskoriatzako erretiratuek jaialdia egingo dute asteon. Eguenean izango da; ohi bezala, mahaiaren bueltan eserita, merienda ederra egingo dute, 17:30ean hasita.

Eguraldiari begira

Olazar elkarteko presidente Josetxo Enekotegik egunaren nondik norakoak azaldu ditu: "Iaz 130 lagun inguru elkartu ginen eta aurten ere antzera izatea espero dugu. Oso giro polita sortzen da. Espero dugu eguraldiak laguntzea Gernika plazan egiteko; bestela, elkartean sartu beharko dugu". Urdaiazpikoa, txorizoa, solomoa, tortilla, piperrak, flana... Mokadu ederra eramango dute eguenean ahora Eskoriatzako erretiratuek. Izena eman behar da aurrez, "5 euroko mailegua ipinita". Joaten direnei, dirua itzuliko diete.

ESKORIATZA

Argitaratu dituzte GKEei laguntzak emateko oinarriak

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, zenbait urtez etenda egon ostean, garapen bidean dauden herrialdeekiko 2013ko lankidetza programen harira, diru-laguntzak ematea.

Oinarriak ekainaren 6an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 30 eguneko epean erreklamaziorik egon ezean onartu egingo dira automatikoki. Orduan, Gobernuz Kanpoko Erakundeek lankidetza-programak antolatu eta gauzatu ditzaten laguntza eskaera egin ahal izango dute. Oinarriak Eskoriatzako Udalaren webgunean daude ikusgai.

Arduratsu jokatzeko beharra

Beñat Herce alkateak laguntzak berreskuratzeko arrazoiak aipatu zituen maiatzeko bilkuran. Udalak arduratsu jokatzea erabakia hartu zuen, eskoriatzarrez gainera, "beste batzuek behar handiagoak dituztela badakigu eta".

ARETXABALETA

Bularreko minbizia detektatzeko probak egiteko deia emakumeei

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Bularreko minbizia goiz detektatzeko programa dauka martxan Osakidetzak eta ekaina amaieratik urrira arte egin ahal izango dira probak Arrasateko Debagoieneko Ospitalean.

Herriko emakumeei dei

Osakidetzako programaren harira, Aretxabaletako Udalak 1943 eta 1963 urteen artean –biak barne– jaiotako Aretxabaletako emakumeei horren gainean informazio eman gura izan die, "daukan garrantziagatik".

Osakidetzak gutuna bidaliko die adin tarte horretako emakumeei eta urriaren erdialdera arte Debagoieneko Ospitalean egingo zaizkie beharrezko probak emakumeei. Arazoa goiz detektatzearen garrantzaz jabetuta herritarrak animatu gura dituzte.

Edozein zalantzarako deitu 943 023 030 zenbakira.

Andramaixetako kartel eta esaldi lehiaketetara proposamenak aurkez daitezke oraindik

Andramaixak iragartzeko kartel eta esaldi lehiaketa abian dago. Esaldi lehiaketari dagokionez, ekainaren 29a izango da lanak aurkezteko azken eguna eta 120 euroko sari nagusia eta 60 euro hiru egongo dira. Kartel lehiaketako azken eguna, aldiz, uztailaren 4a izango da eta 200 euro emango dituzte. Bi lehiaketetako irabazleak uztailaren 8an emango dituzte jakitera.

Ondasun higiezinen gaineko borondatezko zerga ordaintzeko epea uztailaren 19an amaituko da

Ireki dute ondasun higiezinen gaineko zergaren borondatezko ordainketa egiteko epea Udaletik aditzera eman dutenez. Hain zuzen ere, "2013ko higiezinen gaineko zergari dagokion kuota, hiri izaerako ondasunei zein landa izaerako ondasunei aplikagarria da". Hori horrela, interesa duten guztiek 2013ko abuztuaren 19ra arte egin dezakete ordainketa.

Denboraldiaren balantzea eta bestelako gaiak landuko ditu UDAk eguen honetan Ibarran

Denboraldia amaituta, eguen honetan, hilak 20, UDAko kideek hainbat kontu izango dituzte mahai gainean lantzeko. Besteen artean 2012-2013ari buruzko balantzea zein, elkartearen urteko batzarrerako deia egingo dute. Ibarra futbol zelaian egingo duten prentsaurrekoan landuko dituzte gai horiek eguen honetan, 17:00etan hasita.

ESKORIATZA

Fruta eta berduren kontserbak nola egiten diren azalduko dute Jakioneko kideek Eskoriatzan bihar

Leintz Gatzagako Jakion enpresako kide batek hitzaldia emango du bihar, martitzena, Eskoriatzan. Kultura Etxean izango da eta modu teorikoan fruta eta berduren kontserbak nola egin irakatsiko dute. "Oraingoan ez dugu erakustaldi praktikorik egingo". Gura duten guztiek 18:30ean hasi eta bi ordu inguru iraungo duen berbaldira gerturatu daitezke.

ARAMAIO

Kultura, kirol eta gizarte arloko diru-laguntzak eskatzeko aukera, zabalik

Maiatzaren 31ko osoko bilkuran aho batez onartu ziren Udalak aurten emango dituen laguntzen prozedurak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Maiatzaren 31ko osoko bilkuran onartu ziren kultura, kirol eta gizarte arloko diru-laguntzak eskatzeko prozedurak. Deialdiaren helburua da 2013an antolatzen diren kultura, euskararen sustapen eta kirol edota gizarte arloetako jarduerei laguntza ematea.

Herritarrei prestazio horiek baldintza berberetan eskuratu ahal izateko aukera ematen du Udalak, udal eskumenekoen osagarri edo ordezko diren zerbitzuak zein jarduerak martxan jartzeko. 19.390 euro bideratuko dira aurten eta kopuru hori honela dago banatuta: kultura eta gizarte jardueretarako 13.115 euro eta kirol jardueretarako, berriz, 6.275 euro.

Bete beharreko baldintzak

Diru-laguntza deialdi honetara elkarteak, kultura eta gizarte taldeak, eta entitate publiko zein pribatuak aurkez daitezke, baldin eta irabazteko asmorik ez badute eta kultura edo kirol jarduerak antolatzen badituzte. Elkarteak Aramaion izan behar du egoitza, edo bertan burutu behar du jarduera. Era berean, musika ikasteagatik ematen diren diru-laguntzak ere emango ditu Udalak aurten. Aramaion erroldatuta daudenak eta eskaintzen ez den musika diziplina bat ikasteko desplazatu behar direnak izango dira onuradunak, beti ere langabezian badaude edo ikasleak badira. Gehienez matrikularen zenbatekoa ordainduko zaio. Abuztuaren 16a baino lehen egin behar dira eskaerak.

SERGIO AZKARATE

Errepideko bazter-babes zatia konpondu dute azkenean

Joan den astean konpondu zuten apirilaren 27an errekara eroritako kamioiak hautsi zuen errepideko bazter-babes zatia. Ordutik ibilgailuen zirkulaziorako kono batzuk egon dira kamioia erori zen lekuan gidariei arriskuaren berri emateko, baina hilabete baino gehiago behar izan dute lekua behar bezala uzteko: 30 bat metrorako bazter-babes zati berria jarri dute. Istripua oso ikusgarria izan bazen ere gidaria arin zauritu zen.

LEINTZ-GATZAGA

Gaur, astelehena, garbigune ibiltaria udalerrian izango da

Estreinaldian, ekainaren 3an, "ia bete" egin zen garbigune hori gatzagarrek eramandakoarekin

UBANE MADERA | GATZAGA

Gaurkoa bigarren hitzordua du garbigune ibiltariak Leintz-Gatzagan. 08:30etik 21:00ak arte izango da San Miguel plazan, gatzagarren hondakin arriskutsuak hartzeko gertu. Estreinaldian izan zuen "harrera ona" ikusita, pentsatzekoa da oraingo honetan ez dituela horrenbeste hondakin jasoko. "Aldez aurretik abisatu barik jakin zuten herritarrek garbigune ibiltaria hemen zela, eta egunean bertan ia bete egin genuen. Telebistak, bateriak, pilak...ekarri zituzten. Beraz, esan daiteke nahiko harrera ona izan zuela, bai", jakinarazi du Juan Luis Zabala Zerbitzuetako zinegotziak.

Aldaketak eragin

Hark gaineratutakoaren arabera, Gatzagan egindako estreinaldiak garbigune ibiltariaren konpondu beharreko batzuk azaleratu zituen: "Ikusi genuen fluoreszente luzeak ez direla kabitzen, eta termometroekin ere arazoa zegoela. Hori konpontze bidean dago".

Lehen sektorea indartzeko

Bestalde, joan den astean Mankomunitateko Garapen Agentzia Gatzagan egin zuten. Lehen sektorea berpizteko mahaia osatu gura du Mankomunitateak, eta lehen sektoreak justu Gatzagan duen pisua kontuan hartuta, bertan egin zuten batzarra.

ELGETA

Elgeta-Bergara taxi-bus zerbitzu berria iragarri du Foru Aldundiak

Uztailaren 1ean ipiniko dute martxan eta lan egunean hiru zerbitzu finko eskainiko ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Garraio publikoa indartzeko zerbitzu berriak aurkeztu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak; esaterako, Bergara eta Elgeta lotuko dituen taxi-busa. Aldundiak esan du eskaintza uztailaren 1ean ipiniko duela martxan eta gaur egun dauden zerbitzuak osatzera datorrela. Lan egunean bost zerbitzu eskainiko ditu: hiru finkoak —12:45ean, 16:10ean, eta 19:35— eta bi eskaripekoak —18:50ean eta 21:00ean—. Jaiegunetarako, berriz, eskaripeko hiru zerbitzu berri iragarri dituzte: 13:45ean, 16:10ean eta 21:15ean. Eskaripeko izateak esan nahi du erabiltzaileak telefonoz eskatu beharko duela, aurrez.

Aspaldiko eskaera

Urteak dira elgetarrak garraio zerbitzua hobea eskatzen dabiltzala. Aldundiak 2012ko apirilaren 16an ipini zuen martxan Elgeta eta Eibar lotzen dituen taxi-bus zerbitzua, eta esan beharra dago erantzun polita izaten ari dela. Elgetako Udalak sasoi hartan landu zuen herritarrekin batera Elgeta-Bergara garraio zerbitzua hobetzeko proposamena. Hainbat bilera ireki egin ziren eta landutako proposamen hura Aldundiari aurkeztu zitzaion. Orain iritsi da erantzuna: Aldundiak ez ditu elgetarrek eskatutako zerbitzu guztiak onartu, baina taxi-busa martxan ipiniko du uztail hasieran.

Elgetarra Bergarara doan autobusera igotzen. | L.Z.

ANTZUOLA

Elkarbizitza prozesuko azken bilkura egin dute

Martitzenean eman zioten amaiera duela hilabete abiatutako prozesu parte-hartzaileari

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Joan den martitzenean egin zuten elkarbizitza prozesuko azken bilera Olaran etxean. Azken asteotan antzuolarrak batzen diren hirugarren aldia da eta orain arte jasotakotik hainbat ondorio ateratzen eta etorkizunean elkarbizitzarako baliagarri izan daitezkeen balioak zehazten saiatu ziren azken bileran.

Aurrekoetan parte-hartzaileek elkar ezagutu eta norberaren ustez elkarbizitzarako garrantzitsuak diren balioak, premiak, betebeharrak eta eskubideak adostu dituzte. Ordura arte ezezagunak zirenek elkarrekin berba egin eta bakoitzaren bizipenak trukatzeko aukera izan zuten.

Duela hilabete egin zuten lehen bilera eta orduan Maddi Elorza Kultura zinegotziak azaldu zuenez, "jatorri ezberdinetako jendearen artean harremana sortzea da elkarbizitza prozesu honen helburua".

Prozesu parte-hartzailea

Elkarbizitza prozesua ez da Udalak bere kabuz bakarrik garatu duen zerbait, antzuolarren eta bertan bizi direnen iritzi eta parte-hartzean oinarritutako egitasmoa baizik.

Antzuolarrak eurak izan ziren iazko aurrekontu parte-hartzaileetan elkar ezagutzeko nahia erakutsi zutenak. Eta behin aukera emanda, ez dute hutsik egin, izan ere, 30 pertsonaren bueltan ibili da bileretako parte-hartzaile kopurua. Gainera, bilerek aurrera egin ahala jende berria joan da bileretara.

Bazkideentzat abantaila esklusiboak

Eraman ezazu beti txartela aldean!

Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.

Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.

Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.

Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

Jaixak
Barrenkale 10 - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.

Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

Gaes
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

Multiopticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea — Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

Arrikrutz Kobak
Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

Impresspal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

AQUARIUM
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.

Caravanas Oñate
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

Guztiz Eder
Kalebarria 29
Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.

Lilura Edertze Institutua
Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Argia
www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.

Txuri Urdin izotz pista
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

Lastai
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.

Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA

MENDI LASTERKETAK

Oporretara etorri, eta Gabez Takarraran irabazi

- Josep Maria Pijuan katalana erraz nagusitu zen
- Silvia Trigueros izan zen nesketan onena

Josep Maria Pijuan kataluniarra Eskoriatzako helmugan, goizaldeko ordubata baino apur

XABIER URZELAI | ARRASATE

Kataluniako selekzioko elastikoa janztea zer den ondo dakien Josep Maria Pijuanek erraz irabazi zuen Gabez Takarraran lasterketaren laugarren edizioa (1:55:05). Hala, podiumera igo aurretik onartu zuen opor egun batzuk igarotzera etorri zela Euskal Herrira, eta lasterketaren berri izan zuenean ez zuela birritan pentsatu: "Gauez korrika egitea zirraragarria delako". Emakumezkotan Eskoriatzan lan egiten duen Silvia Trigueros bizkaitarrak irabazi zuen, eta lan egiten duen enpresari eskaini zion garaipena: "Aurten Ederlan lantegiaren 50. urteurrena da, eta garaipena eskaini nahi diot".

Indarra hartzen dabilen proba

Gabez Takarraran lasterketako laugarren edizioa borobila izan zen. Atletek Asentzio jaisten duten abiadura berean dabil hazten Eskoriatzako lasterketa. Hala, zapatuan 150 korrikalari azaldu ziren 23:00etan hasita 23 kilometro egiteko gertu. Eguraldiak ere lagundu egin zuen –fresko egiten zuen, korrika egiteko tenperatura aproposa– eta zerbait esatearren, Leixargaraten zegoen behe-laino itxiak buruhausteren bat edo beste sortu zien atletei, bidea ondo adierazita bazegoen ere, ez zelako asko behar okerreko bidea hartzeko.

Gainera, Eskoriatzako plazan ikusle mordoa batu zen moduan, ibilbidean zehar ere jende asko zegoela aitortu zuten atletek. Eta, Asentzioko gainean zeuden txalapartariek, eta Atxorrotxen zeuden dantzariek beste ukitu bat eman zioten probari: "Hunkigarria izan da Asentziora iristen txalaparta entzutea", zioen batek baino gehiagok.

Molinero, gureko azkarrena

Behe lainoaz, edo barik, baina Josep Maria Pijuanek *hegan* egin zuen ibilbidean. Asentziora igotzen ia minutu bateko aldea atera zion bigarren zetorren Iñaki Uribe-etxeberriari (0:24:51), eta jaitsieran Eskoriatzarrak aldeari eutsi bazion ere, lasterketako bigarren zatian Blancafort herriko atletak aurrera egin zuen.

Ibilbidearen bigarren zatian Uribe-etxebarriak ezin izan zion hasierako erritmoari eutsi; orkatila bihurritu zuen birritan, eta gainera, tramu batean galdu egin zen. Erritmoari ondo eutsi ziona bigarren helmugaratu Joseba Molinero oñatiarra izan zen, eta Andoni Gomez bergararrak osatu zuen podiuma.

Emakumezkotan irabazle Silvia Triguerosek (2:23) Asentziora igotzen ondoan izan zuen hirugarren sailkatu Rakel Aperribai legazpiarra, baina ibilbideko bigarren zatian Gasteizko Arantzazu Perez de Arenazak baino ez zion bere erritmoari eutsi, eta minutu bateko aldeaz irabazi zion.

Argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Omenaldia Jesus Eskibeli

Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago Jesus Eskibel omendu zuten, irteera puntuan bertan. Antolatzaileek Eskoriatzako atleta beteranoak izandako ibilbidea saritu nahi izan zuen.

Korrikalari nekaezina, 77 urte hauetan Eskibelek asfaltoan, krosean edo mendian jarri izan ditu hankak lanean. Gainera, apustu-zale amorratua izan da, eta besteak beste, ordubete baino gutxiagoan eginda dauka Eskoriatzako plazatik Kurtzebarrira joan-etorria. Egun kirola egiten jarraitzen du.


Jesus Eskibel. | GOIENA

JOSEP MARIA PIJUAN | GIZONEZKO ONENA

"Oporretan banago ere, mendian korrika egiteak ez du nekatzen"

I.S.

Blancafort (katalunia) herriko Josep Maria Pijuanek erraz irabazi zuen Gabez Takarraran. Ez zuen aurreikusten oporretan lasterketarik egitea, baina Eskoriatzako proba gauez izateak erakarrita parte-hartzea erabaki zuen. Baita irabazi ere.

Zer moduz joan da lasterketa?

Oso ondo, izugarri gozatu dut. Ibilbideak malda handiak zituen, igoera gogorrak, baina zaleen etengabeko animuek gora egitera behartzen gintuen.

Oporretan egonda ere, lasterketetan parte hartzera.

Beno, mendian korrika ibiltzea ez da nekagarria, gustora egiten den zerbait da.

Zer moduz paraje hauetan?

Ibilbidea izugarri gustatu zait, Pirineoen antzekotasuna du eta bidean zehar jende asko zegoen animatzen. Ilunpetan, bidegurutze batera iritsi eta jendea azaltzen zen... Ez pentsa, sustoren bat edo beste ere hartu dut [Barre].

SILVIA TRIGUEROS | EMAKUMEZKO ONENA

"Fagor Ederlanek 50 urte bete ditu, eta garaipena eskaini nahi diot"

X.U.

Bizkaitarra izan arren, Debagoienarekin harreman estua du Silvia Triguerosek, Eskoriatzako Fagor Ederlango langilea baita.

Zer moduz?

Oso ondo. Ez nuen uste lasterketa irabaziko nuenik, aurten iraupen luzeko lasterketak egiten nabilelako, eta distantzian hau motzegia zelako niretako. Baina, ondo sentitu naiz.

Ezagutzen zenuen Gabez Takarraran?

Lasterketa ezagutzen nuen, baina iaz ezin izan nintzen etorri, asteburu berean beste lasterketa bat nuelako. Eta bi proba jarraian egitea... askotxo da.

Pena goialdean behe-laino itxia zegoela.

Bai, tarte batean ez zen ia ikusten. Lurrera ere erori naiz, baina orain ez dut minik... bihar ikusi egin beharko da. Garaipen hau Fagor Ederlan lantegiari eskaini nahi diot, urteurrena ospatzen dugulako.

bat lehenago iritsi zen helmugara 1:55eko denbora eginda. | IMANOL SORIANO

LASTERKETAKO AZKARRENAK

GIZONEZKOAK

1.	**Josep M. Pijuan**	1:55,05
2.	**Joseba Molinero**	2:00,33
3.	**Andoni Gomez**	2:04,58
4.	**Jon Iturbe**	2:05,55
5.	**Xabier Zabala**	2:07,48
6.	**Aritz Martin**	2:07,50
7.	**Lartaun Rodri.**	2:09,41
8.	**Iñaki Uribe-etxeb.**	2:09,59
9.	**Igor Lazkano**	2:10,33

EMAKUMEZKOAK

1.	**Silvia Trigueros**	2:23,15
2.	**Arantzazu Perez**	2:24,41
3.	**Rakel Aperribai**	2:29,28
4.	**Maite Zabaleta**	2:35:25
5.	**Isabel Sixto**	2:41:21
6.	**Larraitz Antxia**	2:43:28
7.	**Begoña Feijoo**	2:43:41
8.	**Marije Zubizarret.**	2:45:30
9.	**Rosa Lasagabast.**	2:47:29

Beteranoen arteko saskibaloi partiduko une bat. | IMANOL SORIANO

Eskoriatzako Kirol Elkartearen egun ederra

Erabat nekatuta, halaxe zegoen Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidente Javi Corval zapatu iluntzean, Gabez Takarraraneko podiuma hastear zela. Eta ez zen gutxiagorako, egunak luze jo zuelako: "Baina sekulako giroa izan dugu, eta ederto joan da dena. Orain arte Eskoriatzan egin diren hitzorduek eguraldiaz ez dute zorterik izan: Zapatisten astean, Txikirri-Txikirri mendi irteeran... eguraldia negargaria izan zen, eta guk oso giro ona izan dugu". Hala, goizean goiz hasi ziren klubeko ordezkariak lanean: "Txosna muntatu dugu goizeko lehen orduan, eta gero tortilla lehiaketa izan dugu; eguerdian motor-zalee girotu dute jaia".

Arratsaldean, kirol hitzordu mordoa

Arratsaldeko lehen orduan areto futboleko partiduak izan ziren, "Eta eurena zen ordutegi txarrena. Saskibaloira iritsi garenean, berriz, giro ederra egon da. Eta zer esanik ez Eskoriatzako alebinek Baskoniakoei irabazi dienean, sekulakoa izan da!".

SORALUCE SARIA

Esprint estuaren ondoren, Irene San Sebastian izan zen Osintxun azkarrena

Laugarren aldiz jokatu zen emakumeen proba zapatuan

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Esprintean. Halaxe erabaki zen zapatuan Soraluce Saria, aurreikuspen guztiak beteta. Izan ere, ibilbidearen ezaugarriak ikusita –malda handi gabekoa– jakinekoa zen gaitza izango zela norbaitek bakarrik ihes egitea. Hala, esprintean –elite mailan– Irene San Sebastianek irabazi zuen lasterketa.

Tolosar bat azkarrena

29 txirrindulari aritu ziren zapatuan elite mailan Soraluce Sarian, Osintxun. Irene San Sebastian tolosarra –Bizkaia-Durango taldea– azkarrena izan baldin bazen (2:23:52), elkarrekin esprintean iritsi zen Lointek taldeko Belen Lopezek bigarren postua eskuratu zuen. Talde bereko Ana Usabiaga bi minutura heldu zen mugara 3. postua lortuz (2:25:05). Taldekako sailkapenean, Lointek izan zen onena.

Gaztetxoak ere esprintean

Kadeteetan 37 neska lehiatu ziren; horiek ere esprintean iritsi ziren helmugara. Ondorioz denbora berdina egin zuten aurreneko hiru txirrindulariek (00:52:40). Sailkapenari begiratuta, ostera, lehenengoa Rustic Levante taldeko Empar Felix izan zen; Villa del Prado C.U taldeko Rocio del Al Garcia bigarren iritsi zen helmugara; eta Guttrans taldeko Gloria Alvarez hirugarren. Kategoria bereko talderik onena, berriz, Ivre-Rustic Levante izan zen.

Baina zapatuan, gainera, gazte mailako txirrindulariek ere hartu zuten parte; 29 izan ziren guztira. Eta kadete mailan gertatu bezalaxe, esprintean erabaki ziren lasterketako hiru azkarrenak: Guttrans tadeko Alicia Gonzalezek, Caf Transport taldeko Ziortza Isasik eta Gandia Capital del Turismoko Alba Teruelek denbora berdina egin zuten: 01:37:05. Taldekako 1.go postua, aldiz, Nicky´s Penya Ciclista taldearentzat izan zen.

Amaitzeko, Euskaldun Torneoko liderrek ere jantzi zuten mailota Osintxun: Naia Leonet Iruretak kadetetan, Lierni Lekuonak gazte mailan, Sheyla Gutierrezek 23 urte azpikoetan eta Belen Lopezek, elite mailan.

Esprintean irabazi zion San Sebastianek Lopezi. | IMANOL SORIANO



Elite mailako podiuma. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

IRENE SAN SEBASTIAN | IRABAZLEA

"Banekien esprintean sartuz gero zerbait polita egiteko aukera nuela"

Z.V.D.M.

Tolosarra da Irene San Sebastian, Bizkaia–Durango taldeko txirrindularia, hain zuzen ere. Zapatuan IV. Osintxuko emakumeen proban eliteko kategoriako irabazlea izan zen.

Nolako lasterketa izan dela esango zenuke?

Niretzako oso lasterketa egokia izan da gaurkoa. Gainera, torneo euskaldunean lasterketa bakarra izan da. Esprintean sartu ezkero zerbait polita egiteko aukera ikusten nuen, beti-beti taldearen alde eginez.

Eta horrela izan da.

Nahiago izan dut azkenera arte esprintera itxaron. Belen Lopezek noiz tira egin zain egon naiz, banekien eta goraka ondo zihoala, baina banekien nire aukera esprinta zela. Bera hobeto dabil, eta karta batera jokatu dut dena. Azkenean ongi atera zait apustua eta gustura amaitu dut lasterketa hau.

Eta orain zer?

Taldea Italiara doa orain, Girora, eta horri begira nabil. Niretzat bizikletan ibiltzea askatasun bat da. Emakumeen txirrindularitzatik ez dago bizitzerik eta ikasketetara dedikatzerakoan, udan aprobetxatu behar da lasterketetan aritzeko.

OLAKUAKO 28. SARIA

Julen Aranburu garaile tenperatura altuko lehiaketan

Atzoko lasterketa 97 ziklistek hasi eta 47k bakarrik amaitu zuten, erdiak baino gutxiagok

Z.V.D.M. | OÑATI

Kadete mailako ziklista gazteek beroak itota egin zituzten Olakuako Sariaren 58 kilometroak atzo. Eta hori igarri egin zen helmuga gurutzatu zuten ziklista kopuruan; izena eman zuten 97 txirrindularietatik 47k soilik amaitu zuten lasterketa, erdiak ere ez.

Kilometroek baino neke gehiago eragin zuten atzoko tenperaturek, zalantza barik.Oñatitik irtenda, Arrasate –Eroskiko biribilgunea–, Zubillaga zein Legazpitik pasa ondoren, Oñatin amaitu zuten ziklistek. Eta bide gehiena lautadan egin arren, Udanako mendateak lasterketaren erritmoa zertxobait apurtu zuen.

Helmugan azkarrenak

Tropela atzean utzita Jokin Aranburu izan zen helmugaratzen lehena, 01:30:07ko denborarekin. Ia minutuko aldea atera zion Aranburuk bigarren sailkatuari, Aratz Olaizola zarauztarrari, hain zuzen. Podiumeko hirugarren kutxara igo zena, aldiz, Oier Ibarguren izan zen.

Bestalde, mendiko saria Karlos Ruiz nafarrarentzat izan zen. Tarteko helmugarena, ostera, Jokin Aranbururentzat. Eta 28. Olakua Sarian talde onena Zarauztarra izan zen.

Oñatiarrak amaierara arte

Oñatiko lasterketan etxekoek ere lan txukuna eginda.Tartean, Aloña Mendiko Xabier Murgiondo bosgarren iritsi zen lasterketa amaierara.

Hamabigarren postua eskuratu zuen aldiz, Julen Umerezek; Xabier Aiastuik ere lortu zuen helmuga gurutzatzea, 17. postuan; eta Beñat Azkoagak 25. lekuan amaitu zuen Olakuako 28. Sari itogarria.

Tropela Arrasatera bidean. | JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko udal pilotalekuan egin zuten aikido erakusketa zapatu goizean. | IMANOL SORIANO

BORROKA ARTEA

Aikidoko irakasle onenen lezioak jaso dituzte Uarkapen

- Jose Manuel Matas arrasatearrak gonbidatuta etorri dira denak
- Aurreko ekitaldietan baino jende gehiagok hartu du parte

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Donostiatik, Gasteiztik eta Bilbotik etorritako maila altuko aikidoko irakasleak eta hango zein hemengo hainbat ikaslek hartu zuten parte zapatu goizean Arrasateko Uarkape udal pilotalekuan egin zuten aikido erakustaldian. Jose Manuel Matas aikidoko irakasle arrasatearrak gonbidatu zituen. "Pozik nago erakustaldiak izan duen erantzunarekin. Gero eta jende gehiagok ezagutzen du aikidoa, ari da zabaltzen, eta hori da, hain justu, guk gura duguna. Aurten San Juan jaietako egitarauaren barruan sartu dute gure erakustaldia, eta hori garrantzitsua da guretako, horrek esan gura duelako herrian hedatzen ari den ekitaldi bat dela", adierazi zuen Matasek erakustaldiaren bukaeran.

Mugimendu berriak

Hirugarren aldiz antolatu du Matasek aikido erakustaldia, eta pozik dago, aurrekoetan baino jende gehiagok parte hartu duelako. "Maila handiko irakasleak etorri dira eta eurekin batera ikasteko aukera izan dugu. Bakoitzak mugimendu bat azaldu digu", jarraitu du Matasek. Azalpenak entzun ostean, mugimenduak errepikatu dituzte parte-hartzaileek, bikoteka. Gehiagotan elkartzekotan gelditu dira.

Txikiek adi jarraitu zituzten nagusien azalpenak. | O.E.

PEDRO MIGUEL FRAILE
GASTEIZ

"Goiz polita izan da. Egon ginen azkenengo aldian baino jende gehiago elkartu gara eta horrek poztu nau. Ikusitakoa ikasten dute txikiek, azkar gainera".

ZIHORTZA RIOS
BILBO

"Aitak gomendatuta hasi nintzen, duela sei urte. Diziplina handia eskatzen du eta defentsarako oso baliagarria da; emakumeondako ere bai, jakina".

AMAIA BEZHOLD
BILBO

"Duela 20 urte hasi nintzen eta ikaragarri gustatzen zait, adinean aurrera egin ahala, mugimendu eta teknika ezberdinak egiten dituzulako; etengabe ikasten da".

ANDER CRESPO
DONOSTIA

"Batez ere ikasi egin dut gaur goizean Arrasaten. Jende ezberdinarekin praktikatzeko aukera izan dut, eta modu horretan beti ikasten da".

IBON KORTABARRIA ETA UNAI UNTZALU
ARAMAIO-ARRASATE

"Gure lagunak hasi ziren Aikido egiten eta gustatu egin zitzaigun. Pozik ibili gara gaur ere. Arropa bereziarekin egiten dugu, ez txandalarekin".

Ikasturteari agur esateko gimnasia erakustaldia

Domeka eguerdian gimnasta mordoa batu ziren Oñatiko kiroldegian –tartean Debagoieneko klubetakoak– ikasturteari behar den moduko agurra emateko, eta urtean zehar hainbatetan landutako ariketak etxekoen eta lagunen aurrean erakutsi ahal izan zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

SKATE-A

Aurrekoetan baino maila handiagoa erakutsi dute Patxi Matxin skate jaialdian

- Gasteiz eta Durangotik ere etorri dira parte hartzera
- Arraska taldea pozik dago egondako erantzunarekin

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Patineteak, musika eta grafitiak. Osagarri guztiak zituen zapatu arratsaldean Arrasateko Musakola kiroldegian egin zuten Patxi Matxin skate jaialdiak. Jaialdiak sariak zituen jokoan; epaimahaikideek adi jarraitzen eta puntuatzen zituzten parte-hartzaileen saltoak eta patinete gainean egiten zituzten trukuak. "Proben zailtasuna, saltoen ikusgarritasuna eta parte-hartzaileen estiloa. Horixe da kontuan hartzen dugun gure iritzia, puntuazioa ematen", azaldu du jaialdiko antolatzaileetako batek, Arrasateko Arraska skate taldeko kide den Jon Ander Rodriguezek.

Hiru probako jaialdia

Arrasatekoak ez ezik, Debagoieneko beste herri batzuetatik, Gasteiztik eta Durangotik etorritako 20 gaztek hartu zuten parte; neska bakarra tartean.

Hiru probako jaialdia antolatu zuten Arraska taldekoek, eta parte-hartzaileek denbora mugatua izan zuten proba bakoitzean ahal zuten ariketa ikusgarrienak egiteko. Lehen froga librea izan zen, bakoitzak gura zuena egiteko. Bigarren proban, *kill da sport* delakoan, truku edo abilezia onenak erakutsi behar zituzten skate parkeko hiru gune ezberdinetan. Hirugarrena, berriz, teknika, estiloa, erakusteko proba izan zen, zoru lauan gaindu beharrekoa.

Egun osoko skate jaialdia egin zuten zapatuan, goizean erakustaldiarekin eta arratsaldean, txapelketarekin.

Gazte bat patinete gainean . | IMANOL SORIANO

Musakolako eremua zabaltzearen alde

San Juan jaien egitarauan ohikoa den Patxi Matxin skate jaialdia antolatu du beste urtebetez Arrasateko Arraska skate taldeak. Eta gustura daude erakustaldiak izan duen harrerarekin. "Bertakoak ez ezik, kanpokoak ere etorri dira eta pozik gaude, bai. Gainera, aurreko urteetan baino maila altuagoa ikusi dugu, eta horrek ere asko poztu gaitu", adierazi du Arraska taldeko Jon Ander Rodriguezek.

Patxi Matxin jaialdia ez ezik, bestelako ekitaldiak ere antolatu ohi izan dituzte Arraskako kideak, skate ikastaroak, adibidez, baina azkenaldian motelago dabiltzala onartu du Rodriguezek. "Gure asmoa, baina, bada gauza gehiago antolatzea. Bestalde, Musakolako skate eremu hau jende gehiagok erabiltzea ere gurako genuke, eremua zabaltzea, patinete gainean ibili gura dutenek instalazioa aprobetxatu dezaten, gunea zabalik utzi skate egitera hona ere etor daitezen", adierazi du Rodriguezek.

Arrasateko Arraska skate taldeko kideak Musakolan zapatu arratsaldean . | O.E.

SASKIBALOIA

Aloña Mendik hilabete du EBAn taldea aterako duen erabakitzeko

Talde oñatiarrak zuzendaritza aldatzeko prozesua abiarazi du

X.U. | OÑATI

Aloña Mendiko saskibaloi sailak egubakoitzean egin zuen batzarra, eta orain arteko zuzendaritza taldeak erreleboa hartuko du –baliteke norbaitek jarraitzea. Hala, hurrengo pausoa izango da zuzendaritza berria nork osatuko duen erabakitzea. Kluba, baina, hausnarketa prozesuan murgilduta dago, EBAn jarraituko duten edo ez erabakitzeko hilabete baino ez dute.

Ander Gartzia, lehen bostekoan

Natra Oñatik talde moduan denboraldi ederra egin du, eta igoera fasera sailkatu izanak erakusten du hori. Maila indibidualean, baina, Ander Gartzia jokalari bergararrak aparteko errekonozimendua jaso du. Bergarako hegaleko jokalariak denboraldiko jokalari onenaren (MVP) izendapena jaso zuen eta orain, urteko bosteko onenean sartu dute. Hala, Ander Garciarekin batera, Arturo Cruz, Aitor De Miguel, Txomin Lopez eta Sergio De la Fuentek osatu dute ligako bostekorik onena.

Ander Gartzia ligako bostekoan sartu dute. | GOIENA

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik merezitako harrera izango du eguenean

X.U. | ARRASATE

Ligan Euskadiko Txapelketa irabazi eta igoera fasean Maila Nazionalera igota aparteko denboraldia egin du Ford Mugarri Arrasate Taldeak.

Klubak beste talde batzuen partetik errekonozimendua jaso du, eta Mondra futbol taldeak, esaterako, detaile polita izan zuen ligako azken partiduan jokalariei oroigarria emanez. Arrasateko eskubaloi taldeak, baina, Udalaren eta herritarren partetik ere errekonozimendua merezi zuen, eta eguenean, hilak 20, jasoko dute errekonozimendu hori. Hala, San Juanak gainean daudela aprobetxatuta, udaleko ordezkariek osoko bilkuren aretoan hartuko dituzte, 18:30ean.

FUTBOLA

Aitor Oruetak Alavesera egin du jauzi, Aloña Mendi utzita

X.U. | OÑATI

Azken urteotan Aloña Mendi futbol klubean koordinatzaile eta entrenatzaile lanetan ibili ostean, Aitor Oruetak beste pauso bat egingo du datorren denboraldian, Alaves talde gasteiztarrak fitxatu du-eta.

Hala, klubean hutsune handia utziko badu ere, Oñatiko taldeko zuzendaritzak positiboki hartu du Orueta-ren erabakia, kirol ibilbidean talde profesional batera salto egiteko aukera ederra dela ulertuta. Azpimarratzekoa da, koordinatzaile lanetan jarduteaz batera, lehenengo taldeak aulkian hutsunea izan duen bakoitzean Oruetak hartu duela ardura. Alavesen kadeteen ardura izango du.

Bergarako pilotariak, egubakoitz iluntzean jokatutako finalen ostean, talde argazkian. | IÑIGO ZAITEGI

UDABERRI TORNEOA

Udaberri txapelketako zazpi finalek badituzte irabazleak

- Eskuz binako eta palako finalak jokatu zituzten Bergaran
- Beñat Rezustak amateur mailako azken txapela jantzi du Mallabin

DATUA

3252

ZOZKETA ZENBAKIA

Irailera arte itxarongo dute zozketako irabazleari 500 euroak emateko.

XABIER URTZELAI | BERGARA

Beñat Rezustak garaipen batekin esan dio agur afizionatu mailari, datorren hilaren 24an profesional izatera pasako da-eta. Egubakoitzean Mallabin jokatu zuen Biharko Izarren finala –izen aproposagorik ezin zuen izan torneoak– eta bergararrak eta Urbietak 22 eta 11 irabazi zioten Jakari eta Galartzari –Jaka ere profesionaletara pasako da aurki. Reyes Azkoitiak onartu moduan, egubakoitzekoa ez zen aspaldian Rezustak egin duen partidurik onena, baina bertsio onena erakutsi barik ere nahikoa izan zen atzealdean nagusitu eta kontrarioei erraz irabazteko.

Hala, garaipen horrekin agurtuko du Beñat Rezustak amateur maila, eta hurrengo hitzordua Eibarren izango du, ekainaren 24an. Orduan bai, Aspe kirol enpresaren elastikoa jantzita jokatuko du.

Udaberrikoak, erabakita

Egubakoitzean pilota giro ederra izan zen Udal pilotalekuan, txikienen eskutik Udaberriko finalak jokatu zituzten-eta.

17:00etan hasita, benjamin eta alebin mailako finalak jokatu zituzten, eta partidu oso lehiatuak izan ziren guztiak, irabazleek oso tarte txikiagatik lortu zutelako garaipena. Hala, eskuz binakako partiduetan Losada eta Conde, Larrañaga eta Arriola, Pereira eta Gil, Gutierrez eta Peñin, Arriola eta Zabaltza eta Gallastegi eta Moral bikoteak gailendu ziren.

Horrekin batera, palako emakumezkoen finalean Agirrezabal eta Murgizuk Arenazaren eta Arietaleanizbeaskoa kontra neurtu zituzten indarrak (18-14).

Zozketekin bueltaka

Hilabeteko pasa bada ere, Bergarako Pilota Sailak egindako zozketako saridunak oraindik ez dira azaldu. Lehenengo zozketaren irabazleak (3252) Buruz Buruko Txapelketako finala ikusteko bi sarrera eta 500 euro irabazi behar zituen, baina inor azaldu ez denez, finalerako txartelak eguakoitzean zozketatu zituzten ostera. Eta, Xabi Lazkanok irabazi zituen sarrerok. Lehenengo sariko 500 euroak emateko, baina, irailera arte itxarongo dute, eta irabazlea azaltzen ez bada, dirua pilota eskola sustatzeko erabiliko dute. Jakin, baina, 4627 dela bigarren sariaren irabazlea (Kantabriako hotel baten asteburua), eta hura ere ez dela azaldu.

TORNEO ESKOLARRA ETA SAN JUANETAKO FINALAK

ARRASATE PILOTA TALDEA

Eskola Arteko finalak Oñatin; Zaldibarren San Juanetakoak

Ibarreko gaztetxoak batera eta bestera dabiltza, pilota hitzordu mordoa dituzte-eta. Hala, Gipuzkoako ordezkari mordoa batu ziren joan den astean Oñatin, Eskola Arteko Finaletan (ezkerrean). Eskumako argazkian, egubakoitzean pilota giro ederra izan zen Zaldibarko pilotalekuan, San Juanetako alebinen finaletan.

XABIER URZELAI

Guraso batzorde bat sortu dute Mungian euskararen erabilera areagotzeko

Baliabideak eta tresnak jasotzen dituen hiru urterako plangintza osatu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Euskaldunek euskaldunen artean erdaraz egitea normal eta arrunt bilakatu izana kezka-iturri da Mungiako Larramendi ikastolako hainbat gurasorendako, eta batzorde bat sortu dute. Hik Hasi aldizkarian irakurri dugu albistea. Zure herrian ere euskara klase barruko tresna bihurtu da? Ohartu zara, gainera, gero eta gazteago aldatzen dutela hizkuntza umeek?... Kezka hori buruan hiru urterako plangintza osatu dute Mungian Iñaki Eizmendi gizarte hezitzailearen gidaritzapean. "Seme-alabengan eragin nahi bagenuen, gurasoen jarreretatik eta ikuspegietatik hasi behar genuen lanean, eta hala hasi ginen", kontatu dute Mungiatik. "Uste dugu gurasoak direla eredu eman behar dutenak, transmisiorako lehenengo urratsa hortik hasten da, etxetik".

Haurrak jolasean. | GOIENA

Hiru urterako plangintza

Lehenengo eta behin egoeraren diagnosia egin dute Mungian: galdera-sorta banatu dute ikastolako gurasoen ohiturak eta jarrerak zeintzuk diren ezagutzeko.

Diagnosia egin ondoren guraso euskaldunekin hasi dira lanean. Zergatik jotzen dute erdarara? Kontraesanak agerian jarri, begiak zabaldu eta koherentzia ariketa bat egitera gonbidatu dituzte guraso horiek.

Esan bezala, hiru urterako plangintza osatu dute Mungian Iñaki Eizmendiren gidaritzapean. Baliabideak eta tresnak eskaintzen dira plangintza horretan, eta lehenengo pausoa izango da ikastetxeko Haur Hezkuntzako gurasoekin lanean hastea. Hurrengo urratsa guraso erdaldunen euskararekiko jarreran eragitea izango da.

Seme-alaben arteko liskarrak: botere-borroka txikiak egunero

Ez dugu obsesionatu behar, eta erakutsi behar diegu euren arazoak euren kabuz konpontzen

L.Z. | ARRASATE

Sara Tarres psikologoari irakurri diogu, asteon, seme-alaben arteko liskarrak gauza normala eta ohikoa direla. Estatistika batzuek jasotzen dute egunean lauzpabost liskar izatea normala dela, gehienbat txikiak edo nerabeak direnean, eta gehiago, euren arteko adin tartea txikia bada.

Deserosoa da seme-alabak liskarrean ikustea, baina ez dugu obsesionatu behar. Eman aukera arazoa euren artean konpontzeko: noski, arrisku egoerarik gertatzen ez den heinean. "Liskar txikiek nortasuna sendotzen laguntzen dute eta negoziazioan eta arazoak konpontzeko baliabideak aurkitzen laguntzen dute. Gurasoon egitekoa da seme-alabei elkar errespetatzen eta maitatzen erakustea. Gidari lanak egin behar ditugu, eta eredu ona izan umeendako", dio psikologoak.

Baina zergatik haserretzen dira hainbeste aldiz? Arrazoi asko egon daitezkeela dio Tarresek, baina, orokorrean, botere-borroka txikiak izan ohi direla. "Jarrera ezegokiak dira, eta argi izan behar dugu hori. Entzungor egingo dugu liskarra txikia bada, baina elkarbizitza arauak zeintzuk diren argi izan behar dugu uneoro, eta horiek defendatuko ditugu guraso garen aldetik. Hala, esku hartuko dugu beharrezkoa bada.

Kontuz, beste alde batetik neurriz kanpoko erreakzioekin: gogoratu gure funtzioa ez dela beti polizia edo ikertzaile lanetan ibiltzea erruduna nor den argitzeko".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Jarduera fisikoa, uda sasoiari begira

Pasa dugun negu luzearen ostean, hasiak gara luzaroan ezkutatuta egon den eguzkia ikusten. Udaberriko eguraldiak, tenperatura igoerak eta eguna luzeagoa izateak neguan praktikatu ez ditugun beste kirol batzuk praktikatzeko aukera ematen digute, eta Arizmendi Ikastolako Tafydeko irakasle taldeak hainbat gomendio egin ditu gaiaren inguruan.

Garai hau askorendako buruhauste garaia izaten da, kilo batzuk soberan izan ohi ditugulako. Beti entzun izan dugu soberan dauden kilo horiek kentzeko elikadura zaindu eta jarduera fisikoa egin behar dela, baina batzuetan zaila egiten da kirol edo jarduera fisiko egokia aukeratzea. Gorputza sasoitsu izatea ez da bi astean lortzen, ez eta hilabete bakar batean ere; ohitura berriak barneratzearekin etortzen da.

Astean hiruzpalau saioko kirol jarduera egin beharko dugu, eta argi eduki behar dugu formula magikorik ez dagoela; azkar galtzen diren kiloak azkar berreskuratzen dira. Gainera, gure helburu nagusiak izan behar du gorputza osasuntsu mantentzea. Beraz, kontuz iragarkietan saldu nahi dizkiguten argaltzeko metodoekin.

Aukera berriak udan

Bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko kirola edo jarduera fisikoa urte osoan zehar egin behar da. Uda iristearekin bat, ordea, aukera berriak zabaltzen zaizkigu eta une bikaina da gure osasun ohiturak hobetzeko.

Gaur, instalazio estalietatik kanpo egin daitezkeen jarduerei emango diegu tartea. Ea zuen gustuko jarduera aurkitzen duzuen eta, pixkanaka, bizimodu osasuntsurantz hurbil gaitezkeen.

Ibilaldiak edo irteerak oso gomendagarriak dira; aproposak, batez ere, mendia oso gogorra egiten zaienendako. Debagoienean aparteko parajeak ditugu, eta maldarik ez duten ibilbideak baditugu aukeran, besteak beste, Urkuluko urtegian. Erritmoa norberak jartzen du, eta ibilbidea oinez edo korrika egin dezakegu.

Bizikletan ibiltzea da beste aukeretako bat. Garai aparta da honakoa bizikleta hartu eta mendi buelta bat egiteko. Hasiberriendako ere badaude aldaparik gabeko ibilbideak; esaterako, bidegorriak.

Itsasoa gustuko duzuenondako, azkenik, uretako jarduerak nabarmenduko ditugu. Ura oraindik oso hotza egongo da; beraz, neoprenoa erabiltzea aholkatzen dugu. Surfa, urpekaritza eta piraguismoa praktika oso interesgarriak dira. Beste aukera bat igerilekuak dira.

Astean hiruzpalau saio egin behar dira osasuntsu egoteko

Gazte taldea bizikletaz mendi buelta egiten. | ARIZMENDI IKASTOLA

Bizimodu aktiboa mantentzen saiatu

Luzaroan kirolik egin gabe egon bazara, poliki hasi, gorputza jarduera berrira egokitzeko. Aldez aurretik erabaki asteko zein egun eta ordutan egingo duzun kirola, eta lagun batekin joaten bazara, hobeto. Guztion beharrak asetzeko adina kirol-praktika dauzkagu: aukera ezberdinak probatzen badituzu, zure beharretara egokitzen den jarduera aurkituko duzu; ez etsi! Bizimodu aktiboa mantendu eta, ahal izanez gero, oinez edo bizikletaz egin eguneroko joan-etorriak. Azkenik, gogoratu beharra dago edozein jarduera fisiko egin aurretik garrantzitsua dela osasun azterketa egitea.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

arizmendi ikastola PRO

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Ia udako gau luze baterako, doinu gogorrak eta ska alaia Olakuan

▸ Hiru talde ibili ziren agertoki gainean: Herstura eta RO oñatiarrak eta Vendetta

▸ Talde nafarrak ikusle asko erakarri zituen, batez ere nerabeak

FITXA

MUSIKA

HERSTURA, RO ETA VENDETTA

Generoa: Posthardcorea, rock gogorra eta ska.

Non: Olakuako plazatxoa (Oñati).

Eguna: Egubakoitza, ekainak 14

Iraupena: Lau ordu

TXOMIN MADINA | OÑATI

Oñatiko Olakua auzoa jaietan egon da asteburuan. Egubakoitza izan zen jaietako lehen eguna, eta hasiera indartsua emateko, hiru taldez osatutako kontzertu sorta prestatu zuten antolatzaileek: bi herrikoak bertakoak, Herstura eta RO, eta hirugarrena azkenaldian oso ezaguna egin den Vendetta talde nafarra. Azken hauek ikusmin handia piztu zuten, batez ere nerabeen artean.

Vendettakoek dantzan jarri zuten Olakuako plazatxoa. | IMANOL SORIANO

Hasteko, oñatiarrak

Iragarritakoa baino ordu erdi beranduago, Hersturak eman zion hasiera kontzertu sortari. Ez da ardura makala oraindik ere hotz samar dagoen publikoaren aurrera irtetea; baina laukoteak, urtetan elkarrekin jotzeak dakarren esperientziarekin, apurka giroan sartu zituen entzuleak. Ohituta ez dagoenarentzat doinu gogorrak, bortitzak lantzen dituzte, baina euren emanaldiak iraun zuen hiru ordu laurdenetan argi utzi zuten egiten dutena ondo menperatzen dutela, eta badakitela zaleak gustura nola utzi.

Iraupen antzerakoa izan zuen gaueko bigarren taldearen emanaldiak, RO hirukotearenak, hain zuzen ere. Talde moduan lehen kontzertua zuten atzokoa, eta akaso horregatik, baina hasieran apur bat kosta zitzaien puntua aurkitzea. Baina taldekideek badute eskarmentua oholtza gainean (kideetako bi, Harriet Aiala eta Unai Lete Asfiksia taldean ibilitakoak dira) eta minutuek aurrera egin ahala, erosoago ari zirela nabari zen. Euren abestiak jo zituzten; baita bertsiorik ere, esaterako, Social Distortion taldearen *Untitled* kantua.

Vendettaren ordua

Ordubatak inguruan hasi zen gaueko izarren, Vendetta nafarren kontzertua. Ordurako jende asko zegoen batuta Olakuako plazatxoan: adinari dagokionez denetarik zegoen arren, gaztetxoak ziren nagusi. Nafarren ska doinuak oso ezagunak egin dira azkenaldian, besteak beste irratietan izandako presentziari esker, eta publikoari nahi zuena eskaini zioten: kantu martxosoak, itsaskorrak, entzun eta berehala geratzen diren horietakoak. Ska da Vendettaren zigilua, baina rock erritmoek eta reaggeak ere izan zuten euren tokia *Fuimos, somos y seremos Tour* biraren barruan egubakoitzean eman zuten kontzertuan.

Taldearen beraren ibilbidea ez da oso luzea; taldekideena ostera, bai (Skalariaken aritutako kideak daude Vendettan), eta eskarmentua badutela erakutsi zuten Oñatin. Eskarmentua bakarrik ez, baita ikusleei giro ona transmititzeko musikariek euren artean izan behar duten harreman ona ere. Zentzu horretan, Pello Reparazek (tronboia eta ahotsa), Ruben Antonek (tronpeta eta atezko ahotsak), Javier Etxeberriak (gitarra eta ahotsak), Luisillo Kalandrakak (baxua eta ahotsa) eta Enriko Rubiñosek (bateria eta perkusioa), ederki moldatzen direla erakutsi zuten.

Euskara eta gaztelera tartekatuz, taldea ezagun egin duten *Buonasera*, Hertzainaken *Egunero*, *Udarako gau luzeak* eta bi setan jotako *Begitara begira* bezalako abestiek dantzan, kantuan eta saltoka jarri zituzten ikusleak. Deigarria eta dibertigarria izan zen baita ere *The Monsters* telesailaren sintoniaren bertsioa, Pulp Fiction pelikulan agertzen den Dick Dalen *Misirlou* ezagunaren notekin zipriztindutakoa. Erritmo ezberdinekin jolastea gustatzen zaiela argi utzi zuten, batukada ere jo zuten-eta.

Ia ordu eta erdi egin zuten nafarrek agertokian; mendeku ederra, gustura hartzen diren horietakoa.

Gaztetxoak izan ziren Vendettaren kontzertuaz gehien gozatu zutenak. | I.S.

Herstura taldeak ireki zuen gaua. | IMANOL SORIANO


RO taldeko Harriet Aiala. | I.S.

Peter Pan musikalean parte hartu dutenak zapatuan Bilboko Itsas Museoan, gaueko emanaldiak hasi aurretik . | AGUSTIN SAGASTI

Bilbon ere, arrakastaren bidetik jarraitu zuen *Peter Pan*-en hegaldiak

'Gau zuria' ekimenaren barruan eskaini zuten bergararren musikala

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Gau zuria ekimena egin dute asteburuan Bilbon, eta bertan egon da Debagoieneko ordezkaririk, Bergarako Musika Eskolakoek Peter Pan musikalaren moldaketa berezia egin dute-eta. Zapatuan izan zen emanaldia, eta berezitasuna izan zen ikuskizun osoa eman beharrean, sei pasarte antzeztu zituztela, bakoitza Bilboko Itsas Museoaren gune baten.

Datuek bakarrik berba egiten dute: antolatzaileek 1.500 ikusle aurreikusten zituzten zapatuko emanaldian. Ikuskizuna hasteko ordua heldu zenean, baina, dagoeneko mila inguru ziren ilaran itxaroten zebiltzanak, eta ondorioz, ikusle muga zabaldu behar izan zuten. Azkenean 2.000 izan ziren musikala ikusi zutenak; arrakasta handia, zalantza barik.

Zazpigarren gunea

Ikusleak txandaka sartzen ziren Museoan, ordu laurdenero talde bat. Txanda bakoitzak 50 minutu inguru behar izaten zuten sei guneetatik pasatzeko. Sei gune ofizial, izan ere zazpigarren bat ere antolatu zuten: Museoaren kanpoko itxaroteko ilara. Zortedun ibili zirenek gutxienez hiru ordu laurden itxaron behar izan zutela ikusita (egon zen ordu eta erdi itxaron behar izan zuenik ere) entretenitzeko piratak protagonista izan zituen pasarte txiki bat antzeztu zuten hamabi bat aldiz. Horrekin lotuta egon zen anekdotarik gainera: piraten papera egiten zutenei behin eta berriz eskatzen zieten eurekin argazkiak ateratzeko.

Ia lau ordu antzezten

20:30ean hasi ziren emanaldiak, eta azken txanda gauerdia pasata amaitu zen. Musikalarekin Bilbora joan ziren ehun partaideek baina, egun osoko lana izan zuten: goizean eta arratsaldean entseguak izan zituzten. Merezi izan zuen lanak, Valen Moñux musikalaren zuzendari artistikoa gustura zegoen eta antzezle eta abeslariek egindako lanarekin. Debagoienetik kanpoko ibilbidearen lehen geralekuan beraz, arrakasta ezagutu du Bergarako Peter Panek.

GOIENA

VALEN MOÑUX
ZUZENDARI ARTISTIKOA

"Koordinazioa oso zaila zen eta harrituta geunden dena ondo zihoalako"

Peter Pan-en zuzendari artistikoa pozik zegoen emanaldiaren ostean.

Nola bizi izan zenuten zapatuko emanaldia?

Oso gustura gaude. Esperientzia zeharo ezberdina izan da: bakoitza bere gelan, bere emanaldia egiten... Koordinazioa oso zaila zen, eta harrituta geunden dena ondo zihoalako. Zailtasuna zenbaterainokoa zen ikusteko, erregidore lanetan hamabost pertsona ibili ginen, denok sinkronizatutako erloju digitalekin; bestela, minutu bateko aldearekin, sekulako arazoa izango litzateke. Hori ere oso ondo irten zen. jendea gustura ikusi genuen, baita antolatzaileak ere.

Neska-mutikoak eroso ikusi dituzue formatu honetan?

Bai. Nekatzen duen formatua dela frogatu ahal izan dugu: ia lau ordu iraun zituen ikuskizunak, baina goizean eta arratsaldean ere egin genituen entseguak. Baina gaztetxoek sekulako energia erakutsi zuten eta une baten ere ez zuten erritmoa jaitsi.

Beste bi irteera geratzen zaizkizue.

Uztailaren 7an Elorrion egingo dugu, eta berezitasuna da emanaldia kanpoan egingo dugula. Urriaren 26an aldiz, Donostiako, Kursaalean egongo gara.

Lagunek omenaldi beroa egin zioten Miguel Okina margolari bergararrari

Aroztegin egin zuten omenaldia, eta aretoa jendez lepo bete zen

TXOMIN MADINA | BERGARA

"Derrigorrezkoa zen omenaldi hau; Bergarak zerbait zor dio oraindik Miguel Okinari, herriari asko eman dio-eta" zioen Juan Luis Bikuñak margolari bergararrari zapatuan egindako omenaldiaren arrazoiak azaltzerakoan. Eta antza denez, herritar ugari ziren iritzi berekoak, ekitaldirako aukeratu zuten Aroztegi aretoan jendez lepo bete zen-eta.

Miguel Okinaren lagunek antolatutako omenaldia Bikuñak berak egindako hitzaldiarekin hasi zuten. Miguel artista eta Miguel pertsona biak omendu gura zituztela azaldu zuen Bikuñak, eta bere ibilbidearen errepasoa egin zuen: hastapenak, Parisen igarotako denbora, Bergararekiko duen maitasuna...

Algara bat baino gehiago eragin zituen hitzaldiaren ostean, hainbat oroigarri eman zizkioten Okinari: Bearteko presidente Juanjo Altunak eskultura bat eman zion; eta Susana Izak, lagunen izenean, makila dotorea. Izak gainera, bertso sorta ederra eta hunkigarria abestu zion Okinari.

Omendua, 'harrituta'

"Harrituta geratu naiz, onegia izan da: zeruan jarri naute", adierazi zuen artista omenduak ekitaldiaren ostean, lagun, herrikide eta ikasleak agurtzen zituen bitartean. "Margotzea nire bizimodua izan da, eta gustura: zaletasunetik bizi izan naiz, eta hori gauza handia da", gaineratu zuen.

Omenaldia baina, ez zen amaitu Aroztegiko ekitaldiarekin; izan ere honen ostean 70 lagun inguruk bazkaria egin zuten Batzokiko jatetxean.

Bearteko Juanjo Altuna Okinari oroigarria ematen. | IMANOL SORIANO

Angiolilloren liburua antzerki eta guzti aurkeztu zuten gaztetxean

Koldo Izagirre idazlea ere izan zen aurkezpenean eta hiru poema irakurri zituen

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

"Bertigo" apur batekin baina "gogoz" aurkeztu zuen egubakoitz arratsaldean Aitor Arantzabalek Michelle Angiolilloren liburua, Bergarako gaztetxean. "Jende askok hartu du parte proiektu honetan eta lan polita egin dugulakoan gaude", esan zigun aurkezpena hasi baino pixka bat lehenago.

Liburuaren aurkezpena

Aitor Arantzabalek Angiolilloren gaineko liburua idatzi zuen espetxean egon zen denboran eta egubakoitzean egin zuten azkenean lanaren aurkezpena. "Pozik nago bereziki guztiok egin dugulako. Ni ez naiz idazlea eta seguru akats asko aurkituko dituzuela liburuan, historialaria ere ez naiz baina lan xume bat egin dugu eta egia esan gustura geratu gara emaitzarekin", horixe kontatu zigun Arantzabalek liburua aurkeztera zihoanean.

Liburua Gasteizen inprimatu ostean, gaztetxean auzolanean muntatu zutela kontatu zuen Arantzabalek eta hauek izan ziren batez ere hori egitearen bi helburuak, bere esanetan: bata, gastuak murriztea; eta bestea, proiektuan jende gehiago inplikatzea eta "norbera ere partaide dela sentiaraztea".

Koldo Izagirre idazlea, aurkezpenean poemak irakurtzen. | IMANOL SORIANO

Aurkezpenean Angiolillo liburutegitik antzerki moduko bat egin zuten Angiolilloren heriotza nolakoa izan zen erakusteko eta une horretan isiltasuna nagusitu zen Bergarako gaztetxean.

Koldo Izagirre idazlea ere bertan izan zen eta exekuzioari buruzko hiru poema irakurri zituen jendaurrean. Horren ostean, Fly Shit taldeak girotu zuen aurkezpena. Bertaratutakoak gustura izan ziren Angiolillo liburuaren aurkezpenean.

Liburuaren harrera "ona"

Arantzabalek kontatu zuen lehenengo edizioan liburuaren 260 ale atera dituztela, "beldur" pixka batekin gainera, izan ere, ez zekiten jendearen erantzuna nolakoa izango zen. Hala ere, Arantzabal oso pozik dago liburua izaten ari den harrerarekin: "Harrera ona izan du liburuak eta dagoeneko oso gutxi gelditzen dira. Neure sorpresarako, ingurukoek esan didate izugarri gustatu zaiela".

Angiolilloren heriotza irudikatu zuten antzerki bidez, aurkezpenean. | I.S.


JOSETXO ARANTZABAL

Domeka melodikoa Elgetan

Domeka eguerdi musikala eduki zuten Elgetan. Izan ere, ikasturtea amaitu dela-eta, festa egin zuten Elgetako musika ikasle, irakasle eta gurasoek Espaloian. Gitarra akordeak entzun ziren kafe antzokian, baita piano teklen doinuak ere eta urtean zehar barneratutako jakintzak partekatu zituzten modu horretan ikus-entzuleekin ikasleek. Musikaz gain, dantza egin zuenik ere egon zen.

Arte galeria kutsua hartu zuen Seber Altube plazak

Egubakoitzean Kulturateko pintura ikastaroko ikasleek euren lanak kalera atera zituzten

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Artea kalera ateratzea, ikasgelan egindakoa herritarren eskura ipiniz. Hala izan zen egubakoitzean, Arrasateko pintura ikastaroan diharduten 32 ikasleren lanak –50 inguru– Seber Altubera atera zituzten eta. Ikasturtea amaitu dela eta herritarrei ikasitakoa helarazteko modu polita.

Plaza arte galeria bilakatu zuten Kulturaten pintura ikasten duten gizon eta emakumeek, eta bertatik igaro ziren herritar askok geldialdia egin zuten koadroekin disfrutatzeko. Izan ere, ez dira egunero aurkitzen herriko artista amateurren obrak arratsalde goxo batetan kaletik paseatzen ari zarela.

Picasso gogoan

Adin ezberdinetako artistak, hasi berriak eta margotzen zenbait urte daramatzatenak; estilo anitzeko lanen egileak, gainera. Bodegoiak, baserri, kosta zein hiri paisaiak, ezinezko koloreak, irudi bukolikoak... Eta ezusteko bezala, Picassoren 'Gernika'. Azken hori, gainera, ikasle guztien artean sortutako lana.

XX. mendeko koadro famatuetariko bat hartu eta euren ukitua emanez lau metro inguruko lan koloretsua sortu dute, modu horretan, 32 margolarik.

Bakoitzak bere ekarpena eginez eta zertzeladaz zertzelada eta kolorez kolore, Gernikako bonbardaketaren gordintasuna agerian utzi dute, modu berezi eta bakar batetan.

Seber Altuben ipini zuten pintura ikasleek erakusketa. | Z.V.D.M.

GURE MUSIKA TALDEAK

Los Galerna, estudioan, hirugarren diskoa grabatzen

Arrasatearrak Beasaingo Pottoko estudioan daude

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Duela hiru asteburu hasi zen hirugarren diskoa izango dena estudioan grabatzen Arrasateko boskote maskaraduna. Oraingoan, Guadalajara aldera joan beharrean, Beasaingo Pottoko estudioetara jo eta Fredi Pelaez teknikariaren aginduetara jarrita.

Taldekideen esanetan, bi arrazoirengatik aukeratu dute, nagusiki, Beasaingo estudioa: lehena, denok batera grabatzeko aukera eskaintzen zuelako; eta bigarrena, Pelaez teknikariak soul eta jazz musika grabatzen aditua delako. Pelaez musika instrumentala grabatzera ohituta dago eta hori erabakigarria izan da Arrasateko taldearendako.

Galernako taldekideak Pottoko estudioan. | ANDER MONEDERO

Esperientzia aberasgarria

Esperientzia moduan oso aberasgarria izan dela diote taldekideek. Orain arte diskoak Jon Rodrigez aretxabaletarrarekin grabatu dituzte, eta elkar-ulertzea erabatekoa zen.

Oraingoan, baina, estudio profesionalago batera jo dute, horrek dakarren beldur puntuarekin, baina Pelaezekin harremana oso naturala izan da hasieratik eta grabazioa aurrera eramaten lagundu diela aitortu digute. Momentu batzuetan ekoizle eta aholkulari lanak ere egin ditu.

'Akelarre'

Disko berriaren izena *Akelarre* izango da eta hamar kantu berri izango ditu. Azken lan horretan, saxofoiak protagonismo handiagoa izango du eta swing estiloko kantuak entzungai egongo dira betiko surf, western edo garage doinuekin batera. Grabazioa hiru egunean amaitu zuten eta orain nahasketekin dabiltza lanean.

ESANAK

"10 kantuz osaturiko diskoa izango da 'Akelarre"

AITOR MORENO | BAXU-JOTZAILEA

Lan berria Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratuko dute eta abuzturako esku artean izatea espero dute. Helburua hori da, abuztuan Mexiko aldera joango dira-eta zortzi kontzertu eskaintzera Mexiko Hirian eta Txiapas inguruan.

Oraindik bira lotzeko azken xehetasunak falta badira ere, Mexikon enbata eragiteko gogotsu eta ilusioz gainezka dago boskotea.

Interprete Desconocido eta The Convicts taldeek disko partekatua kaleratuko dute

Bi taldeek bat egin dute uztailean 12 kantu berri kaleratzeko asmoz

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Uztailaren bueltan disko partekatu edo *split* berri bat izango dugu Debagoienean: The Convicts eta Interprete Desconocido punk -oi! eta punk-rock taldeek elkarrekin lan bat kaleratzea erabaki dute. Talde bakoitzak sei kantu jarriko ditu; guztiak, baina, Aretxabaletako Nekrosounds estudioan grabatuak.

Ideia aspalditxo otu zitzaien, bi taldeek ibilbidea eskutik egin dutelako. Adinez antzerako gazteak, punka eta rock-and-rolla dute gogoko, eta sistemaren aurkako jarrera eta hitzak dituzte. Convicts eta Interprete binomioa arrakastatsu bilakatzeko aukerak ditu.

Interprete Desconocido eta The Convicts taldeetako kideak. | THE CONVICTS

Uztailerako kalean

Grabatzen lehenak Interprete Desconocido izan ziren, eta kantuekin *split* bat egiteko asmoa erakutsi zuten Goienan egindako beste elkarrizketa batean; baina ez zuten argi zein talderekin. The Convicts estudiora sartzean, baina, erabaki naturalena izan zen.

Momentuan, diseinu grafikoa amaitzen dabiltza, eta datekin fin ibiliz gero, uztailean kaleratuko dute diskoa. Diskoa Teletetxo diskoetxearekin argitaratzeko lanetan dabiltza, eta, seguruenik, aurkezpen kontzertua Aretxabaletako Haizea tabernan egingo dute.

Arkada Social taldea hainbat kantu konposatzen dabil, diskoa ateratzeko

Urrian hasiko dute grabazioa, Higain estudioan; lan berria Durangoko Azokan aurkeztuko dute

Hodei Beitia baxua jotzen. | BRIAN DE INDA

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arkada Social lokalean burubelarri lanean dabil disko berrirako kantuak konposatzen. Arrasatearren estudioko hirugarren lan ofiziala izango da, eta taldearen sustraietara bueltatu nahi dutela esan digu Hodei Beitia baxu-jotzaile eta abeslariak.

Beste istorio bat diskoarekin alderatuz, beste soinu bat lortu nahi dute: freskoagoa, zuzenagoa. Horretarako, kantuek aspaldiko klasikoen egitura izango dute berriz ere, baxuaren lerroek eta koruek garrantzia izanda. 12 bat kantuz osaturiko diskoa izango da, eta, Beitiaren esanetan, aurten kontzertu gutxi eskainiko dituzte, lokalean lan egiteko.

Abendurako kalean

Urrian Higain estudiora joango dira, Haritz Harreguy teknikariarekin grabatzera.

Disko berria abendurako kaleratu nahi du laukoteak, hura Durangoko Azokan aurkezteko.

Josu Zubia oñatiarra gitarra eskuetan duela. | EUSKALFOTO

Josu Zubia oñatiarrak gaur ekin dio 'Argia' disko berria grabatzeari

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Gaur bertan hasi da bakarlari moduan lehenengo diskoa grabatzen Josu Zubia oñatiarra. Zubiak Mutrikuko AME estudiora jo du lan hori grabatzera, Axularren gidaritzapean, eta bi astez lanean jardungo du han, 10-12 kantu grabatzeko helburuarekin.

Kantu gehienetan gitarra eta ahotsa izango dira protagonista bakarrak, baina seguruenik kolaborazioak izango dituela aipatu digu.

Urduri samar

Kantu propioak izango dira gehienak; hala ere, kantu pare batean Gerardo Markuletaren hitzak musikatu egingo dituela aipatu digu.

Urduri samar egon da Zubia, diskoa prestatzeko denboraz nahiko estu ibili delako.

ESANAK

"Bi aste emango ditut estudioan lanean"

JOSU ZUBIA | BAKARLARIA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Pisua salgai/ alokairuan Muntsaratzen. Sukalde -egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. 94-681 68 91.

Bolibar. Bolibarren etxea salgai, lur sailekin edo gabe. Tel.: 660 -35 80 67

Durango. Pisua salgai Durangoko erdigunean. Bi logela. Berriztatuta. Denak kanpora ematen du. Oso argitsua edo eguzkitsua. 120.000 euro. 695 -70 24 61.

Eibar. Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar -hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Tfnoa. 656-78 60 97.

Elorrio. Etxebizitza salgai Elorrioko erdigunean, estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 198.000 euro Tel.: 634-45 72 01.

Gasteiz. Pisua salgai San Martin auzoan (125m2, 2. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, ipar-hegoaldera begira. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 253.000euro.

Iurreta. Iurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Iurreta. Iurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m2, 3 logela, egongela, komuna eta sukaldea. 30 m2ko terraza. Berriztatzeko. Tel.: 636-40 26 67.

Mallabia. Mallabian baserri berriztatua eta 6.000 m2-ko lursaila salgai. Tel.efonoa: 639 -97 26 85.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. Tel.: 695-77 31 41.

Oñati. Duplexa salgai. Berria. Urte bat baino gutxiago dauka. Lau logela eta hiru komun. Beheko solairua jantzita dago. Erdigunetik oso gertu. Telefonoa: 656-74 29 49.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Altzariz jantzia, trasteleku eta igogailuarekin. Tel.: 675-71 72 83.

Uharte-arakil. Alokairua 500 euro, salgai 150.000 euro. Interesatuek hots egin 629-83 50 42 telefonora

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Muntsaratz auzoan, pisua alokagai. Telefonoa.: 652 -73 63 39.

Abadiño. Pisua alokagai, Muntsaratz auzoan. 85m2, 3 logela eta 2 komun ditu. Interesatuek deitu honako telefono honetara: 662-55 40 77.

Abadiño. Pisu txiki bat alokatzen da. Tel.: 661-45 24 73. Arratsaldez deitu

Almazon (Soria). Famili oporretako apartamentua alokagai. 2-4 pertsona, 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua eta egongela. Eroso eta lasaia. Igogailua. Udal igerileku bikaina. Uztaila: astean 250 euro / abuztua: astean 350 euro. Mar. 659-57 01 80 apartamentosoria@ yahoo.es .659-57 01 80. marhblanco@hotmail.es.

Arrasate. Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erguin 7an. Egongela ere badu. Laugarren solairua, igogailuarekin. Berokuntza indibidualarekin. 676-854536 / 943-79 83 48.

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza ematen da errentan, logelaka edo osorik. 650 02 79 29, 943 79 99 63

Bastida. Labastidan oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre-otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620-62 92 45. iarteaga_@hotmail.com.

Bergara. Bergaran hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 664-88 26 43.

Conil (Cadiz). Apartamentu bat alokatzen da. Hondartza inguruan. Tel.: 653-73 34 57.

Conil de la Frontera (Cadiz). Etxetxo urdina alokatzen da. Herritik eta hondartzatik 3 minututara. Bi logela, komuna, sukalde-egongela, loralategia eta barbakoa. 4 pertsonendako egokia, zona oso lasaia eta aparkatzeko arazorik ez. 600-59 65 38.

Deba. Uztailaren 17a eta abuztuaren 21a artean libre. Hiru gela eta bi komun. Duplexa. Berritu berria. 110 metro koadro. Deitu eta ikusteko gera gintezke aurrez. 669-93 15 56.

Durango. 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsua. Deitu 660-05 56 43 telefonora.

Elorrio. Etxebizitza alokagai. Erdigunean eta estrenatzeko. 3 logela, bi komun, sukalde ekipatua, 8m2-ko trasteroa eta igogailua. Prezioa: 650 euro hilean. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Otxandion herri erdian apartamentu bat alokagai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Tel.: 605-77 37 21

Gasteiz. Pisua alokagai Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmira ederrekoa, hegoaldera begira. Sukaldea, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trastelekua ere. Altzari eta guzti; bizitzen hasteko moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 950 euro.

Laredo. Apartamentua ematen da errentan. Bistak itsasora. Deitu arratsaldez zenbaki honetara: 687 95 13 44

Oñati. Oñatin hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kaleko 5. zenbakian. 615-73 29 83.

Oropesa del Mar (Castellon). Oropesa del Mar, marinador 4 - 6 pertsonantzako apartamentu berria, udan eta urte osoan zehar alokagai. Hondartzatik 150m-tara. Egongela, 2 logela, komuna, sukaldea, terraza handia, garajea, 2 igerileku eta txintxaunak. Leku lasaia. Animaliarik ez. Tel.: 670-21 49 24. Marijo

Otxandio. Otxandion etxea alokatzen da. 945-46 14 17

Peñiscola. Peñiscolan San Juanetarako edo oporretarako apartamentua ematen da errentan. Lau pertsonarendako modukoa. Hondartzatik bi minutura. Guztiz jantzia. Aparkalekuarekin. Igerilekua eta igogailua dauzka. 670-66 64 13.

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. 609-48 11 24.

Valle ramales (Kantabria). Txaleta alokatzen da. 653-73 34 57

Vieux boucau (Landak). Apartamentua alokatzen dut landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza, apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista, indukziozko sua, frigorifiko handia... Leku bikaina. Harremanetan jartzeko telefonoak: 94-673 27 69 - 656-75 95 37 e-maila: joseba@erroteta.com

Zaldibar. Pisua alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. 655-70 62 68.

Zaldibar. Zaldibarren, herri erdigunean, pisua alokagai. 3 logela, altzariz horniturik eta igogailuarekin. 639-21 01 39

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, prezio onean. Hiru logelakoa. 648 46 90 51

Baserri bila. Baserri bat errentan hartuko genuke Bergara inguruan. Deitu telefono honetara. Ione. 615 734 553 edo 943 76 54 12

Bergara. Hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 654 24 13 27

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 664 88 26 43

Etxea hartuko nuke errentan. Hiru edo bi logelakoa ahal bada. Prezio onean. Telefonoa: 631 47 78 65

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 603 14 28 89

Arrasate. 40 urteko gizon bat naiz eta logela bat alokatuko nuke Arrasaten. Telefonoa: 680 -30 06 05.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Inaki. 608 49 89 93

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. 631-33 73 89.

Arrasate. Arrasateko alde zaharrean logela bat alokatzen dugu, pixua osatzeko. Etxe eguzkitsua da, bi komun eta lau logelarekin. Deitu eta animatu ikustera! 608-57 97 70.

Berriz. Logela alokatzen da baserria konpartitzeko. Berriztatu berria eta leku paregabean. Interesatuak deitu telefono honetara: 619-66 58 57.

Durango. Logela zabala alokagai etxe handi batean. Landakogune inguruan, beraz, erosotasun guztiak hurbil (trena, busa, kiroldegia...). Pertsona serioa eta oso arduratsua bilatzen gabiltza. 652-86 57 80.

Durango. Pisukide bila gabiltza. Pisu berria eta oso polita. Ibaizabal auzunean. 3 logela eta komun 2. Giro ona. Garajea aukeran. Tel.: 651-64 50 53.

Oñati. Etxea osatzeko jendea behar da. Iikasleak ere izan daitezke. Duplexa. Goiko solairuko bi logelak bete nahi dira. Komuna goiko pisuan. Sukaldea eta egongela konpartitzeko. Plazatik hiru minutura. 656-74 29 49.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Durango. Durangon, Askatasun Etorbidean, garajea salgai. 688 -61 68 77.

Elorrio. Elorrioko Berrio-otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658-75 92 64.

Elorrio. Elorrion, Belengua kalean, garaje itxia salgai. Tel.: 634-45 72 01.

Otxandio. Otxandion bi garaje salgai, bat itxia. Telefonoa.: 675 -71 72 83..

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Plateruen plazan. Tel.: 656-78 02 15.

Durango. Durangon Gasteiz bidea kalean garaje itxia alokatzen da. Tel.: 658-45 35 66.

Oñati. San Lorentzo auzoko 10ean garaje itxia ematen da errentan. 943-78 13 57/ 686 -76 01 87.

Durangaldea. Aparkalekua alokagai Herriko Gudarien kalean. Durango. Tel.: 669-73 56 80.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Bulegoa alokagai Durangon, Plateruen plazan. 42m2. Tel.: 656-78 02 15.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Dublin (Irlanda). Gure haurrak zainduko dituen au-pair baten bila gabiltza, familia euskal-irlandarra, dublin-en bizitzen. Euskeraz hitzegitea derrigorrezkoa. Interesatua egonez gero, bidali email bat igorgon@gmail.com-era eta lan baldintzak/ eskeintza bidaliko dizugu.

402. ESKAERAK

Abadiño. 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, tabernak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Tel: 658-73 80 48 (Saioa).

Antzuola. Neska euskalduna gertu umeen zaintzan jarduteko Antzuolan. 680 53 80 98

Arrasate edo Bergara. Garbitasunean, etxeko lanak egiten edota ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita egun solteetan ere. 625 86 99 51

Arrasate. 54 urteko emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 79 60 89

Arrasate. Atariak garbitu edo nagusi zein umeak zainduko nituzke. Etxean bizi izaten edo bestela. Legezko paperak ditut. 627 12 16 33

Arrasate. Atariak garbitzen edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka eta baita asteburuetan ere. 636 47 64 92

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

Bergara. 16:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Urte askotako esperientziaduna. 610 34 97 88

Bergara. 49 urteko neska euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxeko lana eta bazkariak, sukalde laguntzaile edo zerbitzari eta abar. 943 76 52 39

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantxa. 688 65 30 62

Bergara. Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

Debagoiena. Adin nagusikoak zaindu, egunez zein gauez eta etxeko lanak egiten ditut. Orduka edo lanaldi osoan. Telefonoa: 727 74 42 36

Debagoiena. Begirale bezala esperientzia duen gazte euskalduna umak zaintzeko gertu ekain, uztail eta abuztuko lehen hamar egunetan. Jon Ander. 660 00 79 17

Debagoiena. Denetariko garbitasunak egingo nituzke, urtetan horretan aritutakoa naiz -eta. Umak zaintzen ere esperientzia daukat. Ez nuke aseguru rik behar izango. Telefonoa: 647 10 58 72

Debagoiena. Emakume arduratsua umeak edo nagusiak zaintzen eta garbitasun lanetan jarduteko gertu. Telefobnoa: 638 82 25 57

Debagoiena. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien etaumeen zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten edo gauak egiteko ere. Esperientziaduna. 722 32 43 67

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: garbitasunak, pertsonen zaintza egunez, hotelean, sukaldean eta abar. 636 11 23 40

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusiak etxean bizi izaten edo bestela zaintzen, atari, taberna eta abarrak garbitzen... 671 10 39 13

Debagoiena. Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. 943 76 48 26, edo 650 17 74 87

Debagoiena. Garbitasun lanetan edo nagusi eta umeen zaintzan lan egingo nuke. 691 03 25 02, edo 943 54 09 41

Debagoiena. Garbitasuna lanetan, eraikuntzan, banaketak egiten edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Nortasun agiria legeztatuta daukat. Telefonoa: 682 51 83 70

Debagoiena. Gidari lanak egingo nituzke. Baimen guztiak dauzkat eta urte askotako esperientzia. Berehala hasteko moduan. 626 66 69 77

Debagoiena. Gizonezkoa lan bila: garbiketak, tabernatan,

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

INMOKOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000€
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€
- Zabalotegi 2 eta 3 logeletako pisuak OSO PREZIO ONEAN.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000€. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkorekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000€.
- Justo Garate 50 m², 2 logela. 10 m² terraza. Oso ondo. 210.350€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000€
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000€
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 169.500€.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m2m² 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila. .

OSINTXU:
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 150.000 €. AUKERA BIKAINA.

banaketan eta abar. Telefonoa: 679 60 08 48

Debagoiena. Gizonezkoa lanerako gertu. Tabernari zein garbitasun lanetan jardungo nuke. 636 60 48 51

Debagoiena. Hamar urteko esperientzia duen emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Legezko paperak ditut. 634 11 31 09

Debagoiena. Mutil boliviarra pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan eginez. Carlos. 631 36 17 62

Debagoiena. Mutil gazte euskalduna lanerako prest. Baserrieta, tabernan eta abar. 647 19 86 00

Debagoiena. Mutil senegaldarra garbiketa lanak egiteko prest Bergara eta inguruetan. 626 78 33 80

Debagoiena. Mutila agertu lanerako: garbitasun lanak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 661 94 19 13

Debagoiena. Mutila edozein motatako lanak egiteko prest. 602 87 46 25 edo 605 44 61 98

Debagoiena. Nagusi edo umeak zainduko nituzke, baita etxean bizi izaten ere. Garbitasunean, tabernatan edo sukaldean ere lan egin dezaket. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 697 20 00 86,

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarrizko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketak egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. 615 06 28 04

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketak egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska eskarmentduna lanerako gertu: garbitasunak edo ume zein nagusiak zaintzen. Legezko paperak eta autoa dauzkat. 680 87 38 66

Debagoiena. Neska esperientziaduna lanerako gertu. Garbitasun lanak edo umeak zainduko nituzke. Orduka edo egun osoz. 664 37 49 85

Debagoiena. Neska lanerako gertu etxe lanetan, garbitasunetan, etxean bizi izaten, orduka edo egun osoz. 648 46 90 51

Debagoiena. Neska lanerako prest. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditu. Ospitalean gaua pasatzeko zein nagusiak zaintzeko orduka. Tabernan lan egiteko, umeak zaintzeko edo dendan lan egiteko ere prest. Autoa dauka. 617 20 59 43

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Legezko paperekin. Telefonoa: 633 77 44 24

Debagoiena. Paperak dituen pertsona lanerako gertu; garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen. Debagoiena osoan. 672 96 08 22

Debagoiena. Prest nago mandatuak egin, autoan leku batetik bestera eraman eta antzeko lanak egiteko, prezio onean. 607 34 90 43

Debagoiena. Ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan, tabernatan, sukaldean... lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izateko ere gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 680 87 38 66

Donostia. Magisteritzako ikasle eta aisialdiko begiralea haurrak zaintzeko eskaintzen da Antiguo aldean. Harremanetarako telefono honetara deitu: 688-64 93 31.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Lanaldi osoan zein erdian, gauez ere bai. Erreferentzia onekin. Tel.: 609 -88 79 21.

Durangaldea. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. Tel.: 689-43 64 54 .

Durangaldea. Pertsona arduratsua eta erreferentziaduna, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketan (portalak, tabernak, etxeak...) aritzeko prest. Tel.: 631-28 34 57.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen edo garbiketan lan bila nabil. Lanaldi osoan edo erdian. Esperientzia eta erreferentzia onarekin. Tel.: 632-99 23 83.

Durangaldea. Goizez, arratsaldez, gauez, asteburuetan zein jaiegunetan garbiketan zein zaintzan aritzeko prest. Esperientzia gaixorik dauden nagusiak zaintzen. Tel.: 690-68 73 95.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziaduna pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan lan bila dabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 608-65 90 55.

Durangaldea. Erreferentziak dituen emakumea lan bila. 24 orduz edo egunez, orduka, gauez zein asteburuetan aritzeko prest. Tel.: 669-52 73 27.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Asteburuetan, gauez.... Tel.: 696-75 35 30.

Durangaldea. Lan bila nabil, nagusiak zaintzen edo garbiketan. Lanaldi osoan edo erdian, baita gauez ere. Erreferentzia onekin. Segituan hasteko. Paperak erregulatuta . Tel.: 650-61 01 94.

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Gidatzeko baimena. Tel.: 619-13 07 16

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, asteburuetan zein gauez pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientziaduna. Tel.: 628-86 41 86.

Durangaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez, baita asteburuetan ere. Tel.: 602-07 19 11 (Patricia).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Tel.: 649 -35 96 06.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 669-50 16 53.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko lan bila. Telefonoa: 600-72 84 37.

Durangaldea. Esperientzia duen neska 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. 672-85 39 30.

Durangaldea. Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onekin, 24 orduz edo egunez, asteburuetan edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila dabil. Paperak eguneratuta. Tel.: 628 -00 22 17.

Durangaldea. 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan aritzeko lan bila. Tel.: 602-89 44 78.

Durangaldea. Neska euskalduna, titulu eta esperientziaduna umeak zaintzeko prest. Tel.: 662-36 41 67 // 94-681 39 40.

Durangaldea. Geriatriako laguntzailea asteburuetarako lan bila . Tel.: 652-72 02 29.

Durangaldea. Pertsona arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. Edozein ordutan aritzeko prest. Tel.: 616 -32 73 32.

Durangaldea. Pertsona arduratsua, orduka pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 628 -78 93 50.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 639-96 58 84.

Durangaldea. 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 638-33 51 10.

Durangaldea. 24 orduz, lanaldi osoan edo erdian pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. 660-93 56 31.

Durangaldea. 43 urteko neska goizetan umeak zaintzeko lan bila dabil. Esperientzia handia. Tel.: 688-64 36 28. emaila: e.antxia@kzgunea.net

Durangaldea. Gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arte pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Telefonoa: 650-61 01 94.

Durangaldea. 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketan aritzeko lan bila . Telefonoa: 632 -72 43 23.

Durangaldea. Esperientzia eta titulua duen neska euskalduna, umeak zaintzeko eskeintzen da. Telefonoa: 662-36 41 67 edo 94-681 39 40.

Durangaldea. Neska arduratsua umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Tel.: 651-34 12 38.

Durangaldea. Gauez edo asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 679 -59 32 49.

Durangaldea. Edozein ordutegitan 24 orduz zein egunez eta edozein lanetan aritzeko prest. Etxeko lanetan, zaintzan zein garbiketan. 603-48 80 27 (Nira).

Durangaldea. 24 orduz, egunez edo orduka pertsona nagusiak zaintzeko, lorezain aritzeko zein beste edozertan aritzeko prest. Tel.: 631-11 16 95.

Durangaldea. Sukaldaritzan edo pintore lanetan aritzeko lan bila nabil. Sukaldeko laguntzaile moduan 2 urteko esperientziarekin. 686-58 67 69.

Durango. Andre euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Urte askotako eskarmentuarekin. Tel.: 699- 74 57 23.

Durango. Durangon egunez zein orduka pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketan aritzeko lan bila nabil. Tel.: 680-29 66 76.

Durango. Neska euskalduna, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Haur hezkuntzako teknikaria naiz, 24 urte eta esperientziaduna. Interesatuak: 648-60 48 24.

Elorrio. Datorren kurtsoan, irailetik aurrera, haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez (durangaldean) haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Lanerako prest. Emakume gaztea adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 670 58 63 32

Oñati. Lehen Hezkuntzako ikasle euskalduna haurrak zaintzeko prest ekain, uztailaeta abuztuan. Interesatuok deitu telefono honetara: 660 77 87 65

Udan umeak zaindu. Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 620 95 46 11

Udarako lan bila. Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. interesatuok deitu telefono honetara: 620 95 46 11 edo 943 78 34 25

Umeak zaindu. Bergaran, Arrasaten edo Aretxabaletan umeak zainduko nituze irailetik aurrera, arratsaldez. Haur hezkuntza ikasten dabilen 23 urteko neska euskalduna naiz, Bergarakoa, eta esperientzia handia daukat haurrekin. 680 17 33 61

Uztailerako lan bila. Uztailean haurrak zaintzeko edo ludotekara eramateko prest dagoen neska Markinarra naiz (haur -hezkuntzako goi mailako zikloarekin). Interesatuak deitu telefono honetara. Eskerrik asko. 628 43 76 30

5. IRAKASKUNTZA

501. EMAN

Bergara. Ingelesezko eskolak ematen ditut ekainean eta uztailean. Ikastaro trinkoak, maila guztietan. Baita HEOko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere. Talde murriztuak. 618 91 32 89

Durango. 24 urteko mutil euskalduna eta Lehen Hezkuntzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 695 -73 69 94 edo emaila: k.anderez@hotmail.es

Durango. Haur Hezkuntzako irakaslea uztailean eskola partikularrak emateko prest. EGA eta First Certificate tituluak ditut. Esperientzia handia. Interesatzen bazaizu, deitu honako telefono honetara: 628-09 17 64.

Durango. Batxiller, EGA eta ingeles tituludun unibertsitateko ikaslea eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 678-48 87 66.

Durango. Ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...) irakurketa, idazketa, ulermena. Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. 656-79 15 99.

Durangaldea. Neska gazte bat eskola partikularrak emateko eskaintzen da. LH, DBH zein Batxilergoan. Ekonomian lizentziatua. DBH eta Batxilergoan irakasle izateko masterduna, eta EGA tituluduna. Tel.: 635-74 67 98.

Durangaldea. Neska euskalduna batxillergo eta Administrazio tituluduna, etxez etxe eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 662-36 41 67 // 94-681 39 40.

Elorrio. Datorren ikasturtean, irailetik aurrera, lehen hezkuntzako edozein kurtsora zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Akademian lanean egondakoa naiz. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688-64 06 04.

Gitarra elektrikoa. Gitarra elektrikoko eskolak ematen ditut. Etxera joango nintzateke. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. 679 74 00 61

Villabona. Ingeleseko eta frantseseko klase partikularrak ematen ditugu. Taldeka edo bakarka. Hizketaldiak,azterketak. Bakarkako klaseak zure etxean eman ditzazkegu edo gure estudioan. Lehendabiziko eguna proba moduan izanik, gero zuk erabaki. Tel.: 664-16 02 68.

Villabona. Klase partikularrak ematen dira: ingelesa,frantsesa, matematika,fisika,kimika. Taldeka edo bakarka. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@yahoo.es.

Durangaldea. Psikologo euskaldunak ikasketa teknikoak eskaintzen ditu. Irakurketa-idazketa-ulermen arazoak lantzen ditu, batez ere. Hiperaktibitatea, antsiedadea, etab. Telefonoa: 679-38 23 69.

Durangaldea. 43 urteko neska goizetan etxez etxe ingeleseko klase partikularrak emateko prest. Esperientzia handia. Tel.: 688-64 36 28 emaila: e.antxia@kzgunea.net

6. MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 kotxea salgai. Audi A4 kotxea salgai. Oso egoera onean. 160.000 km. Tel.: 673 -49 36 39.

Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai. Citroen c3 hdi 70 cv collection diesela salgai, 22.300 km. Irrati-cd-mp3, abiadura-mugatzailea, ispilu elektrikoak, barne- ordenagailua, ia-ia berria eta durangaldetik bakarrik erabilita. IAT 2013ko azarora arte pasata. 7.500 euro negoziagarri.Deitu telefono honetara.: 618-93 62 14.

Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai. 1999. urteko Mercedes Vitto 110 furgoneta salgai, 105 CV. Ohea, aulkiak, mahaia, pintura berria, larruzko aulki berriak, leiho automatikoak, klimatizagailua, ABS eta aparkatzeko sentsoreak. Tel.: 673-49 36 39

Opel frontera 2.3. D salgai. Opel frontera 2.3. D salgai. 1994. Urtekoa. Kilometro gutxi. Tel.: 667-09 45 36

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Antxumeak salgai. Antxumeak salgai. Bizirik edo jateko. Tel.: 636-74 70 37. 15:30etik aurrera.

Untxi erraldoia salgai. Untxi erraldoia salgai. Espainiar arrazako 10 hilabeteko arra. 94-621 82 57..

8. DENETARIK

801. SALDU

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria. gasteiz@gmail.com

Bolibar (Bizkaia). Bolibarren lursaila salgai.Telefonoa: 660 -35 80 67.

Irrati antena salgai. Irrati antena salgai. FM transmisorea, osagai hauekin: «link» stereo sorgailu bat, «diratel» FM modulagailu-kitzikagailu bat eta «diratel» FM 600w anplifikadore bat. Eta FM sistema erradiatzailea, osagai hauekin: 4 antena yagi FM, 2 elementurekin eta FM banagailu bat, 4 biderekin. 94-681 65 58

Umeentzako karroa salgai. Umeentzako karroa salgai. Oso egoera onean eta extra askorekin. 637-95 77 55.

Umeentzako autorako aulkia salgai. Umeentzako autorako aulkia salgai. 10 urtera artekoa. Merkea, ondo zainduta. Tel.: 648-63 58 06.

Umeentzako bizikleta salgai. Umeentzako bizikleta salgai. Gutxi erabilita. Merkea. 6 urtera artekoa. 648-63 58 06.

Umentzako triziklo berria salgai. Umeentzako triziklo berria salgai. Opari egokia udarako, 75 euro. 634-77 84 58.

802. EROSI

Durangaldea. Lursail bat erosi edo alokatu nahi dut . Lursail txikia, ortua ipintzeko. 666-69 10 03.

Trikitia . Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Telefonoa: 600-37 54 97.

806. GALDU

Eraztuna Arrasaten. Zapatuan, maiatzaren 11n, eraztuna galdu nuen Forum Sport dendan. Goizean. Eraztun handia da, anbar kolorekoa eta harri bat dauka. 628-77 58 28.

Mobila. Mobila galdu dut. HTC One X. Funda arrosa batean. Ozaetan. 50 euro emango ditut. Eskerrik asko. 672 25 74 26

Patinetea galdu Aramaion. Oxelo patinete beltza eta urdina galdu nuen ekaineko lehen igandean parke inguruan. Aurkitzen baduzue deitu mesedez. Telefonoa: 945-44 50 97 / 692 -70 42 71.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila. Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 46 urte ditut, altua eta morenoa naiz,ez ditut kargarik. Alaia naiz eta bidaiatzea gustatzen zait. Deitu telefono honetara 609-48 11 24

Euskara-frantsesa. Mintzapraktika egiteko jende bila nabil. 685-76 59 73.

Hizkuntza elkartrukea Arrasaten. Belgikako ikaslea naiz eta hizkuntza elkartrukea egiteko jende bila nabil. Nik gaztelania ikasi nahi dut eta holanderaz, ingelesez, alemanieraz, frantsez eta italieraz egiten dut, maila ezberdinetan bada ere. Gaztelaniaz maila ertaina daukat. Kontaktua: vandekerkhof_niels@hotmail.com +32476022252.

Zure euskara edota gaztelania hobetu nahi?. Lagunduko dizut, nik nire ingelesa hobetzen dudan bitartean, deitu! 638-26 43 85.

Software-ean aldaketa handiak aurkeztu ditu Apple-ek 'keynote'-ean

- iOS 7 sistema eragilea aurkeztu dute, diseinu zeharo eraberrituarekin, minimalistagoa
- Mac Pro eta MacBook Aire berriak aurkeztu dituzte, prozesatzaile azkarragoekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sistema eragileari orain arteko eguneraketarik handiena egin dio Apple-ek. *Keynote*-ean aurkeztutakoaren arabera, udazkenean, eskuragarri egingo denean, itxura eta diseinua goitik behera aldatuko zaio iPod, iPad eta iPhone-en sistema eragileari. Interfazearen aldaketa erabatekoa da bertsio berrian. iOS7 iPhone 4, iPad Mini, iPad 2 eta 5. belaunaldiko iPod-etatik aurrera instalatu ahalko da. Disenu aldaketa sakonaz gain zeresan handiena blokeo pantaila berriak eta kontrolerako ezarritako lasterbideek eragin dute. *Multitarea* kudeatzeko sistema berrian ere berritasun ugari dago.

iPhone-ak, sistema eragile berriaren pantaila-irudiekin. | APPLE

Minimalismoa

Diseinu moderno eta lauagoaren alde egin dute diseinatzaileek, honezkero ezagun egin den Jonathan Ive buru dutela. Hala, ikonoak, koloreak eta baita tipografia bera ere guztiz berriak dira zazpigarren bertsioan. Hala, blokeo pantailatik hasita, sistema eragile berrituan nabigatzeko modua oso desberdina da. Blokeo pantailak berak ohar panelaren ezaugarriak izango ditu eta baita ere kontrolerako sarrera nagusiak. Kontrolei dagokienez, *Control Center* delakoan batu dituzte ezaugarri nagusiak. Wi-Fia, Bluetooth-a, bolumena ala pantailaren argitasuna, besteak beste, askoz ere irisgarriago ipini dituzte sistema berrian. *Multitarea*n ere hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu iOS7-ak eta aurrerantzean aplikazioen leihoen kartak aterako dira, ikonoa izan beharrean, batetik bestera aldatzerakoan.

Fitxategien kudeaketa

Sistema berriekin hobekuntza nabaria artxiboak trukatzerako moduan etorriko da sare lokal batetik edo Wi-Fi eta Bluetooth bitartez egin ahal izango baita. Fitxategia aukeratu eta partekatzeko botoian agertuko da aurrerantzean aukera hori.

Nabarmentzekoa da, baita ere, Safari nabigatzaileari egin dioten eguneraketa. Fitxa bidezko bistaratze berria eta nabigazio -leiho minimalista dira ezaugarririk aipagarrienak, askoren artean.

Mac Book Air berriak. | APPLE

Bestelako aldaketa eta gehikuntzak ere badaude eta bertsio berrian aurreko hutsegite bat konpontzera datozela ematen du: mapen arazoa. Aldaketa handiak egin dizkiote nabigazio aplikazioari. Mapak hobetzeaz gain oinez ibiltzeko funtzioa ere gehitu diote gaueko bisualizazioarekin batera.

Hardware-ari dagokionez, albistea MacBook Air modeloaren eraberritzea izan da. Egun bateko bateria-autonomiarekin, grafiko azkarragoak eta Intel Core prozesatzaile berriarekin etorriko dira ordenagailu eramangarri berriak. Diseinua ere finagoa da eta pisuz arinagoa izango da gama berria. Dagoeneko eskuragarri dago Mac Book Air berria. Azkenik, OS X Mavericks sistema eragile berria ere aurkeztu dute ordenagailuentzat eta Mac Pro gama berria, aipatutako ezaugarriekin.

Aurkezpenen artean iWork aplikazio sorta berria ere eskuragarri jarri dute. Sorta osoa ipini dute gainera lainoan, iCloud -en. Google Docs eta Office 360 aplikazio sortetan aurki daiteken eskaintza antzerakoa dakar iWork -en azken bertsioak, sinkronizazioari dagokionez.

iTunes Radio *streaming* zerbitzuaren aurkezpen ofiziala ere egin zuten, iTunesen osagarri nagusi modura, irrati zerbitzua aurkeztu dute.

Azkenean Google-ek eskuratu du Waze nabigazio aplikazioa

J.B. | ARRASATE

Azkenean Google izan da eroslea. 983 milioi eurorengatik erosi du Waze autorako nabigazio aplikazio soziala. Facebook eta Apple-ekin negoziazio luzeak izan eta gero Google-ek eskuratu du Waze. Aplikazioa bereziki da interesgarria duen erabiltzaile kopuruarengatik eta erabiltzailek horiek duten jardun oparoarengatik, hain zuzen, Google-ek bere ekimen sozialekin behin eta berriz saiatuta ere, lortu ezin duena. Dirutzaz gain, Waze-en sortzaileek lortu dute Google-ek egoitza nagusia jatorrizko herrialdean uztea, Israelen, eta salbuespena da hori. Hain zuzen, negozioetako baldintza zen enpresa herrialdean geratu eta lanpostuei eustea.

Kolaborazioan, gakoa

Waze-k 49 milioi erabiltzaile dauzka mundu guztian zehar eta informazio iturri ezberdinen arteko konbinazioa egin da erabiltzaileari zirkulazioari eta errepidearen egoerari buruzko informazioa ematen dio ohiko GPS tradizional baten lana betetzeaz gain. Erabiltzaileen kolaborazio indize altuari esker, Waze gauza da informazio erantsi kopuru handia emateko.

Merkataritza elektronikoak gora jarraitzen du Euskadin

Merkataritza elektronikoak oso gora egin du Euskadin azken urtean. 2011tik merkataritza elektronikoak gora egin du oso modu aipagarrian Euskal Autonomia Erkidegoan Eustaten datuen arabera. Informazioaren Gizarteari buruzko azken txostenean jasotzen da 2013 an erkidegoko Internet erabiltzaileen %40k egin duela erosketaren bat *on-line* eta 2012an %32koa zen portzentaia. Alde handia. Txostenean jasotzen da 2013an 15 urtetik gorako biztanleen bi heren Internet erabiltzailea dela. Erabiltzaile kopuru orokorrak ere gora egin du urterik urte.

27 mila milioi mezu zabaldu ditu WhatsApp-ek egun bakarrean

Datuek berretsi besterik ez dute egiten WhatsApp mezularitza aplikazioaren arrakasta neurrigabea. Sinpletasuna eta milioika erabiltzaile, horra WhatsApp-en arrakastaren gako bikoitza. Azken errekorra da egun bakarrean 27 mila milioi mezu banatu dituela mundo osoan aplikazioak, 10 mila milioi bidali eta 17 mila miloi jaso. Gaur egun 200 milioi erabiltzaile aktibotik gora ditu aplikazioak eta hazkunde erritmo onarekin jarraitzen du aurrera egiten. Mundu mailan Kine aplikazioarekin du lehia estua WhatsApp-ek. Linek Asian dauka erabiltzaile gehien baina mundu mailako lidergoa WhatsApp -ena da gaur egun.

iPhone eta Ipad-erako Office kaleratu du Microsoft-ek

Lehen aldiz eskuragarri jarri du Office aplikazioa iOS-erako. Oraingoz Estatu Batuetan bakarrik eskura daiteke *suite* berria eta gainera harpidetza bitartez egin beharra dago, lainoko zerbitzuak ere sartzen baitira eskaintzen den paketean. Hain zuzen, Apple-ek iWork sinkronizatu berria aurkeztu duenean gertatu da Microsoften mugimendu berria; inor ezustean harrapatu ez duena. Microsoft Office-ek munduko ofimatika aplikazio sortarik erabiliena izaten jarraitzen du oraindik orain. iPhone 4etik aurrera dago erabilgarri aplikazio berria oraingoz.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Sniff, sniff

Bai, bai... badakit behin baino gehiagotan esan dudala Telecinco ikusten duzuen bakoitzean liburu batek bere buruaz beste egiten duela. Hala ere, komunikabide batek ateak ixten dituenean negar egiteko arrazoi bat dela uste dut. Kasu honetan gainera publikoa izateak amorru handiagoa ematen dit.

Argi dago troikak ez duela Greziaren egoera hobetu, kontrara, okertu egin duela dirudi. Langabezia tasak gora, osasun zerbitzuak behera, pentsioak... Eta nola ez, kazetaritzari ere bere unea iritsi zaio. Kuriosoa da, guztion artean ordaintzen den telebista bat gutxi batzuen eskuetan dagoela ikustea. Zoritxarrez, gainera, hori ez da Grezian soilik gertatzen.

Argi dago enpresa publiko guztietan langile gehiegi daudela, baina nork jarri ditu? Gure politiko kutunek, noski! Kostua gehizkoa egiten denean, pertsiana bota eta listo! Listo ederrak dira hauek!

Horrenbeste enpresa publiko itxi beharrean, eta 2.000 pertsonatik gora kale gorrian utzi aurretik, lehen EREa "guztion" etxea den parlamentu, legebiltzar eta ustelkeriaren plaza diren hemizikloetan egin behartuko lituzkete!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17

'Harmailatik'

Gabez takarraran lasterketa eta Osintxuko emakume zizklisten txapelketa ikusgai, besteak beste. | **22:00**

12:00 Magazinea
13:00 Gurean gaur
13:30 Zorion Agurrak
13:36 Pedalka
14:03 Sakelekotik
14:15 AsteON
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 AZK2012
16:23 Pedalka
16:53 Zorion Agurrak
17:00 Berriak
17:30 Eguraldia
17:33 Onein
17:59 Erreportajea
18:29 Atik Zra
19:14 Beranduegi.tv
19:42 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Berriak
21:55 Eguraldia
22:00 Harmailatik
22:45 Magazinea
23:45 Berriak
00:20 Eguraldia

MARTITZENA, 18

'Onein'

Onein sukaldaritza saioan nola sukaldatu ikasten jarraitu ahal izango duzue martitzenean. | **15:58**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Erreportajea
14:37 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein
16:36 AsteON
17:06 Zorion Agurrak
17:11 Berriak
17:36 Eguraldia
17:39 AZK2012
18:09 Altxorraren bila
18:41 Zorion Agurrak
18:46 Trikitilari gazteen txapelketa
18:58 Harmailatik
19:43 Zorion Agurrak
19:48 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Huhezinema
22:00 Berriak
22:25 Eguraldia
22:30 Magazinea
23:15 Klaketa
23:55 Berriak
00:02 Berriak
00:27 Eguraldia
00:30 Magazinea.

EGUAZTENA, 19

'Berriak'

Eguneko albiste garrantzitsuenak ikusi ahal izango dituzue Monika Belastegiren eskutik. | **15:26**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Harmailatik
14:00 Pedalka
14:29 Sakelekotik
14:41 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:53 Onein
16:31 Harmailatik
17:16 Huhezinema
17:46 Zorion Agurrak
17:51 Berriak
18:16 Eguraldia
18:18 Atik Zra
19:03 Harmailatik
19:48 Zorion Agurrak
19:52 Berriak
20:17 Eguraldia
20:20 Magazinea
21:05 Gurean gaur
21:35 AsteON
22:05 Berriak
22:30 Eguraldia
22:32 Magazinea
23:17 Harmailatik
00:33 Berriak
00:58 Eguraldia.

EGUENA, 20

'Planik bai?'

Asteburura begira jarriko gara eta egongo diren kultura hitzorduen berri emango dizuegu. | **17:32**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Huhezinema
13:40 Atik Zra
14:25 Onein
14:55 Zorion Agurrak
14:58 Berriak
15:23 Eguraldia
15:26 Erreportajea
15:56 AZK2012
16:26 Berriak
16:51 Eguraldia
16:54 Onein
17:32 Planik bai?
17:52 Huhezinema
18:22 Ikusmira
18:46 Zorion Agurrak
18:51 Planik bai?
19:16 Beranduegi.tv
19:44 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:07 Gurean gaur
21:37 Sakelekotik
21:50 Pedalka
22:20 Planik bai?
22:40 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Klaketa
00:13 Eguraldia.

EGUBAKOITZA, 21

'AsteOn'

Astean zehar gure bailaran gertatutako albisteen errepasoa egingo dugu, besteak beste. | **22:00**

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean gaur
13:30 Onein
13:57 Pedalka
14:25 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Planik bai?
15:33 AZK2012
16:03 Altxorraren bila
16:35 Beranduegi.tv
17:03 Zorion Agurrak
17:09 Planik bai?
17:29 Berriak
17:54 Eguraldia
17:57 Planik bai?
18:17 Altxorraren bila
18:49 Zorion Agurrak
18:55 28.Klip
19:25 Beranduegi.tv
19:50 Zorion Agurrak
19:55 Berriak
20:25 Eguraldia
20:30 Planik bai?
20:50 Zorion Agurrak
20:55 Gurean gaur
21:20 Ikusi irratia
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:55 Eguraldia
22:58 AsteON
23:28 Planik bai?
23:48 Berriak

ARRASATE IRRATIA

'Kirola euskaraz' egitasmoa berbagai izango dugu

Igor Arenaza UDA futbol saileko kirol arduraduna izango dugu gaur, astelehena, 107.7-ko uhinetan. *Igo autobusera!* irratsaioaren elkarrizketen tartean izango dugu gurean Arenaza eta *Kirola euskaraz* egitasmoaren berri emango digu guztioi 11:00etatik aurrera.

Biblioporrak gidari buruz hitz egingo dugu eguaztenean

Etzi, guaztena, Asun Agiriano Arrasateko haur bibliotekako kidea izango dugu Arrasate Irratian atera duten Biblioporrak gidari buruz berbetan. Elkarrizketen tartean izango da hori, 11:00etan. Berak aurtengo udararako liburuen proposamenak egingo dizkigu.

Gazte bulegoko informazioa jaso ahal izango duzue

Bihar, martitzena, gazte bulegoko informazioa jaso ahal izango duzue 107.7ko uhinen bitartez. Dorleta Kortazar gazte bulegokoak emango digu gazte informazioaren berri eta hori martitzeneko *Igo autobusera!* irratsaioan izango da, ohi bezala elkarrizketen tartean eta 11:00etatik aurrera.

TELE-ALBISTEAK

'Magazinea' saioan gai ugari jorratuko ditugu aste honetan ere

Gaur, astelehena, *Gure Esku Dago* dinamika ezagutuko dugu eta tertulia ere izango dugu

Txomin Madina aurkezlea. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Gure Esku Dago dinamika Bergaran aurkeztu zuten joan zen astean eta oraingoan Oñatin egingo dute. Erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimena da hori eta bertatik defendatzen dute Euskal Herria nazioa dela, erabakitzeko eskubidea duela eta herritarrak direla protagonista nagusi. Dinamika herriz herri aurkezten ari dira eta horren gaineko informazioa jaso ahal izango duzue gaur, astelehena, Txomin Madina kazetariak gidatuko duen *Magazinea* saioan 20:15ean.

Egunerokotasunei buruzko gaiak ere izango ditugu hizpide saioan gaur. Izan ere, astelehenero moduan, bi solaskide izango ditugu gurean aktualitateko gaiei buruz euren iritzia ematen.

Horrez gain, martitzenean ekonomia kontuak izango ditugu hizpide eta eguaztenean osasun kontuak izango ditugu tarteko. Eguenetan egiten dugun moduan, gainera, aste honetan bi gazte izango ditugu *Magazinea*-n euren iritziak ematen.

Julen Iriondok Alpeetan beste etapa bat egingo du bizikletaz egueneko saioan

Oraingoan Cayolle gainetik Saint Sauverrera arteko bidea ikusi ahal izango dugu saioan

A.T. | ARRASATE

Aste honetako eguenean eskainiko dizuegun *Pedalka* saioan Cayolle gainetik Saint Sauveur-era arteko bidea ikusi ahal izango duzue. Nahikoa komeria izango ditu gainera Julen Iriondo kazetariak oraingo atalean. Izan ere, Cayollen behera zihoala bidera behiak irten zitzaizkion eta bertan gertatutakoa ikusi ahal izango duzue.

Julen Iriondo bizikletaz egiten ari zen bide bera oinez egiten ari ziren suitzar batzuekin ere izango da Iriondo aste honetako saioan. Ez galdu, beraz, *Pedalka,* eguenean 21:50ean.

Julen Iriondo Alpeetan. | JULEN IRIONDO

ZORION AGURRAK

ARETXABALETA
Haizea Zabala Cabero
Ekainaren 22an, 5 urte. Zorionak, *guapisima*! Kriston neska handixa egin zara! Ondo pasatu zure egunean eta muxu asko aita, ama, Egoitz eta Izadiren partetik. *Guapisima*!

ANTZUOLA
Lore Kortabarria Arana
Ekainaren 21ean, 5 urte. Zorionak, *pitusi*! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat Peru, aita eta amaren partetik. Eta kontuz ostilarean belarriekin!

ARRASATE
Ane Urrutia Arizmendi
Ekainaren 21ean, 3 urte. Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik!

BERGARA
Maddi Oregi Alberdi
Ekainaren 18an, 9 urte. Zorionak, *guapa*! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi-handi bat etxekoen eta, bereziki, Anderren partetik.

ARRASATE
Libe Calvo Ugalde
Ekainaren 17an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitaita, amama eta tio Anderren partetik. Ondo-ondo pasatu.

ESKORIATZA
Unai Arana Romero
Ekainaren 16an, 4 urte. Azkenien zure eguna heldu da! Zorionak, pirata! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta opari asko jaso. Patxo potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Beñaten partetik!

ESKORIATZA
Lur Arana Atxaga
Ekainaren 16an, 34 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo ospatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Unai, Beñat eta ama.

LEGUTIO
Intza Lopez de Briñas Biteri
Ekainaren 16an, urtebete. Zorionak, printzesa! Patxo asko etxeko guztien partetik!

OÑATI
Aitor Casado Biain
Ekainaren 15ean, 8 urte. Zorionak, *mutikon*! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik.

ARRASATE
Iker Alonso Gil
Ekainaren 15ean, 15 urte. Zorionak etxekoen partetik!

ARRASATE
Unai Alonso Gil
Ekainaren 15ean, 15 urte. Zorionak etxekoen partetik!



ARETXABALETA
Eneko Makazaga Manteca
Ekainaren 14an, 6 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat etxekoen partetik, txapeldun. Ondo pasatu zure egunean.

BERGARA
Ane Pescador
Ekainaren 13an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta erregalo asko jaso. Muxu handi bat Leire, Oier, Aratz eta Ekhiren partetik.



OÑATI
Unai de Marcos
Ekainaren 13an, 2 urte. Zorionak, *potol*! Bizkotxua jatera fango gara zure etxera. Patxo handi bat eta belarrittik bi tirakada etxeko danon partetik.

ELGETA
Ander Sarasua Zeberio
Ekainaren 13an, 7 urte. Zorionak, Ander! Azkenean bai, azkenean iritsi da eguna! Ondo ospatu! Aitatxo, amatxo eta Urtzi.

ARETXABALETA
Uxue Galdos Arrate
Ekainaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Musu handi bat etxekoen partetik. Asko maite zaitugu.

ARRASATE
Leire Balentziaga Villar
Ekainaren 11n, 17 urte. Zorionak, Leire! Ederto baten ospatu 17 urtiak. Patxo potolo bana zuk ondo dakitzunen partetik... *sists&bro.*

OÑATI
Garazi Irazabal Plazaola
Ekainaren 8an, 6 urte. Ondo pasatu, Garazi, zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko denon partetik, bereziki zure ahizpa Marenen aldetik.

ARRASATE
Aritz Arizmendiarrieta
Ekainaren 21an, 11urte. Zorionak, mutikote. Oso ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

HILETA

Jose Maria Martin Camin

Atzo, 2013ko ekainaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

Emaztea: Manoli Domínguez; seme - alabak: Silbia eta Josu Larrea, Rakel eta Cristobal Iñarra; bilobak: Irati, Maite, Beñat, Iraia; anai – arrebak, ezkon anai – arrebak, ilobak, lehengusuak eta beste senide guztiak.

Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa zu ahaztea

Haren aldeko meza gaur astelehenean izango da, ekainak 17, 19:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Antzuolan, 2013ko Ekainaren 17an.

OROIGARRIA

Luis Etxeberria Luarizaristi

Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 11n, 57 urte zituela.

Zure oroimen zaratatsuak
beteko digu,
inguruko mendi, baso zelai eta
zure lagunen barruan
utzi duzun
hutsune ixila.
Betirako gurekin, betiko lagun.

Bergaran, 2013ko ekainaren 17an.

JAIOTAKOAK

Ekaitz Amiano Martin

Aretxabaleta. 3,600 Kilo. Ekainaren 9a. Gurasoak: Nora eta Urtzi. Argazkian, Ekaitz jaioberria lasai-lasai.

Elaia Martin Uribesalgo

Eskoriatza. 4,080 Kilo. Ekainaren 12a. Gurasoak: Edurne eta Karlos. Argazkian, Elaia aitarekin.

Noa Arana Valor

Arrasate. 2,900 Kilo. Ekainaren 12a. Gurasoak: Placi eta Zuhaitz. Argazkian, Noa amarekin.

Aimar Amilibia Isasi

Elorrio. 3,630 Kilo. Ekainaren 9a. Gurasoak: Eneritz eta Txabi. Argazkian, Aimar gurasoekin.

Irati Soto Axpe

Antzuola. 3,450 Kilo. Ekainaren 8a. Gurasoak: Nerea eta Diego. Argazkian, Irati gurasoekin.

Maddi Larrea Garitano

Antzuola. 3,580Kilo. Ekainaren 3a. Gurasoak: Iker eta Usuri. Argazkian, Maddi sehaskan lo.

Andrea Merchan Vazquez

Arrasate. 3,930 Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: M. Jesus eta Agustin. Argazkian, Andrea aitarekin.

Unax Urzelai Otaegi

Antzuola. 3,410 Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Olatz eta Eñaut. Argazkian, Unax arreba Ibonerekin eta aitarekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



	Onenak		Buztinezko ontziak		Tximino mota			
	Bekokia		Filma		Tantalioa			
	Bigunak, samurrak							
	Presio unitate							
Nafarroako goi ordokia		* Kirol olinpiarra				Bokala		
Ez eme						Ahuntzaren ar		
		Gogoak						
		Zerbait						
Harekiko								
Joan den urtean								
			Neukake					Kasik, abantzu
			Galioa					
Segan egiten du								
Pl., musika tresna								
						Bokala		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

M	A	R	A	K	A	K	■	A	
■	S	E	G	A	L	A	R	I	
I	A	Z	■	N	U	K	E	■	
B	E	R	E	K	I	K	O		
A	R	A	■	I	M	A	K		
U	■	B	E	L	A	■	A		
■	B	E	R	A	K				
K	O	P	E	T	A				
H	■	Z	■	M					

BILA-BILA 7

AI, ENE!

Honetarako ere behar al da kaskorik?

Etxeko txikia munduko hurrengo moto txapelduna izatea gura baduzu, jostailu honekin has daiteke ibilgailura ohitzen.
www.likecool.com

AHOBERO

"Baina ez al dago [ministro beltzarana] bortxatuko duen inor?"

DOLORES VALANDRO | ZINEGOTZI ITALIARRA

Iparraldeko Ligako kidea den Valandrok Cécile Kyenge, Italiako Integrazio ministroari buruz esan zituen hitzok bere Facebookeko profilean. Sortu den polemika ikusita, txantxetan ari zela esan du honek ere. Graziaren bila jarraitzen dugu guk...
www.elpais.com

EGURALDIA

Max. 20º
Min. 14º

Hodeigune trinkoak nagusituko dira, batez ere arratsaldean, eta, orduan, euria egingo du..
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2013-06-17

HAMARREKOA

Alex Txikon Igeltsero, aizkolari, mendizale eta abenturazale lemoatarra zapatuan abiatu zen Karakorum ingurura txikitatik izan duen ametsa, K2-a igotzea, betetzeko asmoarekin | **TXOMIN MADINA**

"Nire asmoa ez da bai edo bai gailurrera heltzea"

1. K2-a duzu hurrengo helburua. Oraingoan bai?
Ez dakit. Lehenengoz 2004an egon nintzen, bigarrenez 2011an; hirugarrenean esaten dute baietz... Gauza bakarra nahi dut nik: ondo pasatzea eta denok itzultzea. Hobeto da etxera tontorrarekin itzultzea, baina nire asmoa ez da bai edo bai gailurrera heltzea.

2. Gailurra ez zapaltzea beraz, ez da beti porrota.
Ez; kasu askotan erakutsi dugu ezetz esatea edo buelta ematea, kosta arren, askoz gehiago dela. Ez da porrota; eta kasuaren arabera, are gutxiago.

3. Hamar *zortzimilako* dituzu, baina momentuz, Everestik ez.
Ez. Aurten egon gara lehenengoz han, eta ikusitakoa ez zait ezer gustatu. Gura genuelako joan gara: gauza politak ikusi ditugu, baina baita jendetza-eta horrelakoak ere. Agian egunen baten igoko gara, baina gainera, duen prezioarekin, oraingoz ez dugu dirurik.

4. Gailurrez ari garela, Euskal Herrikoen artean, zein kuttunena?
Akaso Gorbeia, etxe ondoan dugu -eta. Anboto ere bai... Euskal Herriko mendi asko gustatzen zaizkit.

5. Espedizio luze baten, etxeko zein jan botatzen duzu faltan?
Ez dakit... Egia esan ondo jaten dugu. Baina faltan botatzekotan okela, txuleta on bat... Edo baba lapiko bat ere bai. Arraina, adibidez, ez dut faltan botatzen.

AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Lapurrak, guztiz pobreak bihurtu"

"Gauza pila bat egingo nituzke. Estatu espainiarrean eta gure herrian dauden lapurrak guztiz pobreak bihurtuko nituzke, eta Afrika eta Asiako pobrezia gelditu; mundua onerako zeharo aldatuko nuke. Euskal Herriarendako independentzia eskuratuko nuke, zazpi herrialdeekin; eta euskal preso politikoak Euskal Herrira ekarriko nituzke".

6. Base jauzian, salto egitea edo lurra hartzea, zer da zailena?
Beldurra ez izatea eta ezetz esaten jakitea. Atzo egon nintzen jauzi baten aurrean: goizean jende asko zegoelako eta arratsaldean haizea zegoelako ez nuen egin. Salto egiteko orduan ezetz esatea da garrantzitsuena.

7. Igoerak eta jaitsierak, denak, *Txikon Xtreme* saioan.
Baleukok ekoiztu du azken abenturetako materialarekin. Ez zait gustatzen ni neu telebistan ikustea; etxekoendako polita da, baina nire ahotsa entzutea, edo tontoarena egiten ikustea ez zait gustatzen.

8. Abenturarako grina inoiz galtzeko beldurrik?
Beldurra ez da lagun ona, egokiena errespetua izatea da: mendiekiko, naturarekiko, norberarekiko... Baina ez; honetan urteak daramatzadan arren, hasten nabil: abentura asko ditut aurretik!

9. Azken egur mozketa, noiz?
Joan den eguenean. Aizkoran egitea izugarri gustatzen zait, asko gozatzen dut. Akaso espediziora eroango dut aizkora... 2011an eroan genuen, eta jende pila bat etorri zen ikustera.

10. Hamahiru anai-arrebetan, gazteena zu. Onerako edo ez?
Onerako; txikitan ezer falta ez arren, baliteke albokoek zituztenak ez izatea, baina harro eta pozik nago familiarekin. Txikiena izateak naizen modukoa egin nau, saiatua.

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA

2013, 2014, 2015...1984?

Amets bat izan dut bart. Sistema totalitario batean bizi ginela. Bibote urriko gizontxo batek maneiaturiko ordenagailu baten menera. Geure kabuz pentsatu eta jarduteko ahalmenik gabe, Orwellen 1984 eleberrian antzera. Amets bat izan da, bai, baina, pentsatzen jarriz gero, ez dago urrutiegi kapitalismoaren Anaia Nagusiek eta lekaioek opa diguten bizimodutik. Krisi finantzario delakoak aitzakia perfektua eman die hamarkadatako borroka sozialen lorpenak deuseztatzen hasteko. Denetariko eskubideak kendu edo mugatzeko. Errepresio politiko eta soziala gogortzeko. Inozoa da goikoek egoera hobetuko dutela itxoitea. Konponbideak behetik irten behar du, irtengo bada. Herritarron antolaketatik, kontraboteretik, autogestiotik... Boteredunei status quo -a betikotzea komeni baitzaie beti ala beti. Eta, zer esanik ez, kontrol soziala areagotzeko eta etekina ateratzeko bidea errazten badie. Apokaliptikoa naizela? Paranoikoa? Demagogikoa? Nahi duzuena. Baina antzeko krisi baten magalean jaio eta elikatu zen nazismoa ere. Eta nik behintzat ez dut ondo lo egiten bibote urriko gizontxo batek politikara bueltatzeko mehatxu egin duenetik.